

MERKATU PLAZA, BIRZIKLETA AZOKA EGUN BATEZ

Mugikortasun Jasangarriaren
Astearren barruan, bigarren eskuko
bizikletak eta ziklismoko
osagarriak erosteko aukera izango
da bihar Arrasateko merkatuan
egingo den Birzikleta Azokan / 2

Bihar, zapatua, Arrasateko merkatu plazan egingo den Birzikleta Azoka prestatzeko lanetan, eguenean. XABIER URTZELAI ATXOA



**Arrasateko Udalak
3.371.371 euro
bideratuko ditu Santa
Teresa eta Doneztebe
Portuko berritzeko / 9**

Ikerlaneko zuzendari eta presidente izandakoak omendu dituzte

Arrasateko kooperatibak
50. urteurrena ospatu du
erakundeetako eta
enpresetako
gonbidatuekin / 5



Erakundeetako ordezkariak eta Ikerlaneko buruak, atzo, Amaia antzokian. L.U.



**OÑATIKO ETA ARETXABALETAKO
JAIEN GEHIGARRIAK / 17 eta 37**

**Lehendakariak eman
dio hasiera MÜren
ikasturte berriari;
7.000 ikasle
matrikulatu dira / 3**

SINADURAK

	MAMADOU SARR / 50
	MIREN JOSU ARRAZOLA / 6
	AITOR UGALDE / 54
	JAIME BENGOA / 10
	AINTZANE OIARBIDE / 64



Turismoa itogarri
izatera pasatzen
denean

Josu Bereziartua
alpinistari
elkarrizketa

2x189 €

MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE
MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 79 29 95
Otalora Lizentziaduna, 18
ARRASATE

943 76 15 75
Ibargarai, 16
BERGARA

www.multiópticas.com



eskate hitzordua





Zapatuan Arrasaten egingo den Birzikleta Azokarako gertatzen atzo, eguena. XABIER URTZELAI ATXA



Neskatala bat zain bizikleta konpontzen duten bitartean, Bergaran. JOKIN BEREZIARTUA

Kontzientzia hartzeko egunak Mugikortasun Jasangarriaren Astean

Mugikortasun Jasangarriaren Astearen barruan hainbat ekintza antolatu dituzte Arrasaten, eta horietako bat izango da bihar egingo duten Birzikleta Azoka; bigarren eskuko bizikletak eta ziklismoko osagarriak erosi ahal izango dira

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE Debagoienara ere iritsi da Mugikortasun Jasangarriaren Astea, eta horren adibide dira, besteak beste, Arrasateko Udalak aste honetarako antolatu eta egin dituen hainbat ekintza. Aste osoan doakoa izan da herribusa eta domekara arte halaxe izaten jarraituko du.

Beste urte batez, Arrasate Herri Eskolako bigarren eta hirugarren zikloetako ikasleak oinez joan dira eskolara, taldeka, Udako Ingurumen Eskolako irakasleek lagunduta. Denera, 61 ikaslek hartu dute parte. Ingurumen Eskolakoek adierazi dute San Andres eta Erguin auzoetatik hamasei ikasleko taldea osatu dutela eta erdialdekoan, berriz, 45 laguneko. "Oso pozik" daudela adierazi dute Ingurumen Eskolakoek, iaz baino talde handiagoa osatu

dukelako aurtengo edizioan, eta espero dute datozen asteetan ere ikasleek ikastetxera oinez joaten jarraitzea: "Nahiko genuke astebetean lagundu ostean ohitura horrekin jarraitzea ikasleek hemendik aurrera. Ea euren kabuz taldeak osatzen dituzten eta taldeka etortzen diren".

Bizikleta Azoka bueltan Azkenengoz 2019an egin zuten Birzikleta Azoka bueltan da. Egoera onean dauden bizikletak eta osagarriak batu dituzte, adin guztiendako, eta bihar 11:00etatik 14:00etara bitartean jarriko

BIHAR EGINGO DA BIRZIKLETA AZOKA ARRASATEN, 11:00ETATIK 14:00ETARA

dute salgai jasotako materiala udal azokan –azoka 10:45ean zabalduko da, baina salmentak 11:00etan hasiko dira–. Eguaztenerako, 115 produktu zituzten jasota, eta horietatik, gutxi gorabehera, 71 ziren bizikletak: umeendako, mendirako, biderako, paseorako, elektronikoa edota haurrentako triziklo eta motorrak. Horietaz gain, kaskoak, arropak nahiz osagarriak eta bestelakoak ere jaso dituzte.

Produktuen prezioak jabeak jartzen ditu, eta eguaztenera arte jasotako bizikletarik garestiena 700 eurokoa zen.

Materialen bat erosi nahi duen herritarrek prozedura hau jarraitu beharko du: lehendabizi, erosi nahi duen artikulua aukeratu eta bertan egongo den laguntzaileetako bati adierazi. Horrela, etiketa emango dio erosleari eta ordainketa puntura

joan beharko du. Antolatzaileek adierazi dute dirua eskudirutan eta justu eroan beharko dela: "Guk ez dugu dirua maneiatzen, ez dugu kanbiorik edukitzen. Zenbateko esanguratsua duen bizikleta bada, jabeak eroslearekin egiten du ordainketa".

Horrekin batera, saltzen ez den materiala eta saldutakoaren zenbatekoa jabeari itzuliko zaio irailaren 26an, eguena, 17:00etatik 19:00etara, udal azokan.

Beste zenbait ekintza

Martitzenerako helduek bizikletan modu seguruan ibiltzen ikasteko ikastaroa zegoen antolatuta, baina bertan behera gelditu zen, izen-emate baxuagatik. Dena den, programazioaren arduradun Nerea Lazpiurrek aurreratu du udazkenean berriro egiteko ideia dutela: "Agian, ez da mezua ondo heldu. Ikastaroa zen bizikletan modu seguruan ibiltzen ikasteko, ez bizikletan ibiltzen ikasteko. Bizikletan ibiltzen diren pertsona helduei zuzendutako ikastaroa zen: bideetan bete behar diren arauak ezagutu, seinaleak, bidegorrietan nola ibili, ezaugarriak... Eta, ondoren, praktika egin herrian bertan, hainbat bide motatan trebatzeko".

UDAZKENEAN EGINGO DUTE HELDUEK BIZIKLETAN MODU SEGURUAN IBILTZEN IKASTEKO IKASTAROA

Hala, udazkenerako baita ere, DBH-leko ikasleendako ikastaroa antolatu dute, bizikletaz modu autonomo eta seguruan ibiltzen ikasteko. Lazpiurrek aurreratu du 200 ikaslek baino gehiagok hartuko dutela parte, bederatzita bertan banatuta.

Domekan, berriz, Hartzaren Urratsa ibilbidearen hirugarren etapa egingo dute. Arrasaten hasi eta Leintz Gatzagan amaituko dute; 20,5 kilometro dira, baina gura duenak aukera izango du etapa Eskoriatzan amaitzeko –12,5 kilometro–. Izena eman behar da *izenemateak. arrasate.eus* atarian edo 943-25 20 00 zenbakira deituta.

Bizikleta azterketak doan

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere bat egin du Mugikortasun Astearekin, eta *Jarri bizikleta prest MUGIrekin* kanpainak geldialdia egin du Arrasaten eta Bergaran, besteak beste, Mugi txartel pertsonalizatua duten erabiltzaileek bizikleta konpontzeko doako zerbitzua jaso dezaten. Hainbat bizikleta dendak bat egin dute egitasmoarekin eta Debagoienan Arrasateko Lizaralde Kirolak establezimenduak bizikletak doitzeko zerbitzua eskaini die erabiltzaileei.

"Ekartzen dituzten bizikletei azterketa pasatzen diegu eta, zerbait aldatu behar bada, dena batera joateko gomendioa egiten dugu", zioen eguaztenean Bergaran lanean jardun zuen Zumarragako Zatika dendako Lander Uribesalgo mekanikariak.

Ikasturte akademikoa inauguratu du MUK

Eguazten eguerdian egin zuten MUKren irekiera ekitaldia, Arrasateko Hirekin zentroan, eta bertan izan zen, besteak beste, Imanol Pradales lehendakaria; Unibertsitateko errektore Vicente Atxak 2025-2028ko aldirako Plan Estrategikoa izan zuen hizpide

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE 2024-2025eko ikasturteari hasiera eman zion Mondragon Unibertsitateak eguaztenean Hirekin zentroan. Zortzi gradu gehiagorekin hasiko du ikasturtea eta 7.000 ikasle baino gehiago matrikulatu dira ikasketa ofizialetan; 2.400 ikasle berriak dira, duela lau urte baino %18 gehiago.

Hezkuntzako ordezkariak, enpresetakoak eta erakundeetakoak izan ziren: Imanol Pradales Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Juan Ignazio Iglesias Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburua, Anparo Merino



Pefiakoba, Atxa, Pradales, Perez Iglesias eta Egibar, eguaztenean. TXOMIN MADINA

Gizarte ekonomiarako idazkaria, Xabier Egibar Mondragon Unibertsitateko presidentea eta dekanoa eta errektore ohiak. Arrasateko alkate Maider Morras ere bai, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkateekin batera.

Lau lehenetsun estrategiko

Vicente Atxa MUKo errektoreak 2025-2028ko epealdi estrategikoa-ri buruzko xehetasunak eman zituen. Azpimarratu zuenez, "oparoa" izan da aurreko epealdia, eta Europako Batzordeak "Europako lehen unibertsitate dualaren aliantzaren lidergo bereizgarria onartu izana" nabarmendu zuen. 2030erako "nazioarteko erreferentziatzko unibertsitatea" izan nahi dute.

MUK "enpresek eskatzen dituzten profil profesionalak identifikatzeko eta prestatzeko duen gaitasunaz" hitz egin zuen Pradalesek, baita elkarlanaz ere: "Unibertsitatearen, enpresen eta gizarteko erakundeen arteko kooperazioa ezinbesteko faktorea da ikerketa, transferentzia eta aholkularitzaren erako arloetan; lankidetzaren kultura landu, zabaldu eta hedatu behar dugu".



Iñigo Alberdi. I.A.

Kide numerario izendatuko dute bihar Iñigo Alberdi

Bihar izendatuko dute Iñigo Alberdi Bilboko Korral Elkarte-ko zuzendaria Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte-ko adiskide numerario. 12:00etan izango da, Seminarixoan, eta hitza hartuko dute Bergarako alkate Gorka Artolak, Elkarte-ko Gipuzkoako lehendakari Luis Elizegik eta adiskide numerario Jon Baguesek. *Kantuz sortu gara* izango da Alberdiren sarrera ikasgaia.

Esan agur barizeei!

Zure barizeen tratamendurako kirurgiarik gabeko konponbidea

Zainetako ultzera eta kirurgiaren ondoren berragertutako barizeetan espezializatutako erradiologo interbentzionistak

Ibilbide zabal baten ondoren eta Varitek kliniketan arrakastaz sendatutako zain safenoen 2.500 kasu baino gehiagoren ostean, kirurgiaren beharrik gabeko metodologia berritzaile eta zehatza osatu dugu barize mota guztien tratamendurako.

Diagnostiko xehe baten bidez, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzeko ditugu, pazientearen bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, barizeak kirurgiarik gabe, ospitalerazterik eta konbaleszentziarik gabe eta adin-mugarik gabe tratatzeko aukera ematen diguten teknikak erabiltzen ditugu.



RPS 55/19

variTek

EGOITZA BERRIA! ▶

Alameda Rekalde 13
Bilbao-Bilbo



BILBO
690 623 391

Atotxa Zelala plaza z.g.
Donostia-San Sebastián



DONOSTIA
666 776 159

Florida kalea 72
Vitoria-Gasteiz



GASTEIZ
689 338 931

varitek@varitek.es    www.varitek.es

LAGUNAROREKIN ADOSTASUNA  LAGUN ARO



Martitzenean aurkeztu zuten erakusketa. TXOMIN MADINA

Gerran erbesteratutako haurrak memorian

'Orratz-begia. 1936-Gipuzkoako gerra haurrak' erakusketa dago ikusgai Kultureteko klausuroan urriaren 12ra arte. 600 argazkiz osatutako katalogoa, belaunaldien arteko memoriaren zaintzaren gaineko teoria eta instalazio artistiko bat daude bertan

Iñigo Barrena ARRASATE

Irail hasieran Donostian aurkeztu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek Monica Jato irakaslearekin batera ondutako *Orratz-begia. 1936-Gipuzkoako gerra haurrak* erakusketa; estreinaldia, aldiz, atzo egin zuten, Arrasateko Kultureteko klausuroan. Bertan egon ziren, erakundeetako ordezkariekin eta erbesteratutako umeekin zein haien senideekin, herriko zein bailarako hainbat kultur elkarre, baita Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia ere. Urriaren 12ra arte egongo da erakusketa Kultureteko, asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara eta zapatuetan goizez. Proiektuaren baitan atera duten katalogoa bertan zein Elkar dendan eskuratu ahalko da, 10 euroren truke.

Proiektuaren zutabeak

Asteartean egindako aurkezpenean, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide Julia Mongek proiektuaren hiru zutabeak azaldu zituen: "Erbestearen testuinguru sakona egin dugu Josu Txuekak 600 argazki bai-

no gehiagorekin egin duen katalogo batekin. Horrez gain, Monica Jatok belaunaldien arteko memoriaren zaintzaz egin duen teoria ere badago". Hain zuzen ere, Birminghamgo Unibertsitateko irakasle Jatok azaldu zuen memoria betebeharrak izateaz gain herritarren eskubidea ere badela: "Frogatuta dago hirugarren belaunalditik aurrera memoriaren transmisioa ez dela modu berean egiten, eta hor sartzen da Intxorta 1937 Kultur Elkartearna bezalako lana".

Erakusketan Judith Martinez Estradaren instalazio artistikoa ere badago. *Egiarekin topaketak* jardunaldietan gerrako ume izandakoen testigantzak jasozituen abiapuntu gisa. "Gerran erbesteratutako umeen bildumetan lortutako argazkiak dira eta tamaina oso handian jarri ditugu, istorio horiek beste era batera ikusi daitezkeen", dio Martinezek. Aurkezpenean izan zen baita ere Maider Morras alkatua, zeinak memoria lantzearen "garrantzia" azpimarratu zuen, eta gaia gaurkotatunarekin "lotuta" dagoela.

Mintzapraktiketan izena emateko epea zabalik dago

Hogeita hamar urtetik gora duen egitasmoak aukera ematen die euskaraz bizi eta erabili nahi dutenei

Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Mintzapraktika egitasmoa prest da ikasturte berri bati hasiera emateko Euskal Herriko hainbat txokotan. Dagoeneko hogeita hamar urteko langa gainditu du egitasmoak eta osasuntsu dago, hiru hamarkada igaro diren arren. Ibarrean ere hainbat herritan eramaten dute mintzapraktika aurrera, eta dagoeneko izena emateko epea zabalik dago. Hasiara honetan izenik ematen ez duenak ere aukera izango du ikasturtean zehar apuntatzeko. Mintzapraktikan izena emateko aukera herri edo eskualdeko euskara elkarteetan, euskaltegie-tan, udaletan eta www.mintzalguna.eus gunean dago, baita informazioa jasotzekoa ere. Ibarrean, Bergaran, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan eta Elgetan dago mintzapraktika taldeetan sartzeko aukera.

Euskararen mesedetan

Mintzapraktiketan izena ematen dutenak astean behin elkartzeko dira. Euskaraz ondo moldatzen den pertsona bat hizkuntza maila hobetu nahi duen lagun talde batekin elkartzeko da eta hainbat gairen inguruan mintzatzeko dira partekatzen duten denbora tarte horretan. Gainera, mintzapraktikak beste zaletasun batzuekin ere uztartzen dituzte, aisialdiko guneak aprobetxatuta edo irteerak eginda. Guztiaren ardatza euskaraz egitea da, eta mintzapraktikak duten "garrantzia" azpimarratu dute, esaterako, Berriketan egitasmoak; era berean diote praktika horiek "hiztegia bereganatzen, segurtasuna irabazten eta beldurrak uxatzen" laguntzen dietela pertsona askori, eta egunerokotasunean euskara erabiltzera animatu.

DEBAGOIENEN

PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETAK
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

"Alzheimerrak, azkenean, beti egiten du aurrera"

IÑAKI OLALDE AFAGIKO PRSIDENTEA

1991n sortu zen Afagi, alzheimerra eta beste demenzia batzuk dituzten pertsonen, lagunen eta senideen elkarte. Bihar, zapatua, Alzheimerraren Mundu Eguna da

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA

Bihar da Alzheimerraren Mundu Eguna, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Afagi elkarteak *Elkarrekin indartsuagoak gara* kanpaina abiatu du. Afagiko presidente Iñaki Olalde oñatiarrak demenzia horren nondik norakoak azaldu ditu.

Gipuzkoan alzheimerra duten 14.400 pertsona daudela uste da; zenbat daude Debagoiengan?

Esan beharra dago ez dagoela alzheimerra duten pertsonen zentsu ofizialik. Hori 2019an Espainian egindako ikerketa bat da, eta datu batzuk erakutsi zituen. Bertan esaten zen 65 urtetik gorako pertsonen %8-8,5ek izan dezaketela alzheimerra. Fase ezberdinetan izan daiteke: diagnostikatu gabea, fase arinak, fase moderatuak eta fase aurreratuak. Datu horiek Osasunaren Mundu Erakundeak onartu zituen, eta, Gipuzkoako biztanleriarekin, 14.000 inguru direla uste da.



Iñaki Olalde, Afagiko presidentea. GOIENA

Debagoiengan, kalkulu horiek eginda, 1.000-1.100 pertsona direla uste dugu.

Gora egiten dabilen demenzia da?

Bai, gora egiten dabil. Horren arrazoia nahiko erraza da: urte gehiago bizi garenaz, demenziak

gure garunean kalte handiagoak eragiten ditu.

Genetikoki transmititzen da?

Baietz esaten dute, baina oso gutxi. Kasuen %1-2 artean transmititzen da. Hori baino gehiago beste faktore batzuek eragiten

dute: adina, bizimodua, tabakismoa, kolesterola, tentsioa eta aktibitate kognitiboak ez lantzea. **Zein izaten da alzheimerra duten pertsonen profila?**

Bereziki, adineko pertsonak, urteetan barrena sintoma batzuk erakutsi dituztenak; adibidez, gauzak ahaztu, desorientazioa, erabakiak hartu ezina, umore kontuak aldatzea eta abar. Hala ere, adindua izatea izan ohi da faktore komunena. Orain, jende gaztea ere ikusten da, baina, hala ere, sintoma asko 65 urtetik gora hasten dira agertzen. Normalean, emakumeak izaten dira gizonezkoak baino gehiago, baina uste dut emakumeak gehiago bizi ohi direla dela horren arrazoia.

Laguntzen du diagnostiko goiztiarra egiteak?

Diagnostiko goiztiarra baldin badago, gaixoarekin hitz egiteko aukera izaten duzu. Gauzak nola doazen ikusten da, garapen bat antzeman daiteke. Tratamendu farmatologikorik ez dagoen arren, bai egoten dira bestelako tratamenduak, gaixotasuna moteltzen dutenak. Horrek aukera ematen digu gauzak, poliki-poliki, hobeto egiteko. Askotan, fase aurreratuan dagoen jendea heltzen zaigu, eta haiek ezin dute tratamendu farmatologikorik jaso.

Gaitzak beti egiten du aurrera?

Gaixotasunak, azkenean, beti egiten du aurrera. Hala ere, gurekin tailerrak egiten dituztenekin balorazioak egiten ditugu eta, askotan, ikusten dugu mo-

deratu egiten dela; hau da, beste kasu batzuekin alderatuta ez duela horren aurrera egin.

Baina ez dago behin betiko tratamendurik.

Oraindik ez dago. Ameriketako Estatu Batuetan badaude tratamendu batzuk; batek, adibidez, Aducanumab du izena. European bi herrialdetan bakarrik daude baimenduta, baina Espainia ez da horietako bat. Horien ondorioak zeintzuk diren ere ez dago oso garbi. Gainera, tratamendua garestia da.

Elkarrekin indartsuagoak gara, dio aurtengo leloak; elkarrekin, nortzuk?

Lehenik, gizartea: lagun artean pertsona alzheimerdun bat ikusten badugu, lagundu egin behar zaio, inklusiboak izan behar dugu. Zaintzaileei ere lagundu behar zaie. Bigarrenik, erakundeak: gurea bezalako elkarteak edo ikerketa egiten dutenei lagundu egin behar zaie. Azkenik, entitate pribatuak daude: horiek bi bidetatik lagundu dezakete: Gazteei diagnostikatzen zaienean aktibo izan daitezkeen lan ziklo bat jarritz eta gurea bezalako elkarteak ekonomikoki lagunduta. Denok gure aletxoak jarritz gero, gu pozik gaude.

"URTE GEHIAGO BIZI GARENEZ, GURE GARUNEAN KALTE HANDIAGOAK ERAGITEN DITU"

'Urrats bat, 50 urte' ekitaldia

50 urte bete ditu Ikerlanek, eta urte horietako presidente eta zuzendariak omendu zituzten atzo, *Urrats bat, 50 urte* izeneko ekitaldian. Arrasateko Amaia antzokian egin zuten ekitaldia, eta inguruko enpresa, bezero eta erakunde laguntzaileetako jende ugari bertaratu zen; adibidez, Eider Mendoza, Gipuzkoako diputatu nagusia.



LUKEN UGARTEBURU

Dei bidez adineko pertsonen bakardadea uxatu

Zilarrezko harria izeneko dei maratona egingo du Nagusilane urriaren 3an, adinekoen bakardadeari aurre egiteko. Hamabi orduz telefono bidezko konpainia eskainiko dute. Boluntarioak Donostiako Miramon jauregian elkartuko dira, 09:00etatik 21:00etara, bakardade egoeran dauden pertsonen deitzeko. Boluntario gisa izena emateko, 688 73 95 23 eta 943-47 50 21 telefono-zenbakiak zein voluntariado@nagusilan.org helbide elektronikoa dituzte. Maratoiaz gain, bakarrik sentitzen direnentzat 900-71 37 71 zenbakia dute. Astelehenetik eguenera 10:30-13:00 eta 15:30-17:00 bitarte eta egubakoitzetan 10:30-13:00 artean dago martxan.



ZABALIK

MIREN JOSU ARRAZOLA

Gazteak nagusien kontra

Azkenaldian publikatu diren artikulua askotan bi talde horiek aurrez aurre jartzen ari dira. Zehatzago, gazteak nagusien kontra. Gazteek soldata eskasak dituzte, etxebizitza erosteko edo alokatzeko eta emantzipatzeko zailtasun handiak. Horiekin alderatuta, nagusiek pentsio omen dituzte eta nolabait aditzera ematen da pentsiodunak direla gazteen egoera txarraren errudun.

Baina batak ez du besterekin zerikusirik. Gazteen soldata murriztak eta lan baldintza prekarioak ezin zaizkie pentsiodunei aurpegiratu. Gazteen egoera makurraren errudunak dira enplegu legedia, arauak betetzen ez dituzten enpresa eta administrazioak, azpikontratak eta gehiegikeriak.

Gazteak eta nagusiak elkarren kontra jarrita, benetako arduradunek betikoa egiten jarraitu dezakete. Berdin, bertakoak eta etorkinak elkarren kontra jarrita. Bizimodu baten bila kanpotik etorritako gizonak, emakumeak eta haurrak izango balira bezala gure arazoan iturri. Iritzi zutabe batean irakurri dut uda honetan 16 urtetik gorako boto eskubidea ezarri behar dela ezinbestean,

ARTIKULUAREN ARGUDIOA ZEN BEHARREZKOA DELA GAZTEEK NAGUSIEN ERAGINA LEUNTZEA

zahartutako gizarte honetan nagusien botoak duen pisua konpentsatzeko. Badaude argudioak horrelako neurri bat defendatzeko: adituek diote horrek gazteen parte-hartze politikoa bultzatzen duela luzera. Bestalde, ez duela logikarik legez lan egin dezakeen 16 urteko gazteak edo tratamendu baten inguruan erabaki dezakeen gazte horrek ezin bozkatzea hauteskundeetan. Baina ez, artikulua argudioa zen beharrezkoa dela gazteek, botoaren bidez, nagusien eragina leuntzea, apaltzea. *Boomer* delako belaunaldia erretiroan sartzen ari da eta indar handiegia baitute haien botoek.

Gazteek soldata egokiak eta lan baldintza duinak behar dituzte, eta pentsiodunek, bizitzako azken urteak duintasunez bizitzea ahalbidetuko dien diru sarrera.

Aste honetan itzuli dira pentsiodunak asteroko mobilizazioetara. 7 urte dira jada. Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eskatzen ari dira. Gure gurasoak eta aitona-amonak dira. Eta haien borroka eredugarria da.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

Arrasatearrei deia

JULEN MENDIZABAL ELEZKANOEHUN-EN IZENEAN
ARRASATE

Plentziako bideari jarraituz, Arrasate ere Euskal Errepublikaren parte izateko martxan jarri gara. Zu ere Espainiako Estatuaz nazkatuta zaudete? Zuk ere 2016an 4.266 arrasatearrekin batera euskal estatu independente bateko herritar izan nahi zenuela bozkatu zenuen? Zuk ere bide berri honetan protagonista izan nahi al duzue?

Ehun-en proposamenaren berri jaso eta Plentziako bidea zehazki zer den ezagutzeko, zatoz irailaren 20an arratsaldeko seietan

Kulturateko Garibai gelara eta antolatu gaitezen Arrasate Euskal Errepublikaren parte izango den herri bihurtzeko. Guk egin ezean, gureak egin du.

Inesen kontzertua

MADDI ETXABE HERIZ

ARRASATE

Zenbat gauza kabitzen diren Ines Osinagaren kontzertu baten. Zenbat gauza salatu daitezkeen oihukatu eta minik eman gabe. Zaurgarri agertzearen garrantzia. Izan ginenaren epairik gabeko harrotasuna. Aldaketaren ausardia. Eta harrotasuna. Plaza komunitate bihurtzearen garrantzia. Denak desberdin eta denak baliotsu. Guztien

ahots eta esperientziak inportantzia izatearen beharra. Jaiotzearen eta hiltzearen arteko lotura. Eta beharra. Eta bizitasuna.

Olaia Inziartek dioen bezala: "Denak begira daudela isilik gelditzen denaren elegantzia".

Norberaren beldur, memoria eta zauriekin publiko handi baten aurrean biluztearen ausardia. Boterea elkarbanatzeko kenduko dizuten beldurrik gabeko prestutasuna. Eta honen guztiaren gaintetik, emakumeak. Emakumeak eszenatoki gainean. Protagonistak. Askorentzat eredu. Esker hitzak besterik ez.

"Bizitza da aldatzea. Hori bakarrik eta hori guztia".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEAwww.goiena.eus**Argitaratzailea**Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE**Lehendakaria**Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.**Erredakzio batzordea**Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.**Zuzendari komertziala**Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.**Diseinu arduraduna**

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa

arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunakXabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.**Publizitatea**Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.**Administrazioa**Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.**HARPIDETZA**Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus**PUBLIZITATEA**Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus**EGOITZA NAGUSIA**Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus**Lege Gordailua:** SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Israeli boikota!**IGOR URIZAR MURGOITIO**

ARRASATEKO BDZ

ARRASATE

Israelen ekoitziak ziren produktuak kentzeko lehen urratsa Douglas-en egin genuen. Ondoren, bilera ireki bat egin genuen BDZ mugimendua ezagutzera emateko eta hurrengo pausoak adosteko. Egunerokoan, erosketak egiten ditugunean, konturatu gabe hainbat produktu hartzen ditugu Israelen ekoitziak direnak, eta, ondorioz, palestinar herriaren genozidioa aurrera eraman edota finantzatzeko enpresak laguntzen ditugu. Honen jakitun, supermerkatuetan *Made in Israel, Origen Israel* eta 729 barra-kodearekin hasten diren produktuak identifikatzen hasi ginen. Horretan pasa dugu uda. Behin produktu horiek identifikatu eta gero, eskaera egin genien supermerkatuei produktu horiek kentzeko. Hauek izan dira erantzunak eta aurkitutako produktuak: Eroski Musakolatik momentuan Israelen ekoitziak diren datilak kendu zituzten, baita Garden Gourmet markako produktu bat, 729 barra kodeaz hasten zena. Berrito ez ekartzeko konpromisoa hartu zuten. Alcampotik Israelen ekoitziak ziren datilak kendu zituzten. Berrito ez ekartzeko konpromisoa hartu zuten. Eroski Zerrajeran 729 barra-kodeaz hasten zen Garden Gourmet markako produktua

behin saldu eta gero berriro ez ekartzeko konpromisoa hartu zuten. BMk ez du produkturik kendu. Guk identifikatuak dira 729 barra-kodeaz hasten den Garden Gourmeten produktua, BM markako pipak, BM markako Medjoul datilak eta aguakatea Israelen ekoitziak. LIDLe ez du produkturik kendu. Medjoul datilak eta Lupilu toallatxotak Israelen ekoitziak dira. BDZtik produktu horiei boikota egiteko deia zabaltzen dugu. Produktu horien bitartez, Israel egiten ari den genozidioa finantzatzeko da, eta produktu horiek kendu arte egingo diren mobilizazio eta ekintzetan parte hartzeko deia zabaltzen dugu. Adi mobilizazioei. Produkturen bat identifikatuz gero, idatzi arrasate@bdz.eus-era. Palestina aurrera! Israeli boikota!

Zezen-ikuskizunetan uzten den dirua hobe litzateke kontzientziario eta sentsibilizazio lanetan erabiltzea

YOLANDA JIMENEZ SUDUPE

ARRASATE

Debagoienean lideratzen duten politikarien kode etikoak dio gainerako pertsonen bizidunen duintasun eta eskubideekiko enpatia eta begirunez diharduela. Baina herri batzuetako udalek animaliekiko errespetu, enpatia eta sentsibilitate faltan oinarritutako ekitaldiak antolatzen jarraitzen dute; eta

beste batzuei bururatu zaie 30-40 urtean desagertuta egon diren jarduerak proposatzea.

Gizakia ebolutiboki enpatia gaitasunarekin jaiotzen da. Ezaugarri biologiko hori, bizitzako lehenengo etapetan, familia, eskola komunitate eta ingurune soziokulturalarengandik jasotako balioen arabera garatzen da. Nola sustatuko dugu gazteengan errespetua, gure udaletako kultura sailek errespetu faltan oinarritutako ekimenak antolatzen badizkiete?

Zientzialariek garbi utzi digute animaliek sentitzeko eta sufritzeko gaitasuna dutela. Eta sufirimendua ez da txarra pertsonentzat bakarrik, jasaten duen beste edozein izakirentzat ere bai. Mina mina da beti; beldurra beldurra da; guretzat, eta beraientzat.

Zaurituak ez izan arren, animalientzat ulertezina den jendez beteriko eta ihesbiderik gabeko ingurune zaratsuan larrituta, izututa, urduri, noraezean... izaten dira. Jai giroan ospatzen dugun ikuskizun bihozgabe hori tratu txarra da. Tratu txarra ez da bakarrik jo edo irain egitea. Tratu onik ez ematea tratu txarra da. Bestea jazartzea, gogaitzea, gutxiestea, zirikatzea... ez da ausarta izatea, eraso egiteko moduak dira; errespetu-falta horiek zezen-plazan gertatzen dira. Udalek dibertigarri bezala saltzen digute, baina gizarteko esparru desberdinetan

daukagun indarkeria-arazo larria areagotzeko besterik ez du balio.

Zezenak gustuko izan edo ez, beste izaki baten sufirimendua herritar batzuk dibertitzeko erabiltzea ez da zuzena: jai batzordeek eta udaletako kultura sailek herritarren artean errespetu, enpatia eta sentsibilitate falta bezalako jarrera itsusiak bultzatzen dituzten jarduerak proposatu eta antolatzen dituzte. Azterketa eta hausnarketa sakona egin behar dute, eta ekitaldi horiekin bultzatzen dituzten balio kultural eta emozionalak zalantzan jarri; etikoki zuzenak diren kontuan hartuz eta benetako balorazio bat eginda.

Erraustegirik ez!**AITOR ALDAZABAL ETA PITER ENCINAS**

LARRAMENDIKO ARNASA

ARRASATE

Bergarako erraustegiaren proiektua 2021ko ekainean hasi zen, Valogreen enpresak Bergarako Udalarri eta Eusko Jaurlaritzari berari gezurrak esanez. Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra eta Eusko Jaurlaritzak ez errespetatuz hasi zuten ibilbidea, eta beraien jardura karga mineralak ekologikoki ekoizteko zela esanez, ondoren beste bi jardura desberdin adierazi bazituzten ere.

Proiektuan ikusi genituen gabezia eta faltsukerien aurrean, Larramendiko Arnasa taldeak, Bergarako Udalak, herritarrek eta Ekologistak

Martxan-ek hainbat alegazio aurkeztu genizkion proiektuari, eta proiektua bera salatu egin genuen. Bergarako erraustegiaren proiektuaren balizko irregularitasunak magistratu baten esku egon dira urtebete baino gehiagoz, ikertzeko. Magistratua, egun, ez dago Gasteizeko Epaitegian, lekuz aldatu dutelako.

Bestalde, Euskal Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren egoera, artxibatutako kasuena edota kondenena, irragarriena da. Handik igarotzen diren kasuek horrela ikusarazten dizkigute, eragingabetasun hutsa dagoela erakutsita.

Ekologistak Martxan erakundeak jarritako salaketa bat berrikustean, Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunek ustezko prebikazio delitu bat egin izanaren zantzuak aurkitu zituen Fiskaltzak – prebikazioa da kargu publikodun batek eabazpen bat ematen duenean, bidegabekoa edota irregularra dela jakinda. Horregatik guztiagatik, Fiskaltza Amaia Barredo eta Javier Aguirre Orcajo (EAJ) ikertzen ari da.

Ez gara futurologoak: urtebete baino gehiago igaro ondoren eta dagoen utzikeria ikusita, litekeena da kasua, azkenean, preskribatutaz jotzea, Epaitegi horren eraginkortasunik ezaren ondorioz. Hala ere, proiektu horren aurka jarraituko dugu, zentzugabeko proiektua delako eta herritarren osasunak garrantzi handiagoa daukalako lantegietako zaborrak baino.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI





Astehenean egin zuten prentsa agerraldia, Herriko Plazan. JULEN MURUA MESONERO

Egun gutxiago izan arren, helburu bera: inklusioa

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, Pertsona Nagusien Astea egingo dute irailaren 27tik urriaren 1era; iaz astebeteko egitaraua prestatu zuten arren, bost egun baino ez dira izango aurten, belaunaldiartekotasuna eta inklusioa erdigunean jarrita

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Aste osoko egitaraua prestatzeko "lan handia" zekarrela eta, bost egunera mugatu du egitaraua Arrasateko Nagusien Kontseiluak. "Uste dugu nahikoa izango dela helburuak betetzeko", azaldu du Pili Iriartek, kontseiluko presidentek. "Hala, aste erakargarria, inklusioa eta parte-hartzailea izatea gura dugu eta inportantzia handia ematen diogu belaunaldiartekotasunari; hau da, adin guztietako herritarrek parte hartzeari eta gazteak eta adinekoak elkarrekin aritzeari", gaineratu du. "Beraz, arrasatear guztiei dei egiten diegu kalera atera daitezela eta gozatu dezatela".

Bosgarren aldia da Pertsona Nagusien Nazioarteko Egunari aitortza egiteko programazioa prestatzen dutena, eta aurten ere, hain zuzen, urriaren leian emango diote amaiera egitarauari, manifestua irakurrita. Horrekin batera, Arantza Urretabizkaia idazleak zahartzeari buruzko hitzaldia egingo du eta Arrasate Musikaleko kideek girotuko dute ondorengo luntxa.

Kapelen desfilea plazan

Irailaren 28an egingo duten kapelen desfileari garrantzi berezia eman gura diote. Hain zuzen ere, uztailean kapelak egiteko ikastaroa egin zuten, eta kapela horiek plazaratuko dituzte desfile horretan. Edozelan ere, ikas-

Nagusien Astearen egitaraua

Irailak 27, egubakoitza

- **17:30** Kulturateko areto nagusian, egitarauaren aurkezpena eta Kaitin Allenderen bakarriketa.

Irailak 28, zapatua

- **19:00-21:00** Herriko Plazan, belaunaldiarteko kapelen desfilea Epsilon taldeko musikariekin. Ondoren, urdaiazpiko dastaketa.

Irailak 29, domeka

- **12:30** Herriko Plazan, bermuta eta dantzaldia, Joselu Anaiak taldearen eskutik.

Irailak 30, astelehena

- **12:00** Herriko Plazan, pentsiodunei aitortza. Ostean, luntxa.

Urriak 1, martitzena (Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna)

- **11:00** Iturbide egoitzan, belaunaldiarteko ibilaldia Iturbideko egoiliarrekin eta txistulariekin.
- **17:30** Kulturaten, aurrekuia eta manifestua irakurtzea.
- **18:00** Arantza Urretabizkairen hitzaldia, Udal Bibliotekarekin elkarlanean: *Zergatik lotsatzen gaitu zahartzeak?*

taroko parte-hartzaileez gain, herritar guztiak animatu dituzte egun horretan buruan zerbaite janztera. "Guztiok dugu etxean kapelaren bat, biseraren bat edo pamelaren bat; beraz, jantzi eta irten kalera". Horrez gain, ikas-tetxeetako ikasleak joatea ere gurako lukete, "eta guztion artean egun polit bat osatzea".

Udalarekin elkarlanean

Arrasateko Udalak gertutik lagundu nahi izan die egitaraua

sortzen aritu direnei. Jasone Giraldo Ongizate zinegotziak adierazi du "kontseiluko kideen beharrak poliki-poliki erantzuten" joan direla Udaletik, eta "haien esku dagoen guztia" egingo dutela adineko pertsonen bidelagun izateko. "Belaunaldiartekotasuna landu eta elkar elikatzea da haien asmoa. Bide horretan, Aniztasun Mahaiaren parte izaten hasi dira; hasi dira euren ekarpenak egiten, eta hori oso aberasgarria da", azaldu du.

Musakolako gazte txoko berria egiteko lokala erosi du Udalak

Gipuzkoako Gotzaindegi Nagusiari Elkano kaleko 1. atartearen dagoen lokala erosi dio, 85.000 euroren truke

E.A.B. ARRASATE

Elkano kaleko 1. atartearen dagoen lokala erosi du Arrasateko Udalak, 85.000 eurotan, eta notarioztan sinatu dute lokalaren eskualdatzea Mainer Morras alkateak eta Donostiako Elizbarrutiaren izenean Luzia Alberro idazkari nagusiak.

Hala, eta urtebeteko negoziaketan ondoren, Musakolak gazteentzako gune berria izango du. "Lokalaren egokitasuna ikusita, elizako ondasunen administrari Fernando Laspiur arrasatearrarekin jarri ginen harremanetan, eta haren bitartekari lanari esker lortu dugu akordioa. Prozesua, orokorrean, eta Elizarekin harremana, bereziki, ona izan da. Gure aldetik eskerrak ematea Laspiurri eta Horazio Argate parrokoari. Izan ere, Musakolarentzat ez ezik, arrasatear guztiontzat ere onu-



Gaztetxokoa izango den eraikina. A.U.

ragarria izango da gazteek izango duten espazio berri hori", adierazi du alkateak.

Oraindik, halere, egokitzapen lanak egin beharko dituzte. Proiektua dagoeneko idatzita dago, eta datozen hilabeteetan aterako dute lehiaketara.

Ur-kontagailuak aldatzeko bigarren faseari ekin diote

Ur-kontagailuak aldatzeko bigarren fasea abiatu du Arrasateko Udalak. Klidat Fundibide Group enpresak egingo ditu lan horiek, eta, aldaketak egin ahal izateko, enpresako kideak harremanetan jarriko dira herritarrekin edo jabeakideen komunitateekin, hitzordua adosteko –atarte guztien zerrenda *Goiena.eus* atarian dago–. Udal orde-

kariak nabarmendu dute esku-hartzeak ez duela izango kosturik herritarrentzat.

Kontagailu berrieekin, ur-neurketak digitalizatuta egongo dira, eta "zehatzagoak" izango dira akatsak edota irakurketa okerrak. "Ondorioz, kobrantza okerrak saihestuko ditugu", dio Kepa Urteagak, Obrak Zerbitzuak Mantentzea eta Auzoak Saileko zinegotziak.

Zalantzak argitzeko, 943-81 22 44 zenbakira deitu daiteke, edo ura@klidat.com helbidera idatzi.

Udal Euskaltegian izena eman daiteke, iraila bukatu aurretik

Urrian abiatuko du ikasturte berria Arrasateko Udal Euskaltegiak, eta dagoeneko izen-emaitea zabalik dago. Hain zuzen, maila guztietan eman ahal izango da izena: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 –guztiak, euskara titulu homologatuak–. Horrez gainera, badituzte maila hobetzeko, mintzamen lantzeko eta behar berezietarako ikastaroak ere.

Aurrez aurreko ikastaroetan zein online bidezko ikastaroetan parte hartzeko, iraila amaitu aurretik eman beharko da izena. Horretarako, hainbat bide daude: Arrasateko Udal Euskaltegian bertan –Kulturola eraikinean, Nafarroa etorbidea 2–; 943-79 70 77 edo 943-25 20 00 zenbakira deituta –370 da luzapena–; Whatsapp bidez –688 78 09 31– edo euskaltegia@arrasate.eus era idatzita. Aipatzekoa da Udalak dirulaguntza bereziak emango dituela (Ikus *Goiena.eus*).



Izaro Agirre teknikaria eta Kepa Urteaga zinegotzia, obren aurrean, lanen plano eskuetan dutela. I.A.A.

Urbanizazio lanak hasi dituzte Santa Teresan

Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleak berriro urbanizatzeko lanak hasi dituzte aste honetan. Auzoa birgaitzeko helburuaz gain, etxebizitza blokeei irisgarritasuna bermatzea izango da helburua, eta 3.371.371,90 euroko aurrekontua du proiektuak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Dagoeneko hasi dituzte Santa Teresa eta Doneztebe Portuko kaleak berriz urbanizatzeko lanak. Kepa Urteaga alkateordeak eta Izaro Agirre teknikariak eman dituzte obren gaineko azalpenak. "Prozesua joan den agintaldian hasi bazen ere, Udal Gobernuarentzat lehentasuna da auzoetako bizi-kalitatea hobetzea; batez ere, zaharkituta geratu diren auzoena. Horretarako, hiru milioi eta erdiko aurrekontua onartu genuen 2024ko aurrekontuetan, lan horiek egiteko".

Auzoak estetikoki "itxura berria" hartzearekin batera, gaur egun oinarrian dituen arazoak konpondu eta berrikuntzak egingo dituzte. Hala, horien artean daude egoera txarrean dauden euste-horma berriak egitea, argiteria publikoaren sare berria jartzea eta zerbitzuen azpiegiturak berritzea –ur-hoditeria, argiztapen sistema edota saneamendua–. "Lan horiek guztiak eginda, auzoak bizi-kalitatea irabaziko du".

Irisgarritasuna hobetuko dute Proiektu horrek atarte guztietarako irisgarritasuna bermatuko du, eta hori "ezinbesteko lana" da, Izaro Agirre teknikariaren ustez, horren ondoren etxebizitzetako atarteak igogailuak jarri ahal izateko. "Irisgarritasuna bermatzeko, etxebizitzaren inguruko espaloiak zabalduko beharko dira, eta horrek euste-horma berriak sortzea ekarriko du. Modu horretan, nahikoa espazio izango da igogailua instalatu eta oinezkoen pasabidea bermatzeko".

Dagoeneko etxebizitza batzuek igogailua jartzeko tramiteak hasi dituzte; hain justu, Doneztebe Portuko kaleko 17. atarteak

IRISGARRITASUNA BERMATZEKO, ETXEBIZITZEN INGURUKO ESPALOIAK ZABALDUKO DITUZTE

eta Santa Teresa kaleko 1, 6, 8, 10, 17, 18 eta 22. atarteak. Azken kale horretako 16. atarteak, halaber, jada hasi ditu birgaitze lanak. "Frankismoan eraikitako etxebizitzak dira, eta populazioa ere adinez nagusia da. Horregatik, askok birgaitzearen aldeko apustua egin dute, efizientzia energetikoan urratsak eginez eta igogailua ezartzeko apustua eginez. Eraberritze lan horiek guztiak Arrasateko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker egingo dira", nabarmendu du Urteagak.

Urtebeteko exekuzio epea Lanak Construcciones Moyua SL enpresak egingo ditu, 3.371.371,90 euroko aurrekontuarekin –2.786.257,77 euro, BEZik gabe–. Proiektuak urtebeteko exekuzio epea izango du, eta espazioa berriro urbanizatzeko lanek bat egingo dute denboran etxebizitza blokeen birgaitzearekin.

Udako uzta eta pizza tailerra bihar Seber Altubeko azokan

Ohiko postuez gain, hilabete honetan pizza tailerra ere egingo dute bertako produktuen azokan, 11:00etan. Gaztetxo zein helduentzako tailerra izango da, eta azokako produktuak erabiliko dituzte pizzak egiteko. Amaieran, norberak egindako pizza eramango du etxeko labean egiteko. Dagoeneko plaza guztiak agortu dira tailerrera.

Mundu digitalean sakontzeko tailerra, gurasoentzako

Udal Prebentzio Zerbitzuak, Agipad elkartearekin elkarlanean, *Mundu digitalean seme-alaben bidelagun* izeneko tailerra egingo du, eta DBH-1eko eta DBH-2ko nerabeen gurasoei zuzenduta egongo da. Urriaren 9an hasiko dituzte saioak eta parte hartzeko izena eman behar da, udal webgunean edo 943-25 20 00 zembakira deituta.

OHARRAK

Aurrera Bolie Eguna egingo dute bihar

Egun osoko egitaraua dute, 12:00etako bermut politikoarekin abiatuko dutena. 14:30ean Biteri plazan egingo dute bazkaria.

Katekesian izena eman daiteke

696 87 70 75 (Ana) edo 679 62 62 90 (Pako) zembakietara deituta.

1974an jaiotako kintada urriaren 19an

12:00etan plazan elkartuko dira. Informazio gehiago, 699 60 97 08 telefono-zembakira deituta (Mikel Oteiza).

1959an jaiotako kintada urriaren 26an

65 urte beteko dituzte aurten. Beraz, "berezia" izango dela diote.

Euskara eroso bizitzeko

aek
euskara praktikoa

Debagoieneko AEK
EUSKARA-IKASTAROAK
Komunikazioa da gure metodoa
A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak
Mintzapraktika taldeak
Autoikaskuntza
Programa + tutoretzak + praktika.
Matrikula zabalik: 2024/09/2 - 2024/9/30
Ordutegia: 09:30-13:30 17:30-19:30
Iturriotz 21, beheko, (Herriko plazan) Arrasate
943 77 03 69 - arrasate@aek.eus
twitter.com/debagoienekoAEK
www.facebook.com/debagoieneko.aek

DIRULAGUNTZAK
Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

"Erronka berrien bila etorri naiz Arrasatera"

XUBAN EPELDE MONDRAKO ENTRENATZAILEA

Anaitasunako harrobian egin ditu bereziki entrenatzaile gisa urte gehienak, nahiz eta Bergaran ere ibilitakoa den; segituan onartu zuen Mondrako eskaintza

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Azkoitiko areto futboleko taldean hasita, Anaitasunako harrobiko zenbait kategoriatan gero, Sorluzen, Bergaran... Xuban Epelde (Azkoitia, 1982) bi hamarkada pasa daramatza entrenatzaile. Uztailean Mondrako presidentek Ohorezko Erregional Mailako taldearen ardura hartzeko deitu zionean ez zuen birritan pentsatu, erronka berrietarako gogoz zegoen eta. Etapa berri baten aurrean dago. **Zelan hartu zenuen Mondratik egin zizuten deia?**

Xabik [Etxeberrria] deitu zidanean segituan iritsi ginen adostasun batera. Ikusten nuen Anaitasun-eta etapa bat amaituta neukala. Egia esaten badizut, azken bost urteotan harrobiko taldeetan lanean ibili eta gero ikusten nuen Azkoitiko lehenengo taldea hartzeko gertu nengoela, baina ez zen aukerarik izan eta segituan jaso nuen Arrasatetik deia. Hala ere, erronka bat behar nuen. **Eta zer aurkitu duzu Arrasaten?**

Iaztik ondo ezagutzen nuen taldea, Anaitasunako bigarren taldearekin lehiatu zirelako, eta banekien zerekin egin behar nuen topo. Iaztik hona bizpahiru jokalarik taldea utzi dute, Azkoititik beste hiru jokalariekarri ahal izan ditut eta Mikel Aizpurua ere Arrasatera bueltatu da jokatzera. Maila horretan lehiakorrek izateko moduko taldea dugula erakutsi behar dugu. Bestalde, egia da aste hauetan Mojategiko obrek endredo batzuk sortu dizkigutela, baina ea segituan konpontzen ditugun eta normaltasunez antolatzen ditugun entrenamendu saioak. Hala ere, bai, oso positiboak izan dira hasierako aste hauek, pozik nago.

Pena lehenengo jardunaldiko emaitzak ez duela lagundu.

Bai, pena izan da Oiartzunen kontra galdu izana. Gainera, jokalariei nabarmendu izan diet



Mondrako entrenatzaile Xuban Epelde. LUKEN UGARTEBURU

"PENA IZAN DA LEHEN PARTIDUA GALTZEA, BAINA TALDEAK KONFIANTZA EMAN ZIDAN ZELAIAN"

ondo hastea garrantzitsua dela ondoren konfiantza hartu eta urtea sailkapenaren erdialdetik gora egin ahal izateko; bereziki, beheko kategoria batetik bazatoz. Baina zapatuko porrotak ez nau arduratzen. Oiartzun egindako talde bat da, talde gogor bat, bizpahiru urte daramate entrenatzaile berberarekin eta ondo landutako taldea da, iruditzen zait aurten aurrean ibiliko direla. Eta euren kontra lehiakorrak izan ginen, partidu serioa egin genuen. 82. minutuan, falta batean akats bat egin genuen eta horregatik galdu genuen, baina berdegunean ikusitakoarekin pozik geratu nintzen, taldeak konfiantza eman zidan. Bagenekien ze joko estilorekin etorriko ziren Oiartzungoak, eta, nahiz eta emaitzak lagundu ez, gustura ibili ginen euren kontra lehian.

Pena diot, denboraldiaurrean oso emaitza onak batu dituzuelako...

Bai, baina halakoak ere gertatzen dira. Gerta daiteke, baita ere, emaitza txarrak batzea baina taldearen jokoan eboluzio bat ikustea. Uztailean jokalariekin batu ginenean komentatu genien ze joko ideia geneukan, eta taldea ondo dabil hori barneratzen. Lehenengo emaitza ez da ona izan, baina detaile batek erabaki zuen partidua; jokalariek lan ona egiten ari dira, etorriko dira emaitzak.

Oraingo asteburuan Elgoibarren zelaian jokatu duzue.

Beste talde gogor bat da hori, eta Elgoibarkoak ere gure antzera daude; aurten entrenatzaile berria dute eta egokitzapen fasean egongo dira eurak ere. Ondo ezagutzen dut euren entrenatzailea, kuadrillakoa dut eta [Barre].

Partidu berezia, horrenbestez. Jokalariek motibatuta, eta entrenatzailea motibatuta. Bereziki galtzen duenak entzun egin beharko duela gero...

Gainera, kuadrillako lagunak ere etorriko dira partidua ikustera. Katxondeo apur bat izango dugu, seguru.



NIRE USTEZ

JAIME BENGOA

Mugikortasun jasangarria

Zuei ere gertatu zaizue? Urteberri egunean lez, Mugikortasun Aste honetan ere asmo on eta buruari agindu ugari, ondoren huts egiteko. Gure esku dago zein biharko Arrasate nahi dugun eztabaidatu eta erabakitzea: pertsonak, segurtasuna eta mugikortasun jasangarria erdigunean dituen bizitzeko herria, edo kotxeak baldintzatutako espaloi estu, deseroso eta aire kutsatua duen herria.

Hausnartu dezagun. Irudikatu gure etorkizuneko kalitatezko herria eta parte hartzeko aukerak balia ditzagun mugikortasun jasangarria eta bizitzeko herria ez dadin Urteberriko bete gabeko asmo bilakatu. Ikuspegi eta interes orokorra, nagusitu behar dira erabaki garrantzitsuak garatzeko; esaterako bus geltoki berriaren kokalekuan, oinezko edo bizikletei espazio seguruak eskaintzerakoan, kotxeen aparkalekuen berrantolaketan, herribusaren diseinu berrian... Epe motzeko ikuspegitik haratago, etorkizuna aintzat hartuz, egin dezagun Arrasate bizitzeko herri bat. Hor dugu erronka, hor dugu etorkizuna herri bezala.

Kirol azpiegiturak berritzeko plangintza eskatu du EAJk

Udal Gobernuari eskatu diote adosteko lanen gaineko kronograma bat, "klubak ahalik eta gutxien kaltetzeko"

X.U. ARRASATE

Arrasateko EAJren ustez, plangintza faltak atzerapenak ekarri ditu. "Esaterako, barruko igerilekua ezin izango da garaiz ireki obren atzerapena dela eta. Horrez gain, atletismoko pistako berritze lanak ere atzerapen handiarekin doaz, eta klubarentzako eta erabiltzaileentzako arazoak sortzen dira". Hala, "erabiltzaileak eta klubak erdigunean" jartzeko eskatu diote Udal Gobernuari, hobeak izateko behar bezala planifikatzeko eta obrek kirol jardunarekin bat ez egiteko. "Adibide

onenak joan den agintaldiko atletismo pistaren eta errugbi zelaiaren aldaketak dira, ez baitziren batera egin, klubek beren instalazioetatik kanpo ahalik eta denbora gutxien pasa zezaten".

Horregatik, plangintza bat egiteko eskatu diote Udal Gobernuari, "obrak noiz esleitu, noiz egin eta instalazioak noiz egongo diren erabiltzari argi eta garbi ezartzeko". Era berean, nabarmendu dute "pres-tutasun osoa" dutela Kirol batzordean lanketa hori "se-riotasunez egiteko".

Mondranbiken parte hartzeko deia emakumezkoen

Irailaren 28an egingo dute Besaideko lagunak antolatzen duten Mondranbike mendi bizikleta marxa, eta, azken urteotan moduan, aurten ere emakumezkoen deia egin diete bizikleta marxara batu daitezten. Izen-ematea zabalik dago, *kirolprobak.com* webgunean, eta antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte aurtengora begira.



Mondranbikeko parteidea bat 2022an.



Nick Linbött taldea osatzen duten musikariak talde-argazkian. NICK LINBÖTT

Nick Linbött arituko da Aurrera Bolie Egunean

Zapatu honetan ospatuko da Aurrera Bolie Eguna, eta egun osoko egitarauaren barruan kontzertuek ere lekua izango dute. Hain zuzen ere, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita, Maniaks, Nick Linbött eta DJ Bad Sound Sister arituko dira

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE Rober Gurt bateria-joleak, Peru Atxa baxu-joleak, Jagoba Domingo gitarra-joleak, Marina Garmendia saxo-baritonak, Ibai Akizu saxo-tenoreak eta Andoni Inurritegi *Pottoko* abeslariak osatzen dute Nick Linbött taldea, eta zapatuan diskoko kantuak aurkeztuko dituzte Arrasateko gaztetxeke emanaldian.

Talde berria da Nick Linbött, nahiz eta esperientzia eta ibilbide luzea duten musikariek osatzen duten honako proiektu berri hau. Peru Atxa Libertad Condiciona taldeko kide izan da; Jagoba Domingo eta Ibai Akizu *Screamers & Sinners* eta Galerna taldeetako kide izan dira; Marina Garmendia Arrasate Musikaleko Big Band-ean aritu da, eta Andoni Inurritegi *Pottoko* Never Surrender taldeko abeslaria izan zen. "Jagoba eta *Pottoko* hasi ziren taldea osatzen, eta ia bi urte izan gara lokalean kantuak konposatzen eta gure estiloa lantzen eta mu-

sika fintzen. Bi urteren ostean, aurten egin ditugu lehen urratsak agertokietan, baina hasi bezain pronto diskoa grabatzen hasi ginen". Orain diskoa grabatu berri, zuzenekoetara bueltatuko dira rock-and-rola lau haizeetara zabaltzera.

Rock-and-rola oinarri

Irati tabernan egin zuten taldeak lehenengo kontzertua, apirilaren 20an; bigarren emanaldia, berriz, Plentzian egin zuten, Txiberri Fest jaialdian; eta hirugarrena, eta orain arteko azkena, Bilboko Nave 9 aretoan eskaini zuten. "Hiru emanaldiren ostean, Bilboko Silver Recordings estudioan Capsula taldeko Martin Guevareren gidaritzapean diskoa gra-

ZORTZI KANTUZ OSATUTAKO DISKOA AURKEZTUKO DUTE ARRASATEARREK ZAPATU HONETAN

batzera joan ginen; ostegun batean hasi eta domekan nahasketekin amaitu genuen. Egiten dugun musika estiloa rock-and-rola dela diogu, baina psychobilly, punk-rock eta ska ukituak ere badituzte gure kantuek. Zortzi abestiz dago osatuta diskoa, eta kantu batetik bestera aldea dago; izan ere, abesti ezberdinak dira elkarren artean, eta horrek ere ematen dio berezitasuna diskoari. Gainera, diskoak dituen kantu guztiak euskarazkoak dira", adierazi du Peru Atxak, Nick Linbött taldeko baxu-joleak.

Hurrengo emanaldia, zehaztuta

Aurrera Bolie Egunean Maniaks eta DJ Bad Sound Sistem taldeekin Arrasateko gaztetxean kontzertua eman ostean, hurrengo kontzertua Aretxabaletan izango dute urriaren 11n, Herrixa Kuartelera egitasmoaren barruan. Beraiekin batera eskainiko dute kontzertua Wood Strings eta Jasan taldeek.

Euskarazko komiki kluba, lehen aldiz, Igor Leturiak gidatuta

Komiki klubaren talde berriaz gain, idazketa tailerrean urrats bat egingo dute eskaerari erantzuteko

I.B. ARRASATE

Arrasateko Udal Bibliotekak prest du ikasturte berrirako programazioa, eta, ohiko literatura solasaldiez gain, hainbat berrikuntza izango ditu; besteak beste, idazketa tailerrak eta euskarazko komiki kluba.

Komiki generoaren irakurle taldeak euskaraz eta gazteleraz izango dira. "Gaztelerazko taldea Azucena Mongek dinamizatuko du. Udazkenean hasiko dira eta aste honetan eman beharko da izena. Euskarazko taldea, berriz, Igor Leturia arrasatearrak gi-

datuko du; hori datorren urtean jarriko da martxan, baina interesdunek eman dezakete izena", adierazi du Arrasateko Bibliotekako zuzendari Asun Agirianok. Horrez gain, idazketa tailerrak ere antolatuko dituzte ikasturte berrirako. Hastapeneko saioak eta sakontze-koak Eskoriatzan bizi den idazle Alejandro Fernandez Aldasororekin izango dira, gazteleraz. Datorren urtean izango da, bestalde, euskarazko idazketan sakontzeko tailerra, Mi-
ren Amurizaren eskutik.

Plazako dantzak ikasteko saioak, Portalo Elkartearen eskutik

Hastapeneko dantza saioak urriaren 2an hasiko dituzte, Patxi Montero irakaslearen gidaritzapean

I.B. ARRASATE

Urtero bezala, Arrasateko Portalo Elkartek plazako dantza tradizionalaren gaineko ikastaroa antolatu du, helduei begira. "Aurreko ikasturtean lau talde izan genituen hainbat maila eta ordutegitan, eta aurten ere martxan jarri nahi ditugu taldeak", adierazi dute Portaloikoeak.

Patxi Montero irakaslearen gidaritzapean, hastapeneko saioak urri eta maiatz artean egingo dituzte, urriaren 2an hasita. Kulurolan izango dira saioak, eguaztenetan, eta inte-

resdunek 623 16 59 16 telefono-zenbakira deitu dezakete, edo portaloielkartea@gmail.com helbidera idatzi. Hastapeneko saioez gain, astelehenetan dantza-txokoa eskainiko dutela adierazi dute, 17:30etik 19:00etara bitartean, Kulurolan.

Dantzan ikasi nahi duen pertsona orori zuzenduta, plazako ohiko dantzak, kontradantzak, dantza-jauziak, lotuan egitekoak zein soltean egin daitezkeenak ikasteko aukera izango dela azpimarratu dute Portalo Elkarteko kideek.

'Antzekotasunak' lana jarri du ikusgai Matilde Sainzek

Matilde Sainz Osinaga arrasatearrak hogeit hamar batzen dituen *Antzekotasunak* izeneko erakusketa ireki zuen astelehenen Guardian (Araba), eta hilaren 29a arte egongo da ikusgai. Neurri askotariko koadroak jarri ditu bertan; handiena 70x50 zentimetrokoa da eta ia guztiak naturan oinarrituta daudela adierazi du.

Txikitxu-Arrostaitzen urteurren ekitaldia zapatuan

Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak 55-35 urte beteko ditu, hurrenez hurren, eta ikasturte osoan ekintza ugari antolatuko ditu. Urteurrenari hasiera emateko, zapatuan pintxo-dastatzea eta dantza erakustaldia egingo dute Arrasateko Herriko Plazan, 19:00etan. *Urratsak sendo, oinak arin* lelopean, herritarrei dantza egitera dei egin diete.

Dastaketa gidatua egingo dute Sagardo Egunean

Domekan ospatuko dute Sagardo Eguna, eta 12:30ean zabalduko dute txotxa. 11:30ean, berriz, Euskal Sagardoaren dastaketa gidatua izango da Mikel Garaizabal sommelierrarekin, eta aurrez eman behar da izena, plazak mugatuak baitira

Idoia Aranbarri Arzuaga ARAMAIO

Domeka honetan egingo dute Sagardo Eguna Aramaion, eta aurtengo edizioa berrikuntza batekin dator: Euskal Sagardoaren dastaketa gidatua antolatu dute Mikel Garaizabal sommelierrarekin. Eguna osatzeko helburuarekin sartu dute egitaraua jardura hori eta Garai-zabalek aurreratu du dastaketaren helburua izango dela Euskal Sagardoari buruzko xehetasunak ematea, partaideak heztea eta Euskal Sagardoari balioa ematea: "Ez da edatea bakarrik. Gure helburua da jendea heztea, formatzea eta ikustea gaur egun ze sagardo mota egiten diren. Azalduko dut dastaketaren oinarria; hau da, sagardoa nola dastatzen den. Horrela ikasiko dute dastaketaren oinarria zein den, zelan dastatzen den...". Horretarako, adibide gisa jarriko ditu lau zapabost Euskal Sagardo ezberdin.

Sommelierrak dio partaideek entrenamendu "txiki bat" egingo dutela zentzumenekin, gero, dastaketa amaitzen denean, sagardo postuetako sagardoak oinarri batekin dastatzeko.

Sagardoaren "iraultza"

Euskal Sagardoaz galdetuta, azaldu du sagardo tradizionalaz



lazio Sagardo Egunean Beñat Arregi ekoizlea sagardoa zerbitzatzen. GOIENA

gain badirela beste mota batzuk: "Badago iraultza txiki bat Euskal Sagardoan. Lehen, sagardogileek sagardo mota bakarra ekoizten zuten, baina orain, badaude sagardotegiak lau, bost, sei... sagardo mota egiten dituztenak. Urtekoak, kupelean sartzen dituztenak, partzelarioak, monobarietala, bibarietala... Domekan dastatuko ditugu iraultza horretako hainbat sagardo".

Herritarrek dastaketan parte hartzera animatu ditu. Dastaketa horretan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, 25

plaza daude eta. labur.eus/n05yD webgunean edo 945-44 50 16 zenbakira deituta lortu daiteke gonbidapena. 18 urtetik gorakoek har dezakete parte.

Edaria, jana eta dantzak

Oletako Administrazio Batzarrak zabalduko du txotxa, 12:30ean, eta ondoren dastatu ahal izango dira herriko ia hamar ekoizleren sagardo eta zukuak. Taloak ere egongo dira salgai. Lagun artean dantza taldeak sagar dantza egingo du eta Gesaltza fanfarreak girotuko du plaza.

Aitor Aranaren omenezko mendi martxa bihar

Irailaren 21ean egingo dute Aitor Arana 28. mendi martxa, Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta, eta ibilbide luzearen eta motzaren artean aukeratu ahal izango dute parte-hartzaileek. Luzeak 22 kilometro eta 1.200 metroko desnibela ditu eta mendizaleak 07:30ean abiatuko dira frontoitik. Motzak, berriz, 15 kilometro ditu eta 800 metroko desnibela; haiek 08:00etan aterako dira frontoitik.

Irailaren 19ra arte egon da zabalik webgune bidez izena emateko epea. Dena den, egunean bertan ere egongo da aukera izena emateko frontoian bertan. Hamar euro ordaindu beharko da izen-ematea.

Izena eman daiteke Aramaioko trikiti eta pandero eskolan

Eguenetan izango dira trikiti saioak, 17:00etan hasita; egubakoitzetan, berriz, pandero eskolak. Mailaka banatu dute ordutegia: LH-1-2, 17:00-17:30; DBH-3-4, 17:30-18:00; LH-3-4, 18:00-18:30; LH-5-6, 18:30-19:00; DBH-1-2, 19:00-19:30; eta nagusiak, 19:30-20:00. Irailaren 26an hasiko da ikasurtea. Izena emateko, 628 72 51 00 zenbakira deitu behar da.

Gaur da Irakurle Klub Feministan izena emateko azken eguna

2024-2025eko ikasturteko Irakurle Klub Feministan izena emateko epea gaur amaituko da: berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidera idatzi behar da.

Irakurle Kluba hilean behin batzen da irakurritako liburuen eztabaidak eta hausnarketak konpartitzeko. Dinamizatzailea Ainhoa Aldazabal izango da; besteak beste, Skolastikako kidea eta Euskal Filologian diplomaduna. Lehen saioa urriaren 7an izango da, KZ gelan, 18:00etatik 20:00etara. Hurrengoak, berriz, azaroaren 4an, abenduaren 2an, urtarrilaren 20an, otsailaren 17an, martxoaren 17an, apirilaren 7an, maiatzaren 5ean eta ekainaren 2an izango dira.

Gaur emango zaio hasiera X. San Martin Pilota Txapelketari

Arabako pilotariak jokatu dute X. San Martin Pilota Txapelketa, eta, denera, 58 bikotek eman dute izena. Partiduak egubakoitzetan eta domeketan izango dira eta txapelketako lehen hiru partiduak gaur jokatuko dira, 18:30ean hasita, frontoian; domekan, beste hamar partidu, 10:00etan. Finala azaroaren 16an izango da.

Zukua eta sagardoa egiteko txandak

Azken urteetan egin bezala, Aramaioko Sagardogileen Elkarteak (ASE) irailaren 17an zabaldu zuen aurtengo denboraldia, eta martitzenetik hartu dezakete herriko ekoizleek hitzordua Mendixolako zentroan zukua eta sagardoa egiteko. Aurrez egin behar da gunearen erreserba, eta, horretarako, 644 93 46 03 telefono-zenbakira deitu behar da.



Ekoizle bat sagardoa egiten. A.U.



INIGO BARRENA

Apalantza eta San Miguel nagusi

Joan den zapatuan jokatu zen Aramaioko 23. rallysprintean 66 autok hartu zuten parte eta azkarrenak Aitzol Apalantza eta Olatz San Miguel izan ziren (20.24); bigarren sailkatu ziren Iker Etxeberria eta Alain Agirre (21.12) eta podiuma osatu zuen Gorka Idigorasek eta Mikel Odriozolak osatutako bikoteak (21.21).

EMAN izen!

Bergarako Seminarixoan jokatuko da, 2024ko urritik urtarrilera arte.
Zuzeneko kontzertuak, talde bakoitzaren ordu erdiko emanaldiarekin.

Debagoieneko musikari eta taldeendako.

Berdin da lehenago Danbakan parte hartu duen edo ez.

Kideetako batek, gutxienez, Debagoiengan erroldatuta egon beharko du.

Hiru abesti original aurkeztu beharko dira; horietako bat, gutxienez, euskaraz izan beharko da.

Hasiberriendako zein aspalditik musikan dabilzanendako.

Berdin da taldeak diskoa duen edo ez.

Jotzen duten talde guztiek jasoko dute soinu-grabazioa, pistak nahastu ostean eta bideoan.

Goiena telebistan, 'Goiena.eus'-en eta Primeran plataforman emango dira kontzertuak.

Izen-ematea zabalik irailaren 22ra arte: www.danbaka.eus



Bergarako Udala



GIPUZKOA
Kultura



SEIN
Soinuaren Erakundeak
Kultura, Berriketa, Erakundeak

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



Basotxoren gidaritzaren lekukoa Antxiak jaso du

Migel Elortzak izan du erretiratuen elkarteko presidente ardura azken lau urteetan, eta "egindako lanarekin pozik" agurtu da egunotan; Jokin Antxiak, oster, "gogotsu" hartu du lekukoa, egoitza berriak emango dizkien aukerak buruan dituela

Mirari Altube ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak ekainean berri zuten zuzendaritza batzordea, baina presidente kargurako hautagairik ez zen aurkeztu orduan eta Migel Elortzak irailean arte jarraitzea erabaki zuten. Esandakoa betez, aldaketa egin dute orain, eta Jokin Antxiak hartu du elkarrearen gidaritzaren lekukoa.

"Pozik" egindako lanarekin

Lau urte egin ditu presidente karguan Elortzak eta haren balorazioa positiboa da: "Oso pozik noa. Lau urte izan dira; tartean, pandemia, Basotxoren egoitzaren itxiera eta Gurea tabernara aldatuta. Hilabete batzuetan mugimendu handia izan genuen -aholkularitza zela, Udala zela...- baina kide onak izan ditut alboan, eta zorte handia da hori".

Basotxoren egoitza inaguratu-ta esan gura zuen agur, baina ez da posible izan: "Esandako epeak ez dira bete eta... Neure ilusioa zen agintaldia bukatzea egoitza berrira pasatuta, hura zabaldu eta txistor-mokadutxo bat janda elkarrekin. Beste batzuei utziko diet inaugurazioa, baina neu ere joango naiz".

Gaur egun 950 bazkide inguru dituen elkarte osasuntsu dago: "Jende berria sartu da aurrean, 50 lagunetik gora. Pentsa, aurreko astean 83 urteko emakume bat etorri zen bazkide egitera, eta, lan ona egiten gabiltzala esanaz, propina eman zigun. Hortaz, jendeak balioa ematen dio egiten dugun lanari, nahiz eta lokal faltagatik tradizioa zuten ekintza batzuk ezin eginda egon".

Elkarrearen gidaritzaren lekukoa "esku onetan" utzi duela lasai doa: "Herrigizona da, talde eta saltsa askotan ibili izan da eta baietza ematerakoan lasaitasun handia hartu nuen. Zuzendaritzako gainerako kideei esan diet ezin aiposagoa dela



Jokin Antxia eta Migel Elortza. MIRARI ALTUBE

BIEK USTE DUTE EGOITZA BERRIAK AUKERA BERRIAK EKARRIKO DIZKIELA ERRETIRATUEI

eta nirekin baino hobeto egingo dutela aurrera".

Lanerako gogotsu

Jokin Antxiak "gogotsu" heldu dio lekuko horri: "Ilusioarekin nator. Badakit aldatuta garrantzitsua datorrela eta esfortzu bat egin beharko dugula, bereziki hasieran, egoera berrira egokitu eta ondo hasteko. Lokal berriak aukera berriak ekarriko dizkigu eta ondo hasiz gero samurragoa izango da aurrera egitea". Eta uste du sarritan ideia txikietatik sortzen direla ekimen berriak: "Ekintza berriak egiteko behar dira ideiak. Hortaz, ideiak eta ekarpenak dituen beldur gabe etor dadila guregana, edozein txikikeria izan da ere".

Elortzak berretsi egin ditu presidentearen berbak: "Jendeak ilusio handia du eta jende asko

etorriko da lokal berrira. Hor sor daitezke ideiak eta ekintzak egiteko proposamenak, eta zuzendaritza batzordeari bultzada bat emateko indarra izan daiteke gure hori. Elegante geratuko dela diote, punta-puntako lokal izanik; hortaz, mugarri izango dela uste dut".

Presidente berriak argi du Udala ezinbesteko bidelagun izan behar dutela: "Gure mahaiak hiru hanka baditu, bat da Udala; beste bat, bazkidetza; eta hirugarrena, herria. Udalarekin bai edo bai konpondu behar dugu ondo, eta posible izango da. Izan ere, gure asmoa ez da olinpiadak prestatzea, gure arteko harremanak sustatzeko ekintzak antolatzea eta garatzea baizik".

Zuzendaritza batzordea

Antxiak alboan izango ditu ekainean zuzendaritza batzordean sartu ziren Jaime Mujika eta Fermin Arnaiz eta aurretik dauden Ramiro Gomez, Juan Cruz Diez, Conchi Romano, Emilio Inda, Mari Carmen Corres eta Juan Tomas Zabala. "Balio handiko jendea da eta orain egin beharko duguna da batzordearen martxa indartu".

Gertu dago I. Jabetze Eskolako egitaraua; eguenean hasiko da

Emakumeen ahalduentzeko tresna izango da eta lehen saioan Trans Legearen bueltan jardungo dute

M.A. ARETXABALETA

Emakumeen ahalduentze sozio-politiko ardatz hartuta programa bat prestatu du Udaleko Berdintasun Sailak, Jabekuntza Eskolaren baitan. "Mugimendu Feministatik zein herritarren artean sortutako behar bati erantzutera gatoz. Eta Txoko Feminista iritsi aurretik abian jartzea erabaki dugu", azaldu du Ainhoa Sanchez zinegotziak. Programazio finko bat izango du eta datozen lau hilabeteetarako zehaztutako ekintzak aurkeztu dituzte.

Lehenengo, eguenean

Lehenengo solasaldia Trans Legearen gainekoa izango da, irailaren 26an, 18:00etan, Arkupen; Bilgune Feministak martxan jarritako *Gorputzen burujabetza* zikloaren baitan dago. Urrian, oster, amatasunaren bueltako hitzaldia eta *Zauria(k)* zine-fo-

ruma izango dira. Azaroan lodi-fobiaren gaineko tailerra egingo dute eta abenduan Irantzu Varela feministak *Lo que queda* liburua aurkeztuko du. Eta urtea bukatu aurretik autodefentsa feminista ikastaroa izango da.

Ikastaroetan parte hartzeko alde aurretik eman beharko da izena, berdintasuna@aretxabaleta.eus helbidera idatzita.

Txoko Feminista

Txoko Feminista definitzeko prozesuari joan den ikasturtean ekin zioten herriko hainbat eragilerekin eta norbanakorekin: "Lehen fasean landutakoaren berri zabaltzen gabiltza orain: zer izango den, zein helburu finkatu diren, zelan kudeatuko den...". Ilargi plazan dagoen Zainduzen lokala hautatu dute kokagune eta 2026 hasierarako zabalik izatea da asmoa.

Herriko denda eta tabernetan gastatzeko bonuak, gaurtik salgai

Bonuen kanpaina jarriko du abian gaur, irailak 20, Udalak. Erosleak 30 euro ordainduko ditu, eta 50 euroko balioa duen bonu paketea eskuratu; 875 eskainiko dituzte. Arkupen izango dira eskuragai, 09:30etik 19:00etara bitartean. Aretxabaletan erroldatutako bakoitzak -16 urtetik gorakoak- bakarri erosi ahal izango du, nortasun agiria erakutsita.

Bonuak urriaren 21a arte trukatutako ahal izango dira Aretxarte elkarteari atxikitutako establezimenduetan -dendak zein tabernak-: 45, guztira.

Lehen erosketa-bonu kanpainari esker 43.750 eurotik gora gastatuko direla herriko komertzioetan adierazi du Udalak. Ondoren, beste kanpaina bat egongo da, azaro bukaera aldera. Bi bonu-kanpaina horietara 35.000 euro bideratuko dituzte, Aretxarte elkartearekin duen hitzarmenaren bidez.

Literatura solasaldietarako izen-ematea, zabalik

Urrian emango dio hasiera Udala Liburutegiak literatura solasaldien denboraldiari. Bi talde osatuko dituzte aurrean ere: euskarazkoa, Mikel Antzak gidatuta, eta gaztelaniazkoa, Monica Leivarekin. Talde horietan parte hartzeko alde aurretik eman behar da izena: 943-08 10 01 eta liburutegia@aretxabaleta.eus. Azken eguna irailaren 27a da.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aldaketak, eguraldi iragarpen txarragatik

Errekan Gora jaialdia ospatuko da asteburuan, baina aldaketak egongo dira egitarauan: zapatuko eta domekarako aurreikusitako emanaldiak plazan egingo dituzte eta egubakoitzeakoak egunean bertan zehaztuko dute non egin

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak eguaztenean batu ziren, asteburuan egingo den Errekan Gora jaialdira begira erabakia hartzeko. Izan ere, astebururako dagoen eguraldi txarraren iragarpenagatik, azken orduko aldaketa batzuk egin dituzte egitarauan.

Eszenatoki bakarra

Aurtengo berritasunetako bat bi eszenatoki jartzea izan da: bata Inkernu kanpoan eta bestea Herriko Plazan; bigarren hori estalita egongo da musikarientzat. Beraz, bertara lekualdutako dituzte zapatuko eta domekako emanaldi guztiak. "Hartu dugun erabaki nagusia izan da; izan ere, bertan jarrita dugun eszenatokia estalia da eta Inkernu kanpokoa ez. Horrez gain, gaur, egubakoitza, The Clayton taldearen kontzertua, akaso, Inkernu tabernara eramatea ari gara planteatzen. Modu batera edo bestera, aurrera egingo dugu", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

Ordutegian aldaketak

Zapatuko saioei dagokienez, talka egiten dute, emanaldi guztiak Fernando Eskoriatza plazan

izanda. Beraz, ordu aldaketa batzuk ere iragarri dituzte. "John Dealer And The Coconuts taldearen kontzertua 19:15ean egingo da, 21:00etan izan beharrean, eta Idoia Asurmendiren emanaldia, berriz, 23:00etara atzeratuko dugu". Horrekin batera, Gorosarri eta Lore Gazteak dantza taldeen emanaldiak egongo diren edo ez egunean bertan erabakiko dute.

Egitarau berriua

Egubakoitzean, The Clayton 19:30ean Inkernun izango da

eta Unidad Alavesa 22:30ean Fernando Eskoriatza plazan; zapatuan, Ibil Bedi 13:00etan Fernando Eskoriatza plazan, Gorosarri eta Lore Gazteak dantza taldeen emanaldia 18:30ean Fernando Eskoriatza plazan, John Dealer And The Coconuts 19:15ean Fernando Eskoriatza plazan eta Idoia Asurmendi 23:00etan Fernando Eskoriatza plazan; eta, domekan Demode Quartet 13:00etan Fernando Eskoriatza plazan eta Garratz 19:30ean Fernando Eskoriatza plazan.



The Clayton taldea Makila Korta Fest jaialdian, Gatzagan. GOIENA



Gatzagako Gatz Museoko harreragunea argazki zaharrekin apainduta. IMANOL BELOKI

Museoko harreragunea apaindu egin dute argazki zaharrekin

Langile berri bat ere kontratatu dute harreragile aritzeko, bisita gidatuak eta bestelako lanak egiteko

Imanol Beloki Unamuno **GATZAGA** 2019an Santa Columba basiliza Gatzagako Gatz Museoko harreragune bihurtu zuten, eta horixe izan da ordutik hona Gatz Museoarene jarduera gestioatzeko eremua, harrera, denda, informazio-gunea eta bisitarien elkargune. Eraikinaren bilakera ona izan dela nabarmendu du Aitor Larrañagak, Gatzagako Gatz Museoko arduradunak.

"Dirulaguntza baten bitartez atondu genuen eraikina, eta ermita gatz jardueraren zentro bilakatu dugu. Orain, agintaldi berrian ere itxura aldaketa egin

dugu. Horretarako, artxiboko argazkiak eta Juan Luis Zabala herriko argazkilari batek gordeta zituen argazkiak eta berriak ateratakoak tamaina handian inprimatu eta eraikin barruan jarri ditugu zintzilikatuta, eremua apaintzeko".

Langile berria lanean

Gatz Museoko beharrei aurre egiteko langile bat kontratatu dute, Ahinara Zubizarreta eskoriatzarra. Uztailean hasi zen, eta urtarrilera arte egongo da gatzaren misterioak ikasten eta irakasten.



PERICO OROBENGOA



Oihana Arana Lazkaoko saioan arituko da zapatuan

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenak Lazkaon eta Elgoibarren jokatu dira asteburuan. Hala, Oihana Arana bertsolari eskoriatzarra Lazkaoko saioan arituko da zapatuan honetan. 17:00etan hasita, ohol-tza gainean lehiakide hauek izango ditu: Beñat Iguaran, Goroka Maiz, Iban Urdangarin, Iñigo Gorostarzu eta Julen Zulaika.

Erretiratuen bazkarian bapo

Ohiturari eutsiz, andramaixen osteko zapatuan elkartu dira erretiratuak bazkaltzeko. Erretiratuentzako berreskuratutako lokala —erabilera askotariko espazioa— ezagutzen izan ziren, lehenbizi. Ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten elkarteetan, opari eta guzti, eta muserako eta dantzarako tarte ere hartu zuten gero, bazkalostean.

"Artea antidotorik onena da propagandaren aurka"

IRANTZU PIQUERO 'HAMAICA' ERAKUSKETAREN SORTZAILEA

Meaka-Irimo herri plataformak antolatuta, ikusgai izango da Olanan askotariko diziplinak biltzen dituen lana; besteak beste, eolikoen aurkako 11 kartel jasotzen ditu

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Bartzelonan editore, erredaktore eta itzultzaile ibili ondoren, Euskal Herrira itzuli zen Irantzu Piquero (Itzubaltzeta, 1975). Landa inguruan finkatuta, "lurraldean ainguratuta egoteko" asmoz, besteak beste, fanzineak eta liburu ilustratuak argitaratzen dihardu, eta testuinguru horretan sortu du *Hamaika* erakusketa. 18:30ean inauguratuko dute gaur Olanan, eta mahai inguru bat ere izango da tartean, Bargi eta Isuo musikariekin eta luntzarekin; irailaren 29ra arte egongo da ikusgai.

Zein da erakusketaren jatorria?

Bizitza erdia hara eta hona ibili ondoren, sentitzen dut bizi naizen lekua ez dela "nire etxea, nire lurra", baizik eta alderantziz: hari nagokio. Bada, uste horretan geunden, eta iaizko apirillean Bortzirietako eta Malerrekako bailaretan aurreikusitako proiektu eoliko bati buruzko informazioa iritsi zitzaigun. Mobilizatzen hasi ginen, eta, Etxalarko herri plataforma eratzen parte hartu arren, libretik joatea erabaki genuen, Bartzelonako anarkismoaren mundutik baikatoz, eta gure erritmora joatea nahiago izan genuen. Horrela sortu zen Haizeak Bizirik.



Irantzu Piquero, *Hamaika* erakusketaren sortzailea. IRANTZU PIQUERO

Hor al dago erakusketaren lehen hazia?

Bai. Horrelako mehatxu bat zure bizitzaren gain oso traumatikoa da, eta, beraz, mehatxupean egon daitezkeen herriek erabiltzeko eta elkar laguntzeko materiala eta ekintzak sortzea pentsatu genuen.

Ugatx bat du oinarrian, ezta?

Fizon ugatza, hain justu. Gure zeruetan dabilen eta bizi den hegazti hori marrazten hasi nintzen. Euskal Herria, oro har, Europa eta Afrika arteko hegazti migratzaileen ibilbide

nagusietako batean dago, eta lehendabiziko ideia zen serie bat sortzea hegazti horiek defendatzeko, euren bizitza arriskuan baitago haizen-sorgailuen inposizioagatik. Hamaika ilustrazio egin nituen, eolikoen aurkako hamaika kartel bilakatuz, Jose Delicado diseinatzaile grafikoaren laguntzarekin. Bortzirietako eta Malerrekako herrietan jarri genituen.

Erakusketa, ordea, handitu egin da. Kartelen ondoren, erakusketa ibiltari bat antolatu nahi izan nuen, eta hamaika ilustratzaile

lerekin kontaktatu nuen, guztiak ere egungo euskal ilustrazioan giltzarri direnak. Haiek, euren ilustrazioekin, naturarekin duten loturaz hitz egiten digute, baita aerosorgailu horiek lurraldearen eta biztanleriaren, gure memoriaren eta etorkizunaren gain duten zentzugabekeriak eta indarkeriaz ere.

Gainera, diziplina askotarikoa da.

Bai; esate baterako, Iñaki Sanchezen eskultura eder batzuk ditu, eta Karmele Martinen poesia. *Hamaika* izeneko liburuxka bat ere editatu dugu, baita haiku bilduma bat ere, Fertxu Izquierdorekin. Artisten elkartasunak hegoak ematen dizkigu eta itxaropenez betetzen gaitu.

Badira testigantzak ere.

Erakusketaren zatirik magikoa dira ahots horiek, euren bizipenak elkarbanatzen baitituzte, galdera bati tiraka: *Zer sentitzen duzu horrelako mehatxu bat zure etxera, zure bizitzara, heldzean? Zerk lotzen zaitu lurraldera?*

Horrela izango da Antzuolan ere, ezta?

Josebe Blanco dugu konplize. Haren estilo argi eta poetikoarekin, beraren testigantza partekatuko du. Judith Arriolabengoa eta Oihana Ameskoa –Aramaixo Bizirik–, Beñat Aiausti –Meaka-Irimo herri plataformak– eta Beñardo Kortabarria –Antzuolako herritarra– izango ditu alboan mahai inguruan, gogotararako espazio bat sortzeko.

Testigantza horiekin indartsu arbuatzen dugu *emozionalak* izatea leporatzen diguten politikariek, energia enpresarietako iritzi sortzaile sasi-ekologistek darabilten sasi-argumentu merkeen diskurtsoa. Plataformetatik makroberriztagarrien aurka gaude, eta lurraldea eta

gure bizitzak defendatzen ditugu; argudioak ditugu, mundu osoko ikerketa zientifiko, soziologiko eta medikoetan oinarrituta. Halere, prentsa orokorrak ez du uzten gaiari buruzko benetako eztabaidarako espaziorik; bazterrean daude gure aldarrikapen eta argudioak.

Gailentzen diren diskurtsoen gain zeuena entzuna izatea nahi duzue?

Komunikabideetako propaganda hain agresiboa ikusita, zur eta lur gaude. Eskuineko alderdiek Espainia Europako bateria bihurtuko dutela diote. Bitartean, hemen, ezkerreko alderdiek betetzen dute euskal prentsa gezurrez. Beldurra, mesfidantza eta nahasmena sortzen dute makroberriztagarrien gaiarekin, eta jendea onartezina dena onartzerak behartu nahi dute herri askotan: euskal lurraldea eta gure bizitzak energia-enpresei saltzera. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu horri buruz aritzea. **Horretarako tresnatzat darabilzue artea?**

Artea da propagandaren aurka antidotorik onena; beraz, *Hamaika* lanari jarraipena ematen segitzeko asmoa dugu, dagoeneko Euskal Herriko hamalau herritan egon ondoren. Haizeak Bizirik-etik era horretako ekintza partekatutako sortu nahi ditugu, haize freskoa eraman borroka horretan dabilzane. Prentsa orokorraren eta edozein koloretako alderdi politikoen gezur-horma apurtzen ere lagundu nahi dugu.

"BAZTERREAN DAUDE PLATAFORMEN ARGUDIO ETA ALDARRIKAPENAK, EZTABAIDARIK GABE"

Ateak irekiko dituzte gimnasioan hilaren 25etik 27ra

Ikasturte honetan izango diren ekintzak probatzeko aukera izango dute herritarrek datorren astean: irailaren 25ean, funtzionala (15:30), gazteendako *crossfit*-a (16:30), *kore stretch*-a (17:45), funtzionala (18:15), spinninga (19:15) eta luzaketak (20:15) izango dira; hilaren 26an, berriz, spinninga (09:30) eta *body tono*-a (10:30); eta 27an, azkenik, *body tono*-a

(15:30), gazteendako *crossfit*-a (16:30) eta gazteendako spinninga (17:30). Hala ere, parte hartu nahi duenak aurrez eman beharko du izena udaletxean.

Udal gimnasioko eskaintza harago, ordea, badira beste aisialdi aukera batzuk ere, Udalak antolatuta: yoga, eskulanak, areto dantzak, antzerkia, abesbatza, txaranga eta garapen pertsonala, Nigan-en eskutik. Antzuolako Udaleko webgunean dago saio horien gaineko informazio zehatza.

Hilerriaren gaineko gogoetaren ondorioen berri emango dute

Hil Arte Bizi ekimenak bultzatuta, Antzuolako Udalaren, Herri Eskolaren eta EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldearen laguntzarekin, Antzuolako etorkizuneko hilerria irudikatzen gogoeta parte-hartzailea egiten aritu dira azken hilabeteotan, eta ondorioak aurkeztuko dituzte martitzenean, hilaren 24an, Olanan, 18:00etan.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

OÑATIKO JAIAK 2024



EGITARAU ERRALDOIA SANMIGELETAN ETA ERROSAIXOETAN

Oñatiko eta kanpoko erraldoiak · Dibertsioa nagusi txosnagunean · Txiki zein heldu
zezenen aurrean · Berrikuntzekin dator nagusien danborrada · Musika eskaintza zabala

IMANOL SORIANO



Egurra eraldatuz,
gure inguruaren ongizatea eraldatzen dugu

www.lana.eu



ZAPATUA 21**HAUR ETA GAZTETXOEN EGUNA**

11:00 ATSOLORRA. Urtean zehar jaiotako haurrei ongi etorria, udaletxeko batzar areto nagusian, Musika Eskolako musikaz girotua.

11:30 ERRALDOIEN KONPARTSAK. Irteera Kanpantxotik. Parte hartzaileak: Oñatiko Konpartsa, Konpartsa Txikia, *Sebastian* erraldoia, Atzeko Kaleko Konpartsa, Bergarako Erraldoi Taldea, Terrassako Gegants Bojos taldea, dultzaina-joleak.

16:00 45. ESKUBALOI TXAPELKETA: Construcciones Ugarte Aloña Mendi eta Urola EK Construcciones Antio taldeen artekoa –senior neskek–, kiroldegian.

16:30 XV. SANMIGELETAKO MUS TXAPELKETA, Portuko plazan. Izen-ematea: 15:30-16:15.

17:00 HERRIKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK, plazako pilotalekuan. Ostean, pilotari ohien partidua: Xala eta Paskual, Aitor Mendizabalena eta Erleren kontra.

18:00 45. ESKUBALOI TXAPELKETA: Fagor Industrial Aloña Mendi eta Soralue Bergara Kirol Elkartea taldeen artekoa –senior mutilak–, kiroldegian.

18:00 HAURREN DANBORRADA, Musika Bandak lagunduta. Irteera: Bidaurretako Santa Klara Monasterioa. Eguraldi txarra eginez gero, irailaren 22an egingo da.

JAIETAKO EGITARAUA



San Migel egunean, irailak 29, gauean, Süne izango da plazan. SÜNE

20:00 Gegants Bojos eta Diables de Sant Pere Nord taldeetako musikarien KALEJIRA, Atzeko kaleko plazatxoan hasita.

21:30 CORREFOC suzko ikuskizun ibiltaria, Gegants Bojos eta Diables de Sant Pere Nord taldeen eskutik, Zazpibidetako bidegurutzan. Antolatzailea: Kanpantxo Kultura Taldea.

DOMEKA 22

Egun osoan barrakak 1 euro.

Goizean zehar Aire Libreko XX. MARGO LEHIAKETA. 14:30ean, sari-banaketa kultur etxean.

10:30 NAZIOARTEKO 64. ARTZAIN TXAKURREN TREBETASUN

LEHIAKETA, Santa Lutzian.

15:30 HERRIKO BOLA-JOKO TXAPELKETA, San Martinen.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat.

ASTELEHENA 23

18:00 Aire Libreko XX. Margo Lehiaketako partaideen eta margo ikastaroetako ikasleen lanen ERAKUSKETA irekiko da kultur etxeko erakusketa-gelan. Urriaren 13ra arte izango da zabalik. Orduetgia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:00. Itxita: irailaren 28tik 30era eta urriaren 5etik 7ra.

EGUBAKOITZA 27

19:30 Txosnagunearen irekiera ekitaldia. Jarraian, MALENPE bakarlaria.

21:00 Film laburren lehiaketa, txosnagunean.

22:30 BERTSO JAIALDIA, kiroldegian. Bertsolariak: Andoni Egaña, Maider Arregi, Amets Arzallus, Aitor Tatiegi eta Aitor Mendiluze.

ZAPATUA 28**SAN MIGEL AOZARAZA EGUNA**

11:00 TRAFIJOLASAK, txosnagunean.

14:30 BAZKARIA, txosnagunean. Eguraldi txarra eginez gero, Merkatu plazan.

18:00 KALEJIRA MITOLOGIKOA, erraldoiak, iratxo txikiak, dragoiak... Iskidi taldearen eskutik.

19:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

19:30 KONPONBIDERAKO GILTZAK, kalejira. Irteera: Etxaluzeko parkea.

20:00 TXANTXIKUAREN JAITSIERA, jaietako hasiera emateko. Jarraian, TRIKITRAKA TXARANGA, txosnagunean.

20:15 LISKER taldea, plazan.

22:30 DANBORRADA NAGUSIA. Ondoren, LISKER taldea, plazan.

00:00 KARAOKEA, txosnagunean.

00:30 TESTINGa, txosnagunean. Ailaket elkartearekin. Jarraian, DJ Kepix, DJ Ugal eta DJ Izura.

DOMEKA 29**SAN MIGEL EGUNA**

09:00 Aita Madina Txistulari taldearen goiz-eresia.

11:00 Herri mailako PLATER TIROKETA, Txopekua tiro-zelaian. Inskripzioa: 11:00-17:00. Sarrera: 20 euro.

12:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

12:00 KALEJIRA herriko kaleetan, Musika Banda eta Aita Madina Txistulari Taldearekin.

12:00-14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.

13:00 Musika Bandaren kontzertua, plazan.

Egitaraua:

- *A San Migel*. Konponketak: A. Ibarrondo
 - *El hombre de la Mancha*. M. Leigh. Konponketak: F. Erickson.
 - *Nostradamus*. Appermont.
 - Selections from E.T. Konponketak: F. Erickson.
 - *Copacabana*. N. Iwai
- Zuzendaria: Aitor Biain.



**Gora
sanmigelak!**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es

17:00-20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.

19:00 SIEMPRE SABINA tributu-taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

20:00 Bakarriketak, txosnagunean.

23:00 SÜNE taldearen kontzertua, plazan.

ASTELEHENA 30

Egun osoan GAZTEENTZAKO EKINTZAK.

11:00 Jotak, ACORDES NAVARROS taldearekin, San Martin egoitian.

12:00 BERAKATZ-ZOPA LEHIAKETA, plazan. Ondoren, sari banaketa.

13:00 Jotak, ACORDES NAVARROS taldearekin, Lazarragako lorategian.

Arratsaldean zehar MUGI BOOGIE! DANTZALDIA, adin guztientzako gaztetxoentzat, txosnagunean.

16:45 ENTZIERRO TXIKIA, haur eta gaztetxoentzat. Ibilbidea: kamioia jartzen den lekutik plazaraino.

17:30 - 19:30 SOKAMUTURRA, plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. Ibirri ganadutegiko zezenak.

20:00 AUKERAN DANTZA KONPAINIAREN ikuskizuna, plazan.

EGUBAKOITZA 4

19:00 PINTXO-POTEOA, musikaz girotuta.



lazko Herri Eguneko irudi bat. GOIENA

23:00 ESNE BELTZA taldearen kontzertua, plazan.

ZAPATUA 5

HERRI EGUNA

09:00 Aita Madina Txistulari taldearen goiz-eresia. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

10:30 Unibertsitate inguruan: HERRI MAILAKO BEHI ERAKUSKETA: ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto erakusketa; behor eta zaldi erakusketa; Euskal txerri eta oilo erakusketa; gazta lehiaketa; fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa eta artisau erakusketa. Herri Eguneko Talo tabernan taloak eta ogitartekoak.

11:00 KALEJIRA, herriko kaleetan. Musika Eskolako triki-pandero eta soinu-joleen taldea, txistulariak eta Tolosako gaiteroak.

12:00 36. SAGARDO-DASTAKETA, plazan.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:30 HERRI BAZKARIA, kiroldegian. Bazkariko txartelak salgai: Izarraitz, Arrano, Eltzia taberna eta Batzokia.

15:00 BAZKARIA, 'ZUK EKARRI ZUK JAN!', Antixena gaztetxean. Antolatzailea: Txosna Batzordea. Oharra: herri bazkariko menua 23 euro; haurrentzako menu berezia 11 euro -12 urtera arte-.

17:00 GAZTETXOekin HERRI KIROLAK, plazan. Ondoren, PROFESIOALEN ERAKUSTALDIA. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.

18:00 ELEKTROTARANGA gaztetxetik txosnagunera.

18:30 OBANEUKE taldearekin erromeria, Atzeko kalean.

19:00 MEZA, parrokiaren. Ondoren, F. ESNALEN SALBEA. Parrokiako koruak eta Oñati Abesbatzak abestuta.

20:00 LAKET taldearekin erromeria, plazan.

21:30 DRAG SHOW ikuskizuna, txosnagunean.

22:00 REBEL NOISE, HAMARRATZ eta LOS ZOPILOTES TXIRRIOS taldeen kontzertua, txosnagunean. Jarraian, DJ LUMATZAK.

22:30 LAKET taldearekin erromeria, plazan.

DOMEKA 6

ERROSAIXO EGUNA

09:00 Aita Madina txistulari taldearen goiz-eresia.

12:00 MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestuta.

12:00 - 14:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.

12:30 ERRALDOIEKIN DANTZAN, plazan.

17:00 ARKU TIROKETA ERAKUSTALDIA, arku probatu nahi duen edonorentzat irekia, San Martin zuhaitzian.

17:00 41. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALA, gazte eta nagusi mailetako pilotariak, Zubikoa pilotalekuan.

17:00-19:00 Barraketako soinu-ekipoak eta sirenak bi orduz itzaliko dira, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat.

17:00 - 20:00 HAUR PARKEA, Etxaluzeko parkean. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.

19:00 AFRICA BIBANG abeslaria, Atzeko kalean.

19:00 INGOT ROCK taldearen kontzertua, txosnagunean.

20:00 LONDON ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO bertsosaiola, Maialen Lujanbio eta Urko Arregi bertsolariekin, Kale Zaharrean.

23:00 IKUSKIZUN PIROMUSIKALA, Valecea pirotekniaren eskutik, plazan. Ondoren, LONDON ORKESTRA taldearekin dantzaldia, plazan.

ASTELEHENA 7

ERROSAIXO BIXAMONA

10:00 SOKAMUTURRA, plazan. Lopene ganadutegiko zezenak.

15:00 BAZKARIA, txosnagunean. Eguraldi txarra eginez gero, Merkatu plazan. Bazkalostean, jaietako sari-banaketa.

17:30 SOKAMUTURRA, plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. Lopene ganadutegiko zezenak.

18:00 BURRUNBA ELEKTROTARANGAren, kalejira.

19:00 Dibertsioak, txosnagunean.

20:00 PURO RELAJO taldearekin kontzertua, plazan.

ALTUNA
profesional

Ondo pasau jaixak eta zaindu!

ALTUNA.ES

Instagram, YouTube, Twitter, LinkedIn, Facebook

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Txantxikuaren jaitsierarekin hasten dira ofizialki Oñatiko jaiak, baina horren aurretik ere egitarau oparoa izango dute aurretik oñatiarrek. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa eta atsolorra dira, besteak beste, asteburu honetan egingo diren ekintzetako bi.

Artzain Txakur Txapelketa

Igande honetan, irailaren 22a, izango da Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, 10:30ean, Santa Lutzian. Jaietako ohiko ekimenetako bat izaten da hori, tradizioz beteta dagoena. Aurtengoa lehiaketaren 64. edizioa izango da. "Ohiturari jarraituz urtero antolatzen dugun ekintzetako bat da hori. Oraindik mantentzeko gaitasuna dugu, eta aurrera egin behar da", dio Jose Mari Bengoa antolatzaileak.

Hamahiru dira osotara txapelaren bila joango diren parte-hartzaileak, guztiak lurralde askotariko txapeldunak eta bestelako txapelketetan eskuratutako postuen bidez sailkatutakoak. Hamahiru horietatik bederatzi dira Euskal Herrikoak: Jabier



63. Nazioarteko Artzain Txakur txapelketan parte hartu zuten lehiakideak. GOIENA

Jaiak txantxikua jaitsi aurretik

Txantxikuaren jaitsierak eman ohi die hasiera Oñatiko jaiari. Hala ere, abiapuntu ofizial horren aurretik ere egitarau oparoa izango da, asteburu honetan bertan hasita

Zubiaurre, Jean Paul Iriken, Antton Aranburu, Jose Mari Jauregi, Antonio Austiza, Kaslos Ardanza, Imanol Diaz, Aitor Tato eta 2023an txapeldun izan zen Fidel Alonso.

Gainontzeko laurak Herrialde Katalanetakoak dira: Moises Tarrés, Jose Maria Pleguezuelos, Ismael Boix eta Aldrover-Adrover. Hala ere, Bengoak azaldu duenez, baliteke azken orduko beste parte-hartzaile bat ere izatea, Frantzia ordezkaturiko duen norbaitek harremanetan jarri dira eta: "Han beste txapelketa batzuk izaten dituzte, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso".

Aipatzekoa da aurten ez dela Oñatiko eta Debagoieneko parte-hartzaile izango txapelketan: "Oñatira etortzeko sailkatu egin beharra dago, eta gaur egun jende asko eta oso ona dago. Aurten oñatiarrok atzeraxeago geratu garela esan daiteke".

Publikoaren asistentziak behera egin duelakoan dago Bengoa, eta bertaratzen den jendea aldatu egin dela dio: "Gaur egun, erabat zalea den jendea etortzen da, edo etxean txakurrak dituztenak. Lehen ez zen horrela, eta



ARKITEKTURA

Ondo pasa jaixaki!

Baserriak
Fatxadak
Ilogailuak
Teillatuak
Ofizinak
Parkeak
Diru laguntzak
ITE



amestu, diseinatu, eraiki

☎ 677 31 20 57

✉ amala@aiarkitektura.com

📍 Bidebarrieta 13, A lokala, Oñati

🌐 www.aiarkitektura.com

RPS 66723



Gora saunmigelak!

M^a Angeles Mendizabal

H **AHO SENDAGILEA**

Inplanteak

Leire Errasti

Odontologia-Ortodontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea • 20560 Oñati • Tel.: 943 71 60 71 • mendikorta@outlook.com



Aurreko urteko atsolorra. GOIENA

jende gehiago etortzen zen". Datak ez duela laguntzen ere aipatu du antolatzaileak: "Hilabete honetan beste hainbat ekimen izaten dira herri guztietan. Beste data baten egingo balitz, seguruenez jende gehiago etorriko litzateke, baina ohitura data hauetan egitea da". Herriko jendeak duen interes faltaz ere mintzo da, penaz: "Herrikoek baino garrantzi handiagoa ematen diote kanpokoek".

Datez gain, eguraldi iragarpenak ere kezkatzen du Bengoa, asistentziari eragin ahalko dio-

lakoan. Hala ere, jendea bertaratzera animatu nahi du, eguraldi euritsuak probei ikusgarritasuna eman ahal dielakoan: "Eguraldiak ez dio ezer kentzen ekitaldiari. Ardiak eta txakurrak berdin ibiliko dira, eguzki beroarekin baino hobeto. Lan gehiago egiteko beharra ere izango dute, akaso; ikusiko dugu".

Antolakuntza lanak ondo joan direla dio Bengoak, baina jende gutxi direla azpimarratu du: "Urtean zehar beti ibiltzen gara gutxi batzuk. Gero, txapelketarako hemengo hainbat elkartek

laguntzen digute; eskerrak haiei". Antolakuntzan jende gehiagoren beharra dutela azaldu du, eta jendea animatu nahi izan du bertan laguntzera.

Atsolorra

Jaietan urtero egiten den beste ekimenetako bat atsolorra da. Ekitaldi horretan ongiatorria egiten zaie jai batetik bestera jaio diren oñatiar gazteei. Aurtengo atsolorra irailaren 21ean izango da, 11:00etan, udaletxeko batzar areto nagusian. "Aurten 85-90 gonbidapen inguru bidali

ditugu. Hala ere, gehiago izan daitezke, azken orduan jaiotako umeak ere gonbidatuta daudelako. Bi-hiru eguneko umeak ere etorri izan dira", dio Iñaki Olalde, Oñatiko Udaleko Kultura zinegotziak.

Atsolorrean protagonismo berezia duen elementurik izatekotan, hori haur bakoitzak jasotzen duen zapia da. Hori da oñatiar berriei harrera egiteko modua. Hala ere, horren aurretik ekitaldi oso bat izaten da: "Familiak umeekin etortzen dira. Eskatzen duguna da bi senitarteko baka-rrik etortzea; ume asko izaten dira, eta, bestela, guztiok kabitze lanak izaten dira. Alkateak ongiatorri mezua ematen diete umei, eta jarraian zapitxoak jartzen zaie. Amaitzeko, argazki-saio bat izaten dugu". Musika Eskolako kideek giroa dute atsolorreko ekitaldia.

Momentu hunkigarria da atsolorra Olalderentzat, eta gurasoentzat ere une berezia da: "Egia da familiak eta gurasoak egun horren zain izaten direla, eta, gainera, asko eskertzen dute. Adibidez, aurten familia batek oporretara joateko asmoa zuen,

eta galdezka ibili ziren ze egunetan izango zen, oporrak horren baitan antolatzeko. Denetik egoten da atsolorrean".

Bestelako ekitaldiak

Lehen asteburuak askorako emango du Oñatin, eta beste hainbat ekintza ere izango dira: zapatuan, adibidez, 11:30ean erraldoien konpartsak kalez kale ibiliko dira; 18:00etan, berriz, haurren danborradari hasiera emango diote; eta 21:30ean, *Correfog* ikuskizuna eskainiko dute Gegants Bojos eta Diablos de Sant Pere Nord taldeek, Zazpi-bidetako bidegurutzean.

Domeka goizean aire libreko XX. margo lehiaketan parte hartzeko aukera izango da. Bestalde, asteburuan zehar hainbat kirol emanaldi ere izango dira ikusgai herrian: eskubaloia, bola-jokoa eta pilota.

ASTEBURU HONETAN BERTAN IZANGO DIRA AURTENGO JAIETAN EGINGO DIREN LEHENENGO EKINTZAK

ONDO PASA JAIETAN!

San Migel jaiak 2024





Iazko Herri Eguneko herri bazkaria, kiroldegian, Udalak antolatuta. GOIENA

Tripa bapo betetzeko, lau herri bazkari izango dira

Irailaren 28an izango da sanmigeletako lehen otordua, txosnagunean. Urriaren 5ean, berriz, Herri Egunean, bi izango dira: bata, Udalaren eskutik, kiroldegian; eta bestea, 'Zuk ekarri zuk jan', Antixenan. Urriaren 7an paella-jana egingo dute txosnetan

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria OÑATI

Egun handia izaten da oñatiar askorentzako irailaren 28a, herriko jai nagusienei hasiera emateko asmoz egun horretan jaisten baitute Txantxikua. Indartsu egon behar izaten dute ordurako herritarrek, egun asko izaten baitituzte aurretik; aurten, ohi baino indartsuago egoteko, gainera, bazkaria izango dute txosnagunean –eguraldi txarra eginez gero, Merkatu plazan–, bertako produktuekin osatutakoa. Hala ere, Txosna Batzordeko kideek jakinarazi dute dagoeneko ez dagoela txartelik salgai: "Oso pozik gaude. Iaz ere txartelak agortu ziren, eta aurten ere espero genuen; ez, ordea, horren agudo. Ez genuen espero hainbeste jende gelditzea tiket gabe. Datorren urterako pentsatuko dugu ea pertsona kopurua igo daitekeen, baina aurten lotuta dugu bazkaria; beraz, ezin dugu halakorik egin".

Urriaren 5ean, Herri Egunean, izango dira, ordea, herri bazkarietarako aukera gehiago, bi antolatu baitituzte. Udalaren eskutik, kiroldegian izango da

otorduetako bat 14:30ean, eta salgai daude txartelak Izarraitz eta Arrano tabernetan, Eltzian eta Batzokian: helduen menuari dagokionez –12 urtera arte–, 23 euroko prezioa du, eta jatekoen artean ditu urdaiazpikoa eta patea, orri-mami beteak ondoko-saltsarekin, risottoa, saiheski errea, goxoa edo sorbetea, eta kafea eta kopa; haurren menuak –makarroiak, oilaskoa, jogurta, ura eta freskagarriak–, berriz, 11 euro balio du. Bestetik, Antixenan, Txosna Batzordeak antolatuta, *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria izango da, 14:00etan: norberaren ardura da bere janaria eramatea, eta baita mahai-tresnak ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Paella-jana

Urriaren 7an ere, Errosarixo Bixamon Egunean, bazkaria izango da txosnagunean: hain justu ere, paella-jana izango da 15:00etatik aurrera, orojale eta beganoentzat, eta Arrano tabernan daude salgai txartelak nahi duenarentzat; urriaren 2a da erosteko azken eguna, eguaztena.

Lizker
aholkulariak
asesores

Hidalgo

Ondo ibili jaietan!

Enpresen eta partikularren zerbitzu juridikoak eta zerga aitortpen, lan eta kontabilitate aholkularitza.

Erremeritari Plaza, 2, 20560 Oñati

☎ 943 71 80 52



Amets Berezaio



SALMENTA
(berriak eta bigarren eskukoak)

**KONPONKETA
MEKANIKOAK**

TXAPA ETA PINTURA

Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Hogeigarren aldia izango du Margo Lehiaketak

Domekan izango da lehiaketa, eta libreak dira gaia, teknika eta formatua; halere, baldintzetako bat da Oñati izatea margolanetako protagonista. 14:30ean banatuko dituzte sariak, eta erakusketa batean izango dira lanak ikusgai urriaren 13ra arte

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría OÑATI

Irailaren 22an, datorren domekan, egingo dute ageriko Margo Lehiaketa, eta hogeigarren aldia izango du aurten. Oñatiko Margo Taldea da antolatzailea, Udalaren laguntzarekin, eta Javier Ugartek, Margo Taldeko kideak eta antolatzaileak, jakinarazi du "animatuta" daudela: "Euria egiten badu posible da jendeak atzera egitea, baina espero dugu izena ematea".

Gaia ez ezik, libreak izango dira margolariek darabilten teknika eta formatua ere, baina derrigorrezkoa izango da euskarri gogorrean aurkeztea lanak;



Aire libreko 19. Margo Lehiaketa, iaz. GOIENA

baita Oñati izatea protagonista ere. Horrez gain, halabeharrezkoa da margolana zigilatuta egotea ere; eta, horretarako, kultur etxera jo beharko dute parte-hartzaileek 09:00etatik 11:00etara. Euskarri dagokien, aurrez prestatuta eraman daitezke, baina antolatzaileek ohartarazi dute ez dutela "inolako marrazki, zirriborro edo marra aztarnarik edukitzea" onartuko.

Sari-banaketa

Parte-hartzaileek domekan bertan aurkeztu beharko dituzte euren margolanak kultur etxean, 13:00etatik 14:00etara. Adituek osatuko dute epaimahaia, eta 14:30ean jakinaraziko dute zein den euren erabakia, orduan egingo baita sari-banaketa: lanik onenaren egileak, hain justu, 800 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 500 eta hirugarrenak, azkenik, 400; hiru saritu horien artean ez dagoen lehen oñatiarrak, berriz, 300 euro lortuko ditu. 16 urtez azpikoei dagokien, lehenarentzat ehun euro zehaztu dituzte, bigarrenarentzat 60 eta hirugarrenarentzat 30;

horrez gain, aparteko sari bat banatuko diete hirurei.

Saritutako margolanen jabetzei dagokienez, lehenengo eta bigarren saria Oñatiko Udalaren eta Oñati Margo Taldearen esku geldituko dira.

Erakusketa egingo da

Lehiaketara aurkeztutako margolanekin eta Oñatiko Margo Taldeko partaideek urtean zehar egin dituztenekin –gutxi gorabehera, 35 lan dira, Margo Taldeko kideen hitzetan– erakusketa bat egingo dute irailaren 23tik urriaren 13ra, bi egunak barne, astelehenetik domekara, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxean; itxita egongo da, ordea, hilaren 28tik 30era eta urriaren 5etik 7ra.

Erakusketa amaitutakoan, berriz, egileek azaroaren 31ra arte dute euren lanak jasotzeko kultur etxean, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 16:30etik 20:00etara. Epe horretatik aurrera, ordea, baldintzen arabera, antolatzaileek nahi dutena egiteko aukera izango dute margolanekin, eta egileek ezingo dute erreklamaziorik egin.



Gualbi

aholkularitza

Gera sartu migelak!

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOAKULARITZA

ABOKATUAK

KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!





Euskadi etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48

onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com

Erraldoien dantzekin gozatzeko jaiak dira

Etxeko txikienek Oñatiko erraldoi guztiak ikusi ahal izango dituzte dantzan, Bergarako eta Kataluniako Terrassa hiriko erraldoiekin batera, bihar. Haur parkeak ere izango dira festetan, eta gazteek, esaterako, tirolina erraldoia izango dute aurten Eltzian

Amaia Txintxurreta Guridi OÑATI

Bihar, zapatua, Haur eta Gazte-txoen Eguna ospatuko da eta 11:30ean Kanpantxotik erraldoien konpartsak aterako dira kalejiran. Oñatiko Konpartsak, Konpartsa Txikiak, *Sebastian* erraldoiak, Atzeko Kaleko Konpartsak, Bergarako Erraldoi Taldeak eta Terrassako Gegants Bojos taldeak hartuko dute parte, dultzaina-joleekin. Aurreko urteetan bezala, Kanpantxo Kultura Taldeak antolatu du eguna eta "gogotsu" daudela adierazi du Mikel Urrutia taldekideak: "Bergarakoetz gain, Terrasakoak ere izango ditugu gurekin; erraldoi desberdinak dira eta euren perkusio



Terrassatik etorriko diren erraldoietako bi, hango konpartsakoekin. GEGANTS BOJOS

taldearekin lagunduta irtengo dira. Haurren danborrada ostean, Atzeko kaletik ere aterako dira berriro Kataluniakoak, eta gauean, *Correfoc* suzko ikuskizun ibiltaria egingo dute. Beraz, oso berezia izango da".

Erraldoiak, Musika Bandarekin

Errosaixo Egunean, *Erraldoiekin dantzan* ikuskizuna izango da Foruen enparantzan, 12:30ean. Parte hartuko dute Musika Bandak, Aita Madina Txistulari taldeak eta gaiteroek eta Oñatz Dantza taldeko konpartsak.

Haur parkeak eta barrakak

Puzgarrien haur parkeak ere izango dira jaietan, Etxaluzen, San Migel egunean eta Errosaixo Egunean, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian egongo dira.

Barrakak ere prest daude. Etzi, domeka, euro batean egongo dira egun osoan. Eta soinu-ekipoak eta sirenak itzaliko dituzte, aniztasun funtzionala duten haur eta gaztetxoentzat, domeka honetan eta Errosaixo Egunean, 17:00etatik 19:00etara.

Gazteentzako tirolina Eltzian

Aurten, estreinakoz, Eltzia inguruan izango dituzte gazteek euren eguneko ekintzak, irailaren 30ean, 10:00etan hasita. Besteak beste, tirolina erraldoia jarriko dute, Eltzia musika-guneko teilatutik hasi eta Larrañako futbol zelaira bitartekoa –pumptrack-gunea gainetik pasako dute-. Eltzia aparkalekuan ez dira autoak egongo eta bertan DBH-1 etik aurrerakoendako puzgarriak jarriko dituzte. DBH-4tik gorakoek, berriz, ginkana egingo dute.

Bazkaria gaztelekuan izango da, urtero moduan, eta dagoeneko txartelak salgai daude 3 euroren truke. Txartelak erosteko azken eguna etzi izango da, domeka, eta gaztelekuko bulegoan eskuratu ahal izango dira. Menua izango da gazteek egindako makarroiak eta kanpotik ekarritako okela-bolak eta jogurta.

Ondo pasau jaxetan!

Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI

Portu Kale 5 • Tel.: 943 78 12 65
www.mapfre.es

Ondo pasau jaxak!

egaralur
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Eraikuntza lanak
Industria-nabeen eraikuntza
Obra Zibila - Urbanizazioak
Etxebizitzen promozio eta eraikuntza

Bidebarrieta 17, behea • 20560 OÑATI
Tel.: 943 78 07 15 • Faxe 943 78 08 62 • www.egaralur.net



OÑATI
dabilen herria

OÑATIKO
JAIXAK



2024

Zuretzat, neretzat, hiretzat, harentzat, darentzat,
jai zorientsuak!

lazkoari eutsi arren, berritasunekin dator txosnetako egitaraua

Adin zein gustu guztietarako ekintzak jasotzen ditu Txosna Batzordeak prestatu duen egitarauak. lazkoari jarraipena eman bai, baina berrikuntzak ere egongo dira aurtentzen; nagusiak film laburren lehiaketa eta bakarrizketarien emanaldiak izango dira

Julen Murua Mesonero OÑATI

Txosna batzordeak 2024ko jaietako egitaraua aurkeztu du, eta, azken urteetan arrakasta izan duten ekintzez gain, beste hainbat berritasunekin dator aurtentzen. Iaz, *Espiritualitatea* izan zen Txosna Batzordeak jaietarako proposatutako gaia; aurtentzen, berriz, *Mafia* izango da Oñatiko kuadrillek landu beharko duten gaia. Irailaren 27an 19:00etan irekiko dute txosnagunea, eta, hasierako ekitaldi baten ostean, Malenp oñatiarrak kontzertua emango

du. Emanaldiaren ostean hartuko du txosnagunea aurtentzen berritasunetako batek: film laburren lehiaketak. Hurrengo egunetan ere askotariko ekintzez gozatzeko aukera egongo da txosnagunean; besteak beste, Trafijolasak egingo dituzte irailaren 28an, 11:00etan hasita; bakarrizketak egongo dira hilaren 29an, 20:00etan hasita; hilaren 30ean, 17:30ean, kantuan eta dantzari aritzeko aukera izango dute adin guztietako haurrek, *Mugi Boogie*-ren eskutik; kulturarteko

pintxo-potea egongo da urriaren 4an, 19:00etan hasita; eta jaietako azken egunean, Errosaixo Bixamonean, urteroko Dibertsioek emango diote amaiera txosnetako egitarauari.

Mafiaren bueltan

Film laburren aldeko apustua egin du aurtentzen Txosna Batzordeak, eta Oñatiko kuadrillek gonbidatu dituzte mafia gai gisa duen lan laburra sortzera. Antolatzaileek adierazi dute "txosnen irekieran ekitaldi bat egi-

teko eta herritarren parte hartzea sustatzeko asmoz" erabaki zutela film laburren lehiaketa egitea. Batzordeko kideek adierazi dute aurkeztutako lan kopurua ez dela jakingo "irailaren 25era arte, azken entrega egunera arte". Hala ere, aitortu dute "uda aurreko kopurua txikia zen arren, irailean taldeak marxta hartzen" hasi direla.

Esan bezala, irailaren 25era arte izango dute oñatiarrek euren film laburra bidaltzeko aukera. Gehienez hiru minutu izan beharko ditu, eta gaia mafia izatearekin batera, film laburrean erabili beharreko objektuak txosnetako basoa izan beharko du. Parte hartu nahi duten taldeek oinatikotxosnak@gmail.com helbidera bidali beharko dute euren lana.

Auzoen arteko trafijolasak

Iaz estreinatu zituen Txosna Batzordeak Oñatiko auzoen arteko olinpiadak, eta, herritarren artean ekimenak izan zuen arrakasta ikusita, antolatzaileek erabaki dute auzolinpiadek txosnetako egitarauan tokia izatea beste urte batez.

Aurtentzen jaiak mafiaren gaia berritasunekin izango direnez, auzolinpiadek ere gai horrekin lotutako izena izango dute: Trafijolasak. Hamalau taldek eman dute izena dagoeneko eta antolatzaileek adierazi dute berritasunak egongo direla parte hartzaileen artean: "Bi auzo berrin ordezkari izango dira Trafijolasetan; alde batetik, Berezaio auzoko taldea egongo da, bertan ere ospatzen dituztelako euren auzoko jaiak; eta, bestetik, Ugarkalde auzoko taldeak ere eman du izena".

Lau gunetan jokatuko dira Trafijolasak: txosnagunean – bertan hasiko da –, San Anton Plazan, Herriko Plaza inguruan eta Atzeko kalean, eta gune bakoitzean jolasak egingo dituzte –eguraldiak baldintzatuz ditzake–, 14:30ean txosnagunera bazkaltzera joan aurretik.

BEREZAIO ETA UGARKALDE AUZOEN PARTE HARTUKO DUTE TRAFIJOLASETAN; 14 TALDE EGONGO DIRA



ituziorako hamaika arrazoi



Errekaldeko Jai Batzordea, iazko Auzolinpiadetako jolas batean. J.M.M.

Barre-algaraka aritzeko unea

Dantzarako, kanturako eta festarako unek egongo dira txosnan, baina baita barre egitekoak ere; izan ere, aurten, aurrenekoz, bakarriketa saio bat egongo da: irailaren 29an, 20:00etan

hasita, Iker Plazaola, Julen Portillo, Asier K eta Lide Arregi arduratuko dira ilunkera girotzeaz.

Parranda osteko egunek "arrakasta handia" izan zutela ohar-tu ziren iaz Txosna Batzordeko

kideak, eta, hortaz, egitarauan igandeei ere garrantzia eman nahi izan diete: "Igandean txosnak bizitza izatea nahi dugu, eta horregatik erabaki dugu, alde batetik, bakarriketariak ekartzea, eta, bestetik, Goxua N

Salsa eta Ingot taldeek kontzertu bana jotzea –urriaren 6an–".

Hamabi talderen bertsioak

Urteroko legez, herriko kuadrillek girotuko dute Errosaixo Bixamoneko arratsalde eta gaua Dibertsioetan. Iazko kopurua handitu egin da; izan ere, hamabi taldek eman dute izena aurten, eta musika mota askotariko kontzertuak entzuteko aukera izango dute oñatiarrek, 17:00etan hasi eta goizaldera arte. Antolatzaileak "oso pozik" daude, "talde askok parte hartuko duela eta txosnen balioekin bat datozen alderdiek garrantzia izango dutelako; besteak beste, emakumeek eta euskarak presentzia izatea oholtza gainean". Txosna Batzordeak jakinarazi duenez, hauek dira oñatiarrek bertsionatuko dituzten taldeak eta haien ordu-tegiak: Bi Bala (17:00), Hertzainak (17:50) Comando 9mm (18:40), Tutan Come On (19:30), Kaos Etiliko (20:20), Añube (21:30), Ken Zazpi (22:20), Never Surrender (23:10), Pantera (00:00), Ska-P (00:50), Los Zopilotes Txirriaios (01:40) eta Hemendik At –zehaztu gabe–.

Dibertsioetako kontzertuak diren bitartean, 21:10ean, film labur onenaren eta Errosaixo Bixamonean mafia gaiaren bueltako mozorro onenaren sariak banatuko dituztela ere jakinarazi dute antolatzaileek.

Erasoen aurkako protokoloa

Txosna Batzordekoek adierazi dute Oñatiko jaietan ez dutela inolako erasorik onartuko, eta horien aurrean "erasoen aurkako protokoloarekin" erantzungo dutela.

Horrez gain, herritarrei "txosnetan falta diren txandak betetzeko eskaera" egin nahi izan die Txosna Batzordeak: "Herri-tik eta herriarentzat egindako jaiak dira, jai herrikoiak; horregatik, herritarrak gonbidatu nahi ditugu falta diren txandak betetzera, txosna irekita mantentzeko asmoz".

12 TALDEK HARTUKO DUTE PARTE DIBERTSIOETAN, ETA ASKOTARIKO ESTILOAK JORRATUKO DITUZTE



Ondo pasau JAIXAK!

Danbor hotsak inoiz baino ozenago datoz

Aurtengo nagusien danborrada azken urteetako jendetsuena izango da; izan ere, bi konpartsa berri sartu dira: 'Txalekodunak' eta 'Baserritarrak'. Bihar egingo duten haurren danborradari dagokionez, 160 gaztetxo arituko dira danborrak astintzen

Iñigo Barrena OÑATI

Helduen eta umeen danborradek ez dute hutsik egingo aurteneren ere, eta inoiz baino ozenago entzungo dira danbor hotsak herriko kaleetan zehar; izan ere, aurtengo jaietako nobedade esanguratsuenetakoa nagusien danborradak izango du. Azken urteetan jendeak parte hartzeko egin duen eskaria ikusita, aurteneren bi konpartsa berri sortzea erabaki du danborradako antolakuntza taldeak: *Txalekodunak* eta *Baserritarrak*. Lehenengoek, umeen danborradan bezala, koloretako txalekoak eramango dituzte soinean; eta besteak, berriz, baserritar jantzita joan-



Danborreroen zuzendaria herriko plazan. GOIENA

go dira, okre koloreko zapia lepoan zintzilik dutela. Bi konpartsa berri horiekin, beste 50 lagun batuko dira danborradara; hala, 300 lagunetik gorako danborrada izango da aurtengoa; parte-hartzailea, parekidea eta azken urteetako jendetsuena. Danbor eta barrilekin batera 2007ko 102 kinto irtengo dira aurteneren dantza egitera.

Ibilbideari dagokionez ez da aldaketarik egongo, Eltzian hasiko da eta handik behera egingo dute. Orduetegiari dagokionez ere ez da aldaketarik egongo: 22:30ean hasiko da. Azken asteotan entseguetan murgilduta dabilta danborradako kideak, eta irailaren 25ean 19:30ean egingo dute azken entsegu orokorra, zapatu gauean makilak gogor eta ozen astindu aurretik.

Haurren danborrada bihar

Nagusiena iritsi bitartean, bihar bertan danborradako doinuak entzuteko aukera egongo da, ohitura den moduan, jaiak hasi baino aste bete lehenago aurrean danborrada egingo baitute. Berritasun gutxi egongo dira, baina nabarmenena ibilbidean

egongo da: Bidaurretan hasita orain arte, Kale Zaharrean behera joaten ziren eta Kanpantxo kalea hasten den errepideraino iristen zen danborrada; aurteneren, aldiz, Kale Zaharrean behera joanda, Ikatz taberna parean hartuko dute bihurgunea, Agustinoen eliza parean hain zuzen; ibilbide motzagoa izango dute, beste urte batzuekin alderatuz. Parte-hartzaileei dagokienez, 160 haurrez osatutako danborrada izango da aurtengoa. Sei konpartsa egongo dira danborrak eta barrilak jotzen; bi zaldunek, hamar gastadorek eta hogeit hamar banderak osatuko dute haurren danborrada. Aurteneren, 2015eko eta 2016ko haurrek dute bertan iriteteko aukera. Danborradaren atzean, azken urteetan bezala, karroza bat egongo da mozorroz beteta eta karameluak jaurtitzen, eta antolatzaileek mozorrotuta joateko dei egin diete ikustera joango diren haurrei. Azkenik, txorimaloak ere danborradaren konpartsa parte izango dira, eta, beti bezala, haurrak euren eskutik joan ahalko dira ibilbidean zehar. Amaitutakoan, txorimaloak egongo dira.



TXOPEKUA

jaietxea / sagardotegia

Ondo pasa jaiak!

Tel. 943 78 05 71 • Urbarri 5, Arantzazu bidea • 20560 Oñati



EGUZKIALDE
enbalajeak



Gera saumigelak!

www.eguzkialdeenbalajeak.com

☎ 943 78 06 54 (Oñati)



laz egun bakarrean egin zuten sokamuturra; aurten, aldiz, bi egunetan egongo da. GOIENA

Haur zein helduak ibiliko dira zezenen aurrean

Oñatiko Zezenzale Elkarteak antolatuta, entzierro txikia egingo dute aurten jaietan irailaren 30ean, 16:45ean. Bi egingo dituzte: lehena 12 urte bitartekoentzat eta bigarrena, 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Ohiko sokamuturra ere ez da faltako

Iñigo Barrena OÑATI

Zezenzaleentzako hitzorduak ere jasotzen ditu aurtengo jaietako egitarauak, eta ez soilik helduentzat. Aurten etxeko txikienek ere zezenen aurrean lasterka aritzeko aukera izango dute, Oñatiko Zezenzale Elkarteak entzierro txikia antolatuta eta. Elkartekoek esan duteenez, hamabi urte dira Oñatin gaztetxoentzat ez dela ezer egiten zezenekin lotuta. "Urte asko dira ez dela ezer egiten eta ikusten dugu zezenekiko interesa edo afizioa jaisten doala. Horregatik erabaki dugu txikienez ere zerbait antolatzea eta zezenekiko afizio hori bultzatzea", adierazi du Cristian Martinek, Oñatiko Zezenzale Elkartearen kidea.

Entzierro txikia irailaren 30ean arratsaldean izango da, 16:45ean hasita. Bi entzierro izango dira: lehena 12 urtera arteko haurrentzat eta bigarrena, aldiz, 12 eta 16 urte bitartekoentzat. Normala den moduan, ez dira benetako zezenak izango: gurdi baten bitartez bultzatutako *karretoi* batzuekin egingo dute. Atzeko kalea, Kale Barria eta Ramon

Irizar batzen diren tokian hasi eta plazarainoko ibilbidea izango dute entzierroek; plazan bost minutuz egongo dira.

Sokamuturra ere bai

Nagusiagoak direnek ere parte hartzeko aukera izango dute, baina nagusiendako sokamuturrean. Iaz ez bezala, aurten bi egunetan egongo da sokamuturra: irailaren 30ean eta urriaren 7an, Errosaixo Bixamon Egunean. Hain zuzen ere, irailaren 30eko entzierro txikiaren ostean hasiko da, 17:00etan. Foruen enparantzan, Atzeko kalean eta Kale Barrian zehar arituko da ganadua. Urriaren 7an, berriz, goizean soilik plazan eta udaletxearen bueltan ibiliko da; arratsaldean, irailaren 30eko eremu berean ibiliko dira. Aurten, Ibiri eta Lopene ganadutegietako zezenak izango dira herritarren atzetik. Beti bezala, Udaletik ohartarazi dute 16 urtetik beherakoek debekatuta dutela sokamuturrean parte hartzea, eta, norbaiti zerbait gertatuz gero, Udala ez dela gertatzen denaren erantzule egingo.

Malte Alastui

4S
Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing
943 53 36 57
4sgoiena@gmail.com

Ondo pasa jaiak !

5. Ikasturtea martxan!

Arantzazuko Ama, 3 behea • 943 53 36 57-685 986 003 • 4sgoiena@gmail.com

Kirolak ere izango du bere lekua jaietan

Oñatiko jaietan kirolaz gozatzeko aukera ere izaten da, eta hainbat ikuskizun izango dira egun ezberdinetan: pilotako eta eskubaloiko San Migel txapelketak, herriko bola-joko txapelketa, arku tiroketa erakustaldia eta plater tiroketa txapelketa

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Oñatiko jaiak askorako ematen dute, eta, parranda giroaz gain, hainbat kirol ikusi eta praktikatzeko aukera izango da.

Pilotazale berriak

Herriko pilota txapelketaz gain, San Migel pilota txapelketa jokatzen da jaien bueltan. Finala urriaren 6an izango da, Erro-saixo Egunean, 17:00etan, Zubikoa pilotalekuan. Martitzenean zehaztu zen nortzuk izango diren lehen finalistak: batetik, iaz txapeldun izan zen Iñigo Erle oñatiarra eta Etxeberria, eta, bestetik, gazte mailan Ramirez-Elorza bikotea. Bigarren finalerdiak



San Migel pilota txapelketako kanporaketa bat. GOIENA

atzo ziren jokatzekoak, tartean Ander Etxaniz eta Manex Balerdi bikote debagoiendarra.

Ander Biain, Aloña Mendi pilota elkarteko kidea, pozik dago herritarren harrerarekin: "Aurten normalean frontoira etortzen ez den jendea etorri da, eta haietako gehienak finalera etorriko direlakoan nago. Jende dezente espero dugu".

Bada eskubaloirako grinarik

Eskubaloian ere bada San Migel txapelketa, eta aurten, 45. edizioan, Soraluze BKE izango dute aurrean Aloña Mendikoek. Zubikoa kiroldegian izango dira partiduak: lehena, senior mailako neskena, 16:00etan; eta bigarrena, senior mailako mutilena, 18:00etan. Iñaki Mendarozketak, eskubaloia saileko presidentea, jende ugari espero dutela adierazi du: "Jendea eskubaloia ikusteko grinarekin egoten da. Iaz pertsona ugari etorri ziren eta aurten ere jende asko espero dugu".

Bi jokodun bola-jokoa

Irailaren 22an, 15:30ean, San Martinen, herriko bola-joko txa-

pelketa egingo da. Mikel Biainek, Kurtzebaltz elkarteko kideak, bi joko izaten direla azaldu du: subastakoa eta herriko txapelketa. Subastakoan "ikusleek jokalaria maila neurtzeko aukera dute, eta diru eskaintzak egiten dira". Giro oso ona egoten dela azpimarratu du Biainek.

Arku probatzeko aukera

Urriaren 6an, 17:00etan, arku tiroketa erakustaldia izango da, San Martin zuhaitzian. Gorka Bikuñak, Txantxiku Arkulariako kideak, azaldu duenez, erakustaldi txiki baten ostean "jendeak probatzeko aukera izaten du". "Giro polita sortzen da", eta "bukatzeko orduan jendeak ez du alde egin nahi izaten".

25 platereko txapelketa

Irailaren 29an, plater tiroketa txapelketa egingo da, 11:00etan, Txopekua tiro-zelaian, eta 20 euro ordaindu beharko da parte hartzeko. Pago Uso elkarteko kide Santi Caroren arabera, "25 platerera izango da". Segurtasun kontuengatik, armak edukitzeko baimena eta Ehiza Federazioaren Lizentzia beharko da.



ASEGURU AHOLKULARITZA
ESPEZIALIZATUA

Gertuko zerbitzua momentu zailetan

Ondo pasa jaiak!!

688 774 531 - WHATSAPP 943 089 006

OINATI@COINBROKER.EUS WWW.COINBROKER.EUS

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA. 20560 OÑATI



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.
- Galderen aldizkako azterketak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Finantzatzeko aukera onak!

943 71 82 49 - 943 75 16 46
Sagar Erreka 2, behea (Soraluze)
fogasleriturgintza@gmail.com

Ondo
pasa
jaiak!



Errege bezperan Txinpartak antolatutako bertso saioa, Zubikoa kiroldegiko frontoian. IMANOL SORIANO

Bertsoek ez dute hutsik egingo aurtengo jaietan

Urtero moduan, bi bertso saio izango dira aurtengo Oñatiko jaietan: irailaren 27an izango da lehena, Zubikoa kiroldegiko frontoian; bigarrena urriaren 6an Errosario Egunean, Kale Zaharrean egingo den balkoitik balkoirako bertso saioa izango da

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Ez da bertsozik gabeko Oñatiko jairik, eta aurtenean ere doinu, neurri eta errimek badute beren lekua jaietako egitarauan. Ohiturari utsiz, bi bertso saio ezberdin antolatu dituzte Txinparta Bertso Eskolako kideek.

Lehenengoa irailaren 27an izango da, 22:30ean hasita, Zubikoa kiroldegian. Formatu aldetik ohiko jaialdia izango dela azaldu du Mirari Sagarzazuk, Txinpartako kideak, "herri gehienetako jaietan egiten diren antzerakoa". Puntako bertsolariak izango dira entzungai: Andoni Egaña, Mainer Arregi, Amets Arzallus, Aitor Tatiegi, Aitor Mendiluze eta Joanes Illarregi. Sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian, 10 euroren truke; 12 urtetik beherakoek ez dute sarrera beharrik izango.

Bigarren saioa, balkoitik balkoirakoa, urterokoa den arren, "bereziagoa da, beste leku batzuetan ez da-eta askotan ikusten". Urriaren 6an izango da, 20:30ean. Maialen Lujanbio eta Urko Arregi izango dira kantuan, Kale Zaharreko balkoi banatan.

Hiru oñatiar kantuan

Aurtenean hiru oñatiar izango dira kantuan, bi saioetan banatuta: Mainer Arregi, Aitor Tatiegi eta Urko Arregi. "Jendearen erreferente diren bertsolariak ekarzteaz gain, herrikoei lekua egiten saiatzen gara", dio Sagarzazuk. "Bertso eskolan deialdi irekia egiten dugu eta errotazio sistema bat dago, pertsona berdinak bi aldiz jarraian ez kantatzeko. Guretzat garrantzitsua da eskaintza hori egitea".


Hala ere, kantuan izango diren herrikideen kopurua hirura igotzeko beste arrazoi bat ere izan da: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. "Txapelketan kantatuko dutenez, kiroldegiko saioan Mainer eta Aitor elkarrekin jartzea pentsatu genuen".

Bertsolaritza osasuntsu dago

Oñatin bertsolariaren egoera onean dago, Sagarzazuren ustez, eta horren erakusle dira jaietako bi saio horiek, Errege bezperakoa eta urtean zehar egiten diren bestelako saioak. "Esango nuke bertsoa osasuntsu dagoela, baina hori zaindu beharra dago. Horretarako dago bertso eskola".



Ondo ospatu sartu jaiak!!




ZUGASTI
BIKE

Olakua 16, behea
20560 OÑATI
Telefona: 943 78 29 86

GORA OÑATIKO JAIK!!!!



Aukeran Dantza Konpainiaren *Migratzaileak* ikuskizuna egiten Bergaran. GOIENA

Zazpi dantzari kalean, mugimenduaz galdezka

Aukeran Dantza Konpainiak 'Aiurri' kale ikuskizun arrakastatsua egingo du irailaren 30ean, 20:00etan, Foruen enparantzán. Dantzaren bidez mugimenduaren inguruan hausnartzen duen ikuskizuna da, hamabi koreografiak osatutakoa

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Irailaren 30ean dantzek hartuko dute Foruen enparantza, Aukeran Dantza Konpainiari esker. *Aiurri* kale ikuskizunarekin helduko dira Oñatira, 20:00etan hasiko den emanaldi batean.

Dantzaren bidez, mugimenduaren inguruan hausnartuko dute ikuskizunean parte hartzen duten zazpi dantzariak. "Mugimenduarekin du zerikusia ikuskizunak, dantza azken finean mugimendua da, eta hori oinarri izanda sortu dugu kale ikuskizuna", azaldu du Edu Muruamendiarek, Aukeran Dantza Konpainiako zuzendariak.

Gutzira, "konpainiaren nortasuna erakusten duten" hamabi koreografiak osatzen dute ikuskizuna. "Gure ibilbidea hori da, gure nortasuna erakusten dugula ikuskizun guztietan, eta emanaldi hau horretaz doa". Dantzari bakoitzak bere mugimendu eta dantzak ditu ikuskizunean, baina horiek aldatu egiten dira emanalditik emanaldira. "Emanaldi bakoitza ezberdina da, ikuskizuna bizirik dago. Mugimenduan oinarritzen da, eta, beraz, ez da ikuskizun finkoa,

aldi aldiz dabil. Oñatikoak ere ezberdintasunak izango ditu aurrekoarekin alderatuz gero. Plaza bakoitzera egokitzen gara", dio Muruamendiarek.

Ikuskizunaren beste ezaugarrietako bat da 360 graduko emanaldia dela: "360 gradutan egiten dugu. Publikoa gure inguruan egoten da eta soinua koadrofonía bidez ateratzen da. Norabide guztietan dantzaten dugu eta beste ikuspegi batetik ikusten da emanaldia".

Harrera ona

Aurreko urtean estreinatu zen *Aiurri*, eta geroztik arrakasta handia izan du ikuskizunak. Harrera oso ona izaten dute emanaldiek: "Flipatzen gabilta. Aurten hamabost bat emanaldi egin ditugu. Aurreko astean Lekornen izan ginen, Ipar Euskal Herrian, eta txoratzen amaitu genuen, baita publikoak ere. Kataluniara ere heldu gara, eta Andorran izatekoak gara".

Bide horretatik, oñatiarrak ere animatu nahi izan ditu: "Jendeari animatzeko esango nioke. Energia asko du emanaldiak, eta oso ondo dago ikusteko".



TXANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Kale barria 20, Errekalde 8 • OÑATI
Tel.: 943 78 01 54
Julen Uribeetxeberria - 699 34 89 47
txantxiku@telefonica.net



Gora sanmigelak!



zapore
jatetxea



Mondragon
Unibertsitatea

Ibarra zelaia, 2
Tel: 671 407 658
zapore.enpresagintza@mondragon.edu



ONDO PASA
JAIKAK!



"Estilo batzuk asko lantzen dira; soula, ez"

AFRIKA BIBANG MUSIKARIA

Urriaren 6an, Errosaixo Egunean, Atzeko kalean emango du kontzertua Afrika Bibangek, euskarazko soul musikaren aitzindariak, 19:30ean hasita

Gontzal Belategi Zubia OÑATI

Musika ibilbide oparoa izan du Afrika Bibang (Algorta, 1975) abeslariak. Euskarazko soul musikaren aitzindarietako bat da, beste hainbat musika estilo egiten ere ibili den arren.

Gogotsu zaude Oñatin jotzeko?

Bai, noski, gogotsu nago, baina onartu behar dut lan asko dudala eta nekatuta ere banagoela. Ez dakit gorputza zelan izango dudana, baina emanaldi guztiak hartzen ditut gogo handiz.

Euskarazko soula egiten duten hainbat proiektu daude, baina zeu zara aitzindarietako bat; horrek zama bat dakar berarekin?

Ez naiz ausartzen besteengan eragina izan dudala esaten. Beste proiektu batzuetako jendea ezagutzen dut, eta soula asko gustatzen zaion jendea da. Baita nire taldea ikustean norbait talde berri bat egitera animatu izana, baina ez dut uste. Hori horrela izan dela esatea askotxo iruditzen zait.



Afrika Bibang musikari bizkaitarra. PROMOMUSIKA

Soulak badu lekurik punk-rockez betetako eszena musikalean?

Esango nuke soulak ez duela oso harrera onik izaten. Bueno, akaso, kontua ez da ez duela harrera onik izaten, baizik eta ez duela lekurik. Jendeak rocka

eta estilokoak entzuten ditu. Beste estilo batzuk asko lantzen dira, baina soula ez. Nire kontzertuetara datorren jendeari asko gustatzen zaio; beraz, ohitura falta izango da. Geroz eta gehiago jotzen badugu eta talde

gehiago agertzen badira, normalago bilakatuko da, baina momentuz, ez da oso ezaguna.

Zeuren punka egindakoa zara.

Etsaiak taldearen garaia nire bizitzako egun onenak izan ziren. Oso ondo pasatu nuen eta jende oso interesgarria ezagutu nuen. Familia bat ginen. Gainera, niri oraindik ere punka asko gustatzen zait. Punka baldin bazara, punka izaten jarraitzen duzu bizitza osoan. Oroitzapen oso politak ditut, ezin hobeto pasatu nuen urte haietan guztietan.

Soula, punka, reggaea, flamenko fusioa, dance eta elektronika; bada egiten ez duzun ezer?

[Barre] Musika klasikoa-edo faltako zait egiteko. Kontua da musika hori guztia musika beltza dela, eta niri musika hori gustatzen zait. Flamenko fusioak ere badu musika beltzetik. Estiloak probatzea eta esperimentatzea ikaragarri gustatzen zait. Ona baldin bada, beti pentsatzen dut: zergatik ez egin? Bidaiatzen ibilitakoa naiz, eta, kuriositate handiko pertsona naizenez, estilo ezberdinen inguruan ahalik eta gehien ikasten saiatzen naiz. Ikasketa hori nire ibilbidean eta nire bizitzan aplikatzen saiatzen naiz.

Nolakoak dira estilo aldaketa horiek?

Nire kasuan, oso naturala izan da beti. Niri txikitatik soula gustatu izan zait, eta hortik reggaea pasatu nintzen. Punka, berriz, bizitzak aukera aurrean jarri zidalako egin nuen. Aurrez

pentasatu gabeko kontua izan zen, naturala. Bartzelonan nengoenean, flamenko fusio talde batean sartu nintzen, zuzendaria ezagutu nuelako eta proiektua interesgarria zelako. Konturatu gabe joan naiz estiloak aldatzen.

Nola pasa zinen A eremuan ikastetik euskaraz abestera?

Hori bai izan zen erronka handia. Euskarazko ingurugiro batean sartzen hasi nintzen eta hizkuntza ikasteko grina piztu zitzaidan. Hasieran gogorra izan zen, baina capricornus naiz, eta erronkak asko gustatzen zaizkit. Behin ikasita, musika ere euskaraz egiteko hautua egin nuen, euskaraz bizitzera pasatuta. Niretzat prozesu naturala izan zen. AEKn ikasi nuen, eta, hizkuntzetarako erraztasuna dudalako izango da, akaso, baina jolas bat bezala izan zen. Gero, Lekeitiora etorri nintzen bizitzera; hura bai izan zela zaila.

Aurrera begira baduzu proiekturik?

Kanta bat ateratzeko asmotan nabil, baina lanez lepo nago eta ez dakit noiz atera ahalko dudana. Asmoa urrian ateratzea da. Esperimentatzen jarraitu dut, eta, musika beltza den arren, inoiz egin ez dudana estilo bat da.

"EUSKARAZKO INGURUGIRO BATEAN SARTU NINTZEN ETA IKASTEKO GRINA PIZTU ZITZAIKAN"

Grupo Asegi Oñatira iritsi da

Ondo pasa jaiak!

Espezialista talde bat dugu zure neurria egindako zerbitzu global bat eskaintzeko. Zure enpresaren beharretara eta tamainara egokitzen gara.

ZURE AHOLKULARITZA IZAN NAHI DUGU

asegi asesorías

ZURE NEURRIRA

Ramon Irizar Kalea, 3 - 20560 Oñati, Gipuzkoa

94 401 94 85



Süne laukotea. ARGAZKIAK: MUSIKA TALDEAK



Ingot Rock taldeko Itziar Ituño.



Hamarratz erromeria, seikote gisa.

Bozgorailuak lehertu arte

Plazako, txosnaguneko eta Atzeko kaleko eszenatokiek jasoko dituzte sanmigeletako kontzertuak. Datorren ostiralean, gaur zortzi, entzungo dira lehen zuzeneko notak, txosnagunearen irekierarekin batera. Urriaren 7ra arte ez dute etenik izango

Hasier Larrea Herrero OÑATI

Jai handi batzuek behar dituzten osagaiz hornituta etorriko dira sanmigela, rock, rantxera eta erromeria dosiz beteta. Dozenatik gora zuzeneko egongo dira; tokiko musikarientzat, batik bat.

MALENPE

Txosnagunea / Irailak 27 / 19:30
Herriko bakarlarri horren emandakid akustikoak irekiko du txosnetako egitaraua. Soinu elektronikoei eta hainbat musika-tresnari egiten die tokia.

Bertsioen artean abesti propioak ere entzun ahal izango dira.

LISKER

Plaza / Irailak 28 / 20:15 eta 00:30
70eko hamarkadan Eibarren sortutako folk-rock taldeak tin-

ko eta zutik dirau hainbeste urteren ostean, gaur egun plazako talde bilakatuta.

SIEMPRE SABINA

Atzeko kalea / Irailak 29 / 19:00
Joaquin Sabina kantautorearen tributu-bandak errepasoa egingo die haren kantu entzutetsuei. Ubedako artistak sortutako piezarik arrakastatsuenak abestu gura dituztenek badakite noiz eta non duten hitzordua.

SÜNE

Plaza / Irailak 29 / 23:00
Josune Arakistainek proiektu pertsonala jaurti zuen udan, eta geroztik aurkezpen biran murgilduta dago. Trikitiaren erroertara ondo lotuta jarraitzearekin batera, musika-tresna hori estilo garaikideekin nahasteko apustua egin du lasturtarrak, taldekide berriak aldamenen dituela.

ACORDES NAVARROS

Lazarraga lorategia / Irailak 30 / 13:00
Nafarroako jotek ere izango dute tokia jaietan. Lizarratik etorriko den seikoteak ibilbide luzea egin du oholztan, 1988tik ahoz gora kantatzeko trebetasuna erakusten baitihardute. Disko bat kaleratu zuten 2018an, *De Estella a la Ribera*, kantu-bilduma mardul eta aberatsa dutela erakusteko.

ESNE BELTZA

Plaza / Urriak 4 / 23:00

Esne bidea bira amaierara heltzen dabil eta geltokietako bat Oñati izango du. Kolaborazio eta dantzari lepoko etorriko da Xabi Solanoren taldea, beti bezala, ska, rap, tex-mex, runba, rock, elektronika eta pop estiloak uztartuta. Taldeak Oñatin joko duen azkenengo kontzertua izango da, otsailean agur esango baitute behin betiko.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, demigorrezko ikastaroaren diru-itzulketak 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean % 10 murriztuko da automatikoki, ezbeharrik izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20



Acordes Navarros lizarratarrak.



Laket erromeria.



Zopilotes Txirriaos.

OBANEUKE**Atzeko kalea / Urriak 5 / 18:30**

Zapatuko bazkalostea erromeria talde horrek girotuko du, kantu ezagun eta dantzagarriak plazaratzeko prest. Haien doinuek erakarrita gerria astintzera animatuko da festazale bat baino gehiago.

LAKET**Plaza / Urriak 5 / 20:00 eta 22:30**

Ilunabarrak eta gauak arratsaldearen ildo beretik joko dute zapatuan. Laket musika taldeak emango dio erromeria ukitua, kasu horretan, Foruen plazari. Baten faltan, birritan joko dute, gainera.

REBEL NOISE, HAMARRATZ, ZOPILOTES TXIRRIAOS**Txosnagunea / Urriak 5 / 22:00**

Energiaz betetako egitarau musikala antolatu du Txosna Baztordeak, bi talde gazte eta es-

karmentu handiagoko bat gonbidatuta. Mundu guztiak ondo pasatzeko moduko emanaldia izango da, zalantza barik.

Debagoienerako Rebel Noise taldearen bigarren diskoko kantu berriei harrera beroa egiten dabilta zaleak. Punk-rocka pasioz bizi dute musikari gazte eta konprometitu horiek; horixe erakusten dute zuzenekoetan, eta txosnetako hitzordua ez da salbuespena izango.

Etxeko giro goxoa jokatu dute Hamarratz erromeria taldeko kideek. Bederatzikotea izatetik seikotea izatera pasa arren, ziur txiki geratuko zaie la eszenatokia, haien jarraitzaileei dantzalekua txiki geratuko zaien modu bertsuan.

Nafarroako Zopilotes Txirriaos rantxera talde ezagunak ere presente egon nahi du txosnetako parrandan. Ondo baino hobeto moldatzen dira bazterrak

nahasten eta jaietako osagaiei mina botatzen; ikuskizuna bermatuta dago *Konejo* abeslariarekin eta enparauekin.

AFRIKA BIBANG**Atzeko kalea / Urriak 6 / 19:00**

Euskarazko kantugintzari ekarpen handia egin dio musika beltzaren bidea urratuta Afrika Bibang abeslari algortarrak. Soul, reggae eta jazz nahasketez baliatzen diren musikariei ginga jartzen die haren ahots indartsuarekin.

INGOT ROCK**Txosnagunea / Urriak 6 / 19:00**

Ingurumenaren eta kausa sozialaren aldarrikapenak dauzkate bizkaieraz kantatzen duen rock talde horren kantuek. Folkean, punkean, heavyan eta rock-and-rollean sentitzen dira eroso taldekideak, Itziar Ituño artista polifazetikoa buru.

LONDON ORQUESTA**Plaza / Urriak 6 / 23:00**

Nafarroatik etorriko diren musikari nekazekin horiek gai dira oholtza gainean hainbat ordu jo eta su ibiltzeko, inolako konplexu barik, askotariko estiloen artean hara eta hona. Adin guztietako publikoak gozatzeko moduko ikuskizun alai eta martxosoak aurkezten iaioak dira; hala erakutsi dute bi hamarkadatan ibilbidean.

DIBERTSIOAK**Txosnagunea / Urriak 7 / 17:00**

Errosoa Bixamonari kolore berezia emateaz arduratuko dira herriko kuadrillak. 17:00etatik ordu txikiak arte, musika talde ezagunen kantuek plazaratuko dituzte musikazale gazteek Dibertsioetan, hala nola Hertzainak, Kaos Etiliko, Añube, Never Surrender eta Hemendik At-enak (Ikus 27. orria).

PURO RELAJO**Plaza / Urriak 10 / 20:00**

Udalak kaleratutako ikus-entzuzko egitaraua Puro Relajo mariatxi taldeak borobilduko du. *Sigo siendo el rey* edo *Txoria txori*, berdina zaie Mexikora jo edo Euskal Herrian geratu, eroskeriatan erori gabe esperimantazioa jotzen dute, eta ondo funtzionatu izan diete sorreratik 11 urtera ere.

Honaino oholtza gainekoen erreposoa, baina ez musikarekin lotutako ekitaldi guztiena, emanaldi mugikorrek protagonismo handia izango baitute, txarangek; elektrotxarangek eta kalejirek, esate baterako. Egunaren argitan izango diren dantza emanaldiekin ere gozatu ahalko dute oñatiarrek, baita gaueko iluntasunean lanean hasiko diren disko jartzaileekin ere. Askotariko estiloen erreinua izango da Oñati laster.

Ondo pasa jaiak!

Aker • Aldapa • Etxe Aundi
Garoa • Soraluze
Txopekua • Urtiagain

OÑATIKO SAN MIGEL JAIAK GOIENA TELEBISTAN



TXANTXIKUAREN JAITSIERA, ZUZENEAN

OÑATIKO SAN MIGEL JAIAK
IRAILAREN 28AN, 20:00ETAN
'GOIENA.EUS' ATARIAN
ZUZENEKOA GOIENA.EUS

DANBORRADA ETA SAN MIGEL EGUNEKO EKITALDIAK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA'
URRIAREN 1EAN, MARTITZENA, 18:30/20:30 ETA 22:30



ERROSARIKO BIXAMONA, ZUZENEAN

OÑATIKO SAN MIGEL JAIK
URRIAREN 7AN, ASTELEHENA, 13:30EAN
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS' ATARIAN
ZUZENEKOA GOIENA TELEBISTA ETA GOIENA .EUS



OÑATIKO JAIEN GAIENKOA ERREPASO ZABALA

GOIENA TELEBISTA
URRIAREN 8AN, MARTITZENA, 18:30/20:30 ETA 22:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.

ARETXABALETAKO SANMIGELAK 2024

HAMARKADAK HERRIKO DANTZAK PLAZARATZEN

Beinke-Loramendi dantzaren 30. urteurrena

Nekazaritza ekologikoa azokan

'Katuska' zarzuela Aretxabaleta Abesbatzarekin

Jarduera ikusgarriak herri kirolean

Erraldoien konpartsa, berriro kalera



IMANOL SORIANO



UNAI ITURRIOTZ

Ondo pasau sanmigelak!

- Abokatua
- Bitartekaria
- Aholkulari juridikoa



Errekabarren 18, behea
20550 ARETXABALETA



943.080796



943.080796



696378909



unai@iturriotz.eus



www.iturriotz.eus



EGUBAKOITZA 27

18:00 Aretxabaletako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa,

Aretxabaletako gaiteroekin batera.

21:00 Kantu afaria, Sei Pistols & Trabuko Bat taldearekin.

Eguraldiaren arabera, Herriko Plazan edo Iturrigorri frontoian egingo da afaria.

22:00-00:00 Disko-festa: pintxada kolektiboa. Gaztelekuan. 12 eta 16 urte artekoentzat.

22:30 La Txama taldearen kontzertua, Mitarte kalean.

ZAPATUA 28

10:00-14:00 Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 29. Feria, Durana kalean; eta Bertako Ganaduaren X. Feria, Arlutzeko kantxan.

10:00 Diana, Aretxabaletako txistulariekin.

11:00 Talo-txosna, Loramendi elkarteak antolatuta, Mitarte kaleko lokalean.

JAIETAKO EGITARAUA



lazgo herri kirolen irudi bat; domekan izango dira aurten, 29an. GOIENA

11:30 Leizarra Musika Eskolako trikitilariak, kaleetan zehar.

12:30 Bertso saioa, Maddalen Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolariekin. Lekaixoka bertso taldeak antolatuta, Mitarte kalean.

12:45 Txalaparta, Durana kalean.

13:00 Iturengo joaldunak, kaleetan zehar.

14:30 Elkartasun bazkaria, Iturrigorri frontoian.

17:00-20:00 Laser Tag eta Bubble Balls, Ibarra kiroldegi pareko zelaian, 12 eta 16 urte artekoentzat.

17:00 Repercusion Feminista batukada, kaleetan zehar.

17:30 Bola-txapelketa haur eta gazteentzako, bolatokian.

18:30 Xake erakustaldia, Arlutz elkarteak antolatuta, Herriko Plazan.

19:00 Beinke-Loramendi eta Larrin dantza saioak, Herriko Plazan.

20:00-00:30 Dantzaldia Laket erromeria taldearekin, Herriko Plazan.

22:30 Bola-txapelketa, bolatokian.

DOMEKA 29

11:00 Diana herriko kaleetan barrena, Aretxabaletako gaiteroekin.

11:30 Doke txapelketa, Basotxo elkartearen eskutik, Gurea tabernaren atzeko aldean.

13:00 Herri kirolak, Herriko Plazan. Honako kirolari hauek ariko dira: Aratz Mugerza, Irati Astondoa, Jesus Maria Mujika, Uxue Ansoregi, Jon Unanue Goenatxo eta Jose Martin Bustinza Olabarria *Tubi*.

16:00 Mus txapelketa, Orly tabernak antolatuta.

19:00 Sanmigelako kontzertua, Aretxabaleta Abesbatzaren eskutik, parrokan.

Oharra: San Migel jaietan, egunero, 17:00etatik 19:00etara, ez da musikarik jarriko barraketan, behar bereziak dituzten haurrek ere bertan gozatzeko aukera izan dezaten.

Durana
Hartz Klinika

Gona sanmigelak!

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55



Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Aretxabaleta
Eskoriatza
Bilbao AS Fabrik

Gozatu eta ondo pasa
sanmigelak!

Beinke-Loramendi dantza 30.ez plazan

Loramendi elkartearen urteurrenaren ondotik, dantzarena ere badator; 1994ko sanmigeletan aurkeztu eta dantzatu zuten estreinakoz, euskara elkartearen eta herriko ikastolaren batze prozesua irudikatzen, eta ordutik ez du hutsik egin

Mirari Altube ARETXABALETA

Herriko Plaza bete egingo da irailaren 28an, 19:00etan, Beinke-Loramendi dantza saiorako, azken urteetan gertatu den legez. Bi ilaratan banatuta eta zapiak airean hartuta, hogeita hamar-garrenez irudikatuko dute euskara ardatz izandako bi elkar-terren arteko batzea. Azken bi entseguak datorren astean egingo dituzte, astelehenean –Kurtzebarri eskolako pistan– eta egunean –Herriko Plazan–, 19:00etan; azken horretara derrigorrez joan beharko dute parte hartu gura dutenek, taldeak osatzeko eta lekua zehazteko. "Jende asko elkartuko gara. Be-



Dantzariak, iaz, Herriko Plazan dantzan. IMANOL SORIANO

launaldi aldaketa ere badator, gazte mordoak dabilelako entseguetan", adierazi du Lierni Zangituk, Loramendi elkartearen presidentea.

Dantzatu eta abestu

Euskararen bueltan lanean diharduen Loramendi elkartearen guraso izan ziren, batetik, Beinke –zazpi urte lehenago eratu-tako kultur elkarte–; eta, bestetik, Loramendi ikastola –25 urteko ibilbidearekin 500 bazkide inguru zituena–. Euskararen erabilera sustatzea eta Aretxabaleta euskalgintza indartzea izan ziren batze horren helburuak. Eta elkarte berri haren sorrera Beinke-Loramendi dantzarekin irudikatu zuten, 1994ko irailean.

Dantza bi ilaratan banatuta hasten da: batek Beinke irudikatzen du eta besteak, Loramendi. Eta gero, batu egiten dira, uztartzen diren bi bide irudikatuz, Loramendirekin gertatu zen moduan. Musika Jose Ramon Vitoria musikari arrasatearrak konposatu zuen eta dantza Aretxabaleta dantza taldeak prestatu; fandangoa, arin-arina eta

balsa batu zituzten, besteak beste.

Kantuaren letraren egileak, oster, Jon eta Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelai bertso-lariak izan ziren. Hona hemen hori: *Gerra ostian sasoi beltza, hizkuntziak be giro latza, ikastolekin sortu geuen esperantza / Eta heldu da gure aukera, barritu dogu gogo bera, geuk daroiagu gure lehena etorkizunera / Ikastolian ahalegina, euskaraz bizitzeko grina, kalia zabalduaz, eskolan egina / Aurrera goiaz ez gaz geldi, elkarte txiki bihotz haundi, mendixa barriz loratu arte, ekin Loramendi.* Urteurrena gogoan, aurten, Aretxabaleta Abesbatzako hogeiren bat lagunak abestu egingo dute hori dantzarien ekitaldi bitartean.

Zapiak eskuragai

Elkarte bera 30. urteurrenaren ospakizunetan murgilduta dabil abendua ezker, eta, hori aitzakia hartuta, logo berria duten zapiak aterako dituzte. Horiek euskara elkartearen eskuratu ahal izango dira sanmigelen aurretik eta egunean bertan talo-txosna gunean.

Ondo pasa
San Migelak!!

gora
Atxabalta

EGUZKIGRAF zure zerbitzura
inprimategia

Aretxabaleta Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Ifnoa: 943 791 844
E-mail: info@eguzkigraf.com

Jaiei kolorea emateko, azoka

Aretxabaletako San Migel jaietan artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren 29. azoka egingo dute, eta 51 postu izango dira, guztira; inoiz baino gehiago

Imanol Beloki Unamuno

ARETXABALETA

1989an hasi ziren ospatzen sanmigelak Aretxabaletan, irailleko azken zapatuan, eta, aurten ere ez dute hutsik egingo jaiek. Irailaren 27tik 29ra bitartean ospatuko dituzte aretxabaletarrek, eta ekoizleak, artisauak eta herritarrak batzen dituen hitzordu nagusia ere inoiz baino beteago dator. Izan ere, aurten, artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren 29. azoka izango da, eta bertako ganaduaren azokaren hamargarren aldia ere

egingo dute; azken hori, Arlutzeko kantxan. Bi eremuetan proposamen ugari izango dituzte bisitariak.

Inoiz baino postu gehiago

51 postu jarriko dituzte artisauek eta ekoizleak, guztira, Durana eta Mitarte kaleetan eta Herriko Plazan banatuta; inoiz baino postu gehiago. Gazta, eztiak, loreak, haziak, bitxiak, zurezko koilarak, zapatak, ehungintza lanak... Askotariko postuak izango dituzte bertaratzen dituztenek ikusteko, probatzeko

eta, nahi badute, erosteko, eta sasoiko produktuen artean aritzeko tartea ere izango dute azokara bertaratzen direnek. Izan ere, sanmigeletako azokan izango diren postu horietatik guztietatik zortzi izango dira produktu ekologikoak eskainiko dituztenak, eta horietako hainbat herriko ekoizleak jarritakoak ere izango dira, urtero moduan, sasoiko produktuekin.

Herriko artisauak eta ekoizleak

Bertako artisauek eta ekoizleak beti izaten dute lekua sanmige-

letako azokan, eta horietako asko aski ezagunak dira herrian. Aretxabaletako artisauak lau izango dira artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren azokan: Lara Gonzalez, Mari Luz Osorio, Itsaso Aldai eta Izaro Sanchez. Bertako produktuak eta elikagaiak jarriko dituzten ekoizle aretxabaletarrak, berriz, Maria Jesus Revuelta, Jose Lonbide eta Gorca eta Felix Lete anaiak izango dira -Mendibitzu gazta-.

Bertakoen proposamen ugari

Inma Miguelek, Aretxabaletako Udaleko Kultura teknikariak, adierazi duenez, artisautzaren eta nekazaritza ekologikoaren azoka da Aretxabaletako San Migel jaietako izarra, eta urteak pasa ahala hazten joan dela nabarmendu du: "Bertako eta garaiko produktuak kontsumitzeko, erosteko eta dastatzeko aukera ematen du azokak, eta kolorea ematen die azokak berak jaiei. San Migel jaietan oinarrizko zutabea da, eta horren bueltan antolatzen dira gainerako hitzorduak. Iaz baino postu gehiago izango ditugu, gainera, eta, hori positiboa den

arren, gero dena antolatzeko ere ez da samurra izaten. Postu guztiak leku berean, denak batera jarri nahi izaten ditugu, baina espazioa mugatua da. Kontuak kontu, bertako ekoizleak eta artisauak ere izango ditugu beste urte batez azokako protagonista, eta horietako batzuk, produktu bakarra ekarri beharrean, askotariko produktuekin betetako postuak jartzeko asmoz izango dira, bisitarien gozamenerako".

Ganadua Arlutzen

Bertako ganadua gertutik ikusteko aukera ere izango dute sanmigeletako azokara joaten diren bisitariak; ahuntzak, oiloak, behiak eta beste hainbat abere elkartuko dira Arlutzeko kantxan. Galartza auzoko *Zaloña* Aurrekoa baserriko Ibai Alberdik, esaterako, abereak eraman-

HERRIKO ARTISAUEK ETA EKOIZLEEK ERE JARRIKO DUTE POSTUA SAN MIGEL JAIETAKO AZOKAN





Iaz, sanmigel jaietako azokan herritarrek ekoizleekin hizketan. GOIENA

go ditu, eta gogoz dago azoka egunerako: "Euskal Herriko arraza autoktonoekin izango gara bertan; ardi latxak, sasi-ardiak, ahuntz azpigorriak, Euskal Herriko mendi behorrek, pottokak, behi piriniotarrak eta terreña behiak."

Azoka ardatz, hitzordu ugari

Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren zein ganaduaren azokaz gain, ekintza ugari izango dira hilaren 28an: izan ere, 10:00etan, diana izango da Aretxabaletako txistulariekin;

11:00etan, talo-txosna irekiko dute, Loramendi elkartearen eskutik, Mitarte kaleko lokalean; 11:30ean, berriz, Leizarra Musika Eskolako trikitilariak arituko dira kaleetan zehar; 12:30ean, bertso saioa izango da Maddalen Arzallus eta Aitor Mendiluze bertsolarien eskutik, Lekaixoka bertso taldeak antolatuta, Mitartean; 12:45ean, txalaparta saioa izango da, Duranan; baita 13:00etan Iturengo joaldunak kaleetan zehar ere. Beraz, 14:30ean Iturrigorri frontoian egingo den elkartasun

bazkarira arte izango da zer ikusi Aretxabaletako kaleetan zehar. Eta hori gutxi balitz, arratsaldean ere ekintzaz betetako programa dago ezarrita; azpimarratzekoa da berritasun gisa egongo den Repercusion Feminista batukada, 17:00etan hasita, kaleetan zehar.

Loramendikoen talo goxoak

Loramendikoek talo-txosna jarriko dute Mitarte kaleko lokalean. Bertan lagundu gura izanez gero, bertako kideei jakinaraztea eskatu dute.

Bertako ekoizleen presentzia

Maria Jesus Revuelta ekoizle aretxabaletarrak –joan zen astean Euskal Herriko Bertako Tomatearen Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen– ez du hutsik egingo sanmigeleko azokan. Urtero eramaten ditu Eskoriatzan, Erañan, duen nekazaritza ustiatzeko produktuak azokara, eta Aretxabaletan arrakasta izaten



Revuelta, iaz, postuan. GOIENA

duela dio: "Ez dut gogoratzen ondo noiztik, baina esango nuke ortua jarri nuenetik; 12-14 urte izango dira, ordutik urtero joan izan naiz". Beti bezala, garaiko produktuak eramango ditu, Erañazabaleko garaiko barazkiak, eta bi urtarotakoak: batetik, udako barazkiak eramango ditu; hau da: tomateak, piperrak, pepinoak, kalabazak, lekak... Baita negukoak ere: brokolia, esaterako.

Uda gogorra izan dela dio Revuelta, eta, batez ere, tomatearen uzta eragin duela: "Aurtengo uzta ez da hain ona izan. Aretxabaletako Tomatea landatzen dut nik; guztira, 640 landare. Maiatz aldera euriagatik eta lanbroagatik ezin zen lurra ondo prestatu; beraz, berandutu egin da landaketa. Eta gero, abuztuan sekulako beroak egin dituzenez, zoratu egiten dira tenperatura aldaketekin. Bi txandatan banatuta sartu ditut tomateak: lehenengoan, apirilean landatu eta uztail hasieran jasota, tomate ugari eta ederrak jaso ditut; bigarren txandan, berriz, ekain amaieran jarri eta abuztu bukaeran uzta jasotakoan, ez da hain ona izan. Harra eta tximeleta izan dute tomateek, eta, ondo zaindu eta mimatu arren, eguraldia ez da gure esku egoten".

GARAJE NORTE

40

URTE ZUREKIN

Konfiantzari eusten diegu!

EUROREPAR
CAR SERVICE

MULTIMARKA

Mekanika, txapa eta pintura
Marka guztiak konpontzen ditugu
Autoaren zerbitzu osoa

BASABE POL. A 1-3. pab. - 20550 ARETXABALETA - 943 71 20 03

Konfiantzari
entsi!

Urtaroak aldatu
egiten dira, zure
segurtasuna ez.

BETI DA IDEIA ONA
GURPIL-ESTALKIAK
ALDATZEA



Jaietarako gertu daude erraldoiak

50 kilo inguru eta 3,65 metroko garaiera duten panpinek andramaixetan egin zuten lehen kalejira, eta orain, prest daude sanmigeletan dantzan egiteko

Mirari Altube ARETXABALETA

Andramaixetan egin zuten estreinakoz dantzan erraldoi berriek Aretxabaletako kaleetan. Harrera beroa jaso zuten orduan herritarren aldetik, eta irailaren 27an, 18:00etan, bigarren ez ir-teno dira kalera, gaiteroak lagun dituztela. Ordurako, gainera, izena ere izango dute horiek, herritarrek aukeratuta.

50 kilo eta 3 metrotik gora

Erraldoi zaharrak –urteetan kalean ibili den baserritar bikotea– hondatuta daude dagoe-

neko, eta erabiltzeko, gainera, ez dira batere erosoak. Horregatik, aurreko agintaldiko udal ordezkariak berriak enkargatu zituzten eta urtebete pasatxoren ostean kalean dira. Xabi Mendizabal zaharberritzaile eta artista oñatiarrak eta haren lankide Joanes Diez sortzaile eta arotzak egin dute erraldoi bikotea. Bakoitzak 50 kilo ingururen bueltan du eta 3,65 metroko garaiera. Beira-zuntzarekin eginda daude eta olioarekin margotuta: "Badakigu Aretxabaletan beste bi erraldoi

daudela aurretik, biak dira baserritar itxurako pertsonaiak, eta berriak ere halakoak izateko eskatu ziguten. Guk zertxobait moldatu gura izan genituen, eta, horregatik, baserritarrak bai, baina kalerako jantzita irudikatu ditugu; hau da, elegante jantzita", azaldu du Mendizabalek.

Pisutsuak direla onartu du, baina erabiltzeko aurrekoak baino samurragoak: "Barruan duten astoa (kabelletea) handia da, eta dantzan egiterakoan barruan dagoenarentzat eroso

Izenak proposatzeko azken egunak

Erraldoiei izena jarri gura diete, eta herritarrek proposamenak bidaltzeko epea zabalik dago azken asteetan. Irailaren 22a arte egin ahal izango dituzte ekarpenak eta bi bide egongo dira horretarako: Arkupe kultur etxean jarritako kaxan botatzea izenak paper batean idatzita edo online egitea honako formulario honen bidez: <https://labur.eus/erraldaienizenak>. Edonork parte hartu ahal izango du prozesuan, eta proposamenekin batera izen horien zergatia azaldu ahal izango da, nahi izanez gero.

Kultura Saileratik adierazi dute dagoeneko jaso dituztela mordoxka bat. Behin epea bukatuta guztien artean bi hautatuko dituzte eta sanmigeletarako jakinarazi diete herritarrei.

izan dadin pentsatuta daude". Mendizabal eta Diez hainbat lagunekin izango dira datorren egubakoitzean Aretxabaletako kaleetan erraldoiei dantzan eragiten.

Konpartsa sortzeko gogo

Behin erraldoi berriak izanda, haien ardura izango duen talde finko baten gogoia agertu da orain. "Beharbada, teilatutik hasi ditugu lanak; izan ere, erraldoiak izatea eta konpartsarik ez... zentzurik ez duen zerbait dirudi", adierazi du Ibai

Zangitu Arroyok, Udaleko Kultura zinegotziak. Gainera, erraldoiak eta buruhandiak kalera irten daitezten boluntario bilaketa urteroko buruhaustea izan ohi da, eta horri irtenbidea topatu nahia ere badago.

Erraldaien bueltan hainbat konpartsatari ibili den Andoitz Gomez Iturbe gaztea Aretxabaletako konpartsa baten ilusioz dago, eta laguntzeko gertu, gainera. Hala, ate irekien saio bat egiteko asmoa dute, "probatzeko eta entseatzeko", baina, oraingoz, ez dago datarik zehaztuta.





Erraldoi bikotea Durana kalean dantzan, andramaixetan. AITOR AGIRIANO

"Bati eta besteari galdetuta, jendea badago konpromisoa hartzeko prest, baina talde bat egitea da asmoa. Bakoitzarekin bi edo hiru lagun derrigor behar direlako", dio Zangituk.

Harrobia sortu

Konpartsa sortzeko ezinbestekoa da hazia ereitea eta zaletasuna piztea ume zein gaztetxoengan. "Ideien artean badugu erraldoi ertain batzuk sortzea, aurrekontuetan sartzen bazaigu, behintzat; gaztetxoek, 12-14 urte bitartekoek, erabil ditzaten. Izan

ere, konturatu gara gure herrian ere badagoela zaletasuna", azaldu du Zangituk. Erraldoiek besteko ikusmina pizten dute buruhandiek umeengan, eta haiek egiten ikasteko saio bat baino gehiago egin dute; azkena gaur izango da, eta bete egin da. Leku barik geratu direnen izenak jasotzen dabilta, aurrerago beste bat antolatzeko asmoz.

Gaiteroak ezinbesteko

Konpartsa batean ezinbesteko pieza izan ohi dira gaiteroak, eta Aretxabaletako taldea "go-

gotsu" dago herrikoaren parte izateko. "Ez da samurra izango hutsetik sortzea hori, baina ahaleginduko gara", adierazi du Gari Iturbe kideak.

Sanmigeletan beste zeregin batzuk ere izango dituzte gaiteroek: Larrin dantza saioa gitorzea zapatuan, Beinke-Loramendi dantzaren ostean, eta herritarren esnatzea domeka goizean. "Azken horretara Arrasatekoak ere gonbidatzen ditugu eta herria punta batetik bestera zeharkatuko dugu jai giroa zabaltzeko".

"Erraldoiak eramateko nahikoa da pisuarekin ibiltzera ohitzea"

ANDOITZ GOMEZ ITURBE KONPARTSETAKO KIDEA

Hainbat konpartsatako kide izan da Andoitz Gomez Iturbe (Aretxabaleta, 2008), eta orain herrian sortu gura du.

Erraldoien bueltan umetatik, ezta?

Bai; 4 urte nituela hasi nintzen Arrasaten eta 7 urterekin Bergarako konpartsan sartu nintzen; gero, Euskal Herriko hainbatekin jardun dut.

Zein da zure egitekoa konpartsetan?

Erraldoiekin gozatu eta haiek dantzan jartzea, hori izan da nire egitekoa beti.

Erraldoi berriak gustuko dituzu?

Bai, bai, eta herritarren gustuko izan direla uste dut. Zaharrak baino zertxobait pisutsuagoak dira, baina orekatuagoak eta eramateko samurragoak.



ANDOITZ GOMEZ

Orain konpartsa bat sortu gura da herrian.

Bai; gogo hori aspaldi neukan eta aurrera doa. Hala, irteerak ere egin ahal izango lirateke. Ni, adibidez, Katalunian eta Madril inguruan egon izan naiz eta uda honetan Valladoliden, Lekunberriko konpart sarekin.

Jendea animatzeko zer esango zenuke?

Erraldoiak ateratzeko praktika apur bat bakarrik behar dela, dantza entsegu batzuk pisua eramaten ohitzeko eta listo. Ate irekien saio bat egin gura dugu probatzeko.



NAI
ARKITEKTURA ETA BARNE DISEINUA
Garaio Agiriano Iturbe

Bizitzaz beteriko espazio pertsonalak

ARKITEKTURA ETA BARNE DISEINUA

www.nai.eus

639460726

info@nai.eus

Santakurtz Kalea, 27, bajo, 20550 Aretxabaleta



Aretxabaleta Abesbatzako kideak, parrokian, eguazteneko entseguan. MIRARI ALTUBE

'Katuska' zarzuela, oraingoan antzeztuta

Pablo Sorozabalen lan liriko ezaguna egingo du Aretxabaleta Abesbatzak sanmigeletako domekan parrokian; ez da obra berria abeslariarentzat, baina oraingoan Errusiara eroango dituzte ikusleak, arropa zainduta eta antzezpenean murgilduta

Mirari Altube ARETXABALETA

Zarzuclaren alde egin dute aurtan Aretxabaleta Abesbatzako kideek sanmigeletan herritarren aurrean abesteko, eta Errusiako Iraultzan kokatutako amodiozko istorio bat aurkeztuko dute: *Katuska, errusiar emakumea*. 1931n estreinatutako Pablo Sorozabalen obra liriko ezaguna beste hainbatetan ere abestu izan dute, 1995ean eta 2014an, esaterako, baina oraingoan antzezpenera ere ez diote uko egin, Angel Barandiaranen esanetan: "Aurrekoetan gelditu abestu izan dugu, musikan jarrita arreta. Oraingoan bisualagoa izango da; antzezpene ez dakit, baina mugimendua egingo da. Eta arropa ere zainduko dugu; garaira egokitzen saiatzen gabiltza". Onartu du erronka handia dela: "Partiturarik gabe abestuko dugu eta".

Franzesena aita-semeak lagun

Katuska neskatxaren eta Stakof koronelaren arteko amodio istorioa kontatuko du abesbatzak. Bakarleri lanetan hainbatek jardungo du: Mari Karmen Etxeandia izango da pertsonaia nagusia, Katuska; Javier Liza-

razu, Sergio printzea; Imanol Aizpurua, Pedro Stakof koronela; eta Mainer Garai, Olga pertsonaia. Narratzaile figura ere egingo da: "Istoria lotzen joango den haria izango da, ekinaldi bakoitza bestearekin lotuko duena, eta pertsonaiak aurkeztu". Zuzendari ardura, ostera, Mariatxen Urkiak izango du.

Emanaldi askotan bidelagun duten Jose Luis Franzesena azpeitiarrak ez du hutsik egingo oraingoan ere, pianoan, eta, gainera, haren seme Unai perkusioan izango da.

Irailaren 29an parrokian

Andre Marian Zeruratze parrokian egingo dute emanaldia – pilotalekuan beharrean –, irailaren 29an, 19:00etan. "Oholtza txiki bat prestatu dugu harako, eta kokagune hori erosoagoa da guretzat, mikrofonorik ere ez dugu-eta beharko". Egunotan buru-belarri dabilta entseguetan, "ilusio handiarekin".

Beste urte batzuetan legez, ez da sarrerarik hartu beharrik izango, eta herritarrak gonbidatu dituzte "merezi izango duelako".



ondo
ospatu
Sanmigelak!!

**ALDERDIA
GARA** ALDERDI EGUNA 2024
IRAILAK 29, IGANDIA / TORONDA

ej-pnv.eus





Gemes

Irudi aholkulariak

Ondo ibili sanmigela!!



CAPENERGY
Aurpegi eta gorputz tratamendu inobatzaileak!
Zatoz probatzera!



Ilargi plaza 2, Aretxabaleta • 943 79 99 18



Aretxabalelako komertzioa bizirik! Egin dezagun aurrera denok batera! Gora sanmigelak!



Herri kirolen diziplinak ikusteko erakustaldia

Domekan, irailaren 29an, herri kirolen txanda izango da, ohi legez. Herriko Plazan elkartuko dira erakustaldirako Aratz Mugerza, Irati Astondoa, Jesus Maria Mujika, Uxue Ansorregi, Jon Unanue 'Goenatxo' eta Jose Martin Bustinza Olabarria 'Tubi'

Imanol Beloki Unamuno

ARETXABALETA

Aretxabaleako San Migel jaie-tako domekan Herriko Plazan izaten den herri kirolen saioak ez du hutsik egiten. Gustuko izan edo ez, bertaraten diren kirolariek egiten duten erakustaldia ikusteko modukoa izaten da, eta aurten ere ikuskizuna ematen izango dira datozenak. Kirolari talde zabala batuko da Aretxabaleako plazan, eta erronka gogorrei egin beharko diete aurre.

Helburua, maila ematea

Herri kirolen hainbat diziplinatan aritzen diren kirolariak



laz egindako herri kirolen saioan harri-jasotze proba. GOIENA

batuko dira irailaren 29an 13:00etan hasiko den erakustaldian, eta honako kirolari hauek hartuko dute parte: Aratz Mugerza, Irati Astondoa, Jesus Maria Mujika, Uxue Ansorregi, Jon Unanue *Goenatxo* eta Jose Martin Bustinza Olabarria *Tubi*. Lau aizkolari, harri-jasotzaile bat eta lasto-jasotzaile. Kirol guzietan bezala, bere maila eskatzen dute herri kirolek, entrenamenduak eta konpromisoa, eta, beraz, atzeko lan guztia ateratzen saiatuko dira jendaurrean.

Egin beharreko probak

Egingo dituzte probei dagokienez, ariketa hauek egingo dituzte: aizkora, harrien altxaketa, trontzan sei ebaketa bikoteka, 25 kiloko txingekin sei itzuli eta hogeituzi korrika. Horrekin batera, Jon Unanue *Goenatxo*-k harri handiekin altxaketak egingo ditu eta Jose Martin Bustinza Olabarria *Tubi*-k, berriz, Iparraldeko jokoak, fardo altxaketa eta orga jokoak atzeko aldetik hartuz eta gurpilek lurra jo gabe, orgari birak emango dizkio.

Bola-jokoa izango da haurrentzat zein helduentzat

Irailaren 28an boloak izango dira nagusi. Izan ere, 17:00etan, haur eta gazteentzako bola-txapelketa jokatu da Aretxabaleako bolatokian, eta 22:30ean, berriz, nagusientzat antolatutako txapelketa izango da. Bi lehiak hasi aurretik, pixka bat probatzeko, ordu bete lehenago ireki-ko da bolatokia.

Haur eta gazteen artekoan, 14 eta 18 urte bitartekoan gazte mailako txapelketa jokatu da eta infantilen kategorian 14 urte artekoak arituko dira. Sariak ere jasoko dituzte emaitza onenak lortzen dituztenek: diru apur bat eta kamisetak. Helduen txapelketan, berriz, hamar euro ordaindu beharko du izen-ematea jokatu nahi duenak, eta, sariei dagokienez, lehenengo postua lortzen duenak 100 euro eta urdaiazpikoa jasoko ditu eta bigarren sailkatuak, 75 euro eta urdaiazpiko-besoa. Horiek izango dira sari nagusiak, nahiz eta bosgarren sailkatura arte banatu dituzten sariak.

San Migel jai zeriontsuak!

ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA

Fiskala
Kontablea
Juridikoa eta laborala

Araba ibilbidea 20A, behea • Aretxabaleta • 943 79 29 26 • joseluis@asesoriaandramari.com



Gora
sanmigelak!

AREDER ARRANDEGIA

MITARTE 1 • ARETXABALETA • 943 77 13 79 • 636 02 39 96



Herrikidek, ARLO GUZTIAK landuz, jabeen komunitateen kudeaketan lan egiten du; jabeen lasaitasuna bermatuz eta, betiere, zerbitzuan PRESTUTASUN osoa bilatuz.

Hurbil egoteak ematen duen erosotasunaz baliatuz -Aretxabaletan gaude- zure komunitatea zentzuz eta arduratsu kudeatzen dugu. Horretaz aparte, beste balio bat dugu: eraikuntzan eta lan arloen zuzenketan urte askotako esperientzia (ezbeharrak, dokumentazioa, laguntzak...)

Ondo ibili jaietan!

 **HerriKide**
Komunitateen kudeaketa

Basabe,4 - EO-11 20550 Aretxabaleta
Tel./Faxa: 943089875 / Tel.: 679455764
herrikide@outlook.com
www.herrikide.net



San Migelak 2024

Jai
zerioentsuak
herritar
guztiei!



Aretxabaletako
Udala

Aurtengo Sagardo Eguna, goizeko ordu txikiak arte

Kalean elkartuko dira bihar elgetarrak. Tokiko ekoizleen azoka, Intxortako igoera, patata-tortilla lehiaketa eta aurten nobedade diren kafe antzokiko kontzertuak daude iragarrita. Abuztu osteko herri mailako lehen ospakizuna izango da

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Irail erdialdeko klasiko bat da, eta, ohiko osagai guztiez gain, kontzertu-gaua ere izango du aurten Sagardo Egunak. Bihar, zapatua, tokiko ekoizleen azoka (10:30), umeendako tirolina (10:30), Intxortako igoera (11:00) eta patata-tortilla lehiaketa (18:00) izango dira herrian. Nobedade nagusia aurten gaueko kontzertuak izango dira. Espaloia kafe antzokian izango dira, 21:30ean, eta Bengo, DMT, Emeka, Golden 21K, North School eta Etxepe arituko dira. Ondoren, eta goizera arte, DJ Oier Mendizabal arituko da.

Hainbat eragile elkarlanean

Gaszte Asanblada, Mendi Mendia Racing eta Udala elkarlanean aritu dira eta egitarau bateratua atera dute. "Uztailean hasi ginen lanean", azaldu du Gaszte Asanbladako Unai Andresek. "Pozik. Uste dut lorpen handia dela eragileekin batera eguna aurrera ateratzea", gaineratu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak.

Goizez azoka eta karrera

Tokiko ekoizleekin egindako azoka 10:30ean hasiko da eta dozena bat postu aurreikusten dira. Umeendako tirolina ere egongo da, udaletxetik plazara jaisteko, eta 11:00etan herritarren artean ikusmin handia sortzen duen Intxortako igoera jokatu da. Parte hartzaileek egunean bertan eman behar dute izena. Errekorra ondu nahi dutenendako bi dira erreferentziak: 2015etik Eleder Lozanok du gizonzkoen markarik onena (16.14) eta iaz ondu zuen emakumezkoen denborarik onena Nerea Goi-coetxeak (22.38). "Lehia bizia egoten da Intxortako igoeran, eta txikiendako egiten dugun Salvador igoeran ere bai. Pozgarria da hainbeste jende parte hartzen ikustea", esan du Unzetabarrenetxeak.



Unai Andres, Ibon Unzetabarrenetxea eta Paula Palacios kartelarekin. L.Z.L.

KAFE ANTZOKIKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK SALGAI DAUDE; PREZIOA 15 EURO DA

Tortilla lehiaketa arratsaldean

Oso bestelako lehia izango da patata-tortilla lehiaketak eragingo duena, baina hura ere jendetsua izatea aurreikusten da. 18:00etako kanpai hotsekin emango diote hasiera, plazan, eta parte hartzaileek ordu eta laurdeneko tartea izango dute ahalik eta patata-tortillarik goxoen egiteko. "Tortilla guztiek mahai gainean beharko dute 19:15erako", azaldu du Elgetako Gaszte Asanbladako Paula Palacios. "Iaz 31 bat taldek hartu zuten parte. Talde asko dira". Izen-ematea zabalik da Haizea tabernan. Gogoratu epaimahaiak zaporea eta itxura baloratuko dituela eta azken sailkatuarendako sari berezia ere egongo dela. Antolatzaileek mahaiak jarriko dituzte; sua, ontziak eta osagaiak parte hartzaileek jarri behar dituzte.

Kontzertu-gaua Espaloian

Sagardo Eguna borobiltzeko, kontzertu-gaua izango da aurten antzokian. 21:30ean zabalduko dituzte ateak antolatzaileek. Bengo, DMT, Emeka, Golden 21K, North School eta Etxepe arituko dira. Ondoren, eta goizera arte, DJ Oier Mendizabal arituko da. "Ikusten genuen gau parterako zerbaite antolatzea falta zela, eta Mendi Mendia Racing (MMR) taldetik animatu gara horretara. Beste musika estilo bateko kontzertuak antolatu izan ditugu orain arte, baina gazteen artean modan dagoen rap-trap estiloaren alde egin dugu oraingoan. Ea zelan doan", dio MMRko Mikel Beretxinagak.

Sarrerak salgai daude, 15 eurotan, Elgetako Janela tabernan, Arrasateko Osorik tabernan, Bergarako Arrano tabernan eta Eibarko Katu Kale tabernan.

Parte hartzeko deia

Parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek. "Parte hartzeko aukera zabala da; azokan postua ipiniz, azokan erosketak eginez, karreraren parte hartuz, patata-tortilla eginez edo kontzertuez gozatuz", esan du alkateak.

Emakume topaketa, pilota jaialdi profesional baten bueltan

Herriko hainbat eragilek egun osoko egitaraua gertatu dute hilaren 28rako; bazkarirako txartelak salgai daude

L.Z.L. ELGETA

Neskak, mugituko ga denak batera? lelopean kirol saio bereziak, zumba eta luzaketa saioak, bermut-tertulia, bazkaria eta pilotari profesionalen parte hartzearekin egindako eskupilota saioa iragarri dituzte antolatzaileek. "Udara CaixaBank txapelketan ibilitako pilotarien partiduak izango dira herrian, eta horrekin lotuta egun osoko egitaraua prestatu dugu hainbat eragilek", azaldu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. Amantalak talde feminista, Gazte Asanblada, Fronte-

nis Elgeta taldea eta Udala ari dira elkarlanean. 18:00etan izango dira pilotari profesionalen partiduak, frontoian. Aurretik egingo dira gainerako jarduerak. Maite Ruiz de Larramendik, Mariasun Yurritak eta Gloria Agirrek (*Txikita de Aizarna*) hartuko dute parte bermut-tertulian. "Ondotik egingo den bazkarirako txartelak salgai daude farmazian zein Haizea tabernan", azaldu du Amantalak talde feministako kide Jone Arbuluk. Prezioa 8 euro da. Txartelak erosteko azken eguna hilaren 26a da.

Boluntarioa behar da podologia zerbitzuak jarrai dezan

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak boluntario bat behar du podologia jardueraz arduratzeko. Pertsona horren zereginak izaten dira: hitzordu-eskaerak telefono bidez jasotzea, antolatzea eta hilean behin 14:30etik 20:00etara egiten den kontsulta-egunaren jarraipena egitea.

Interesatuak 650 50 58 99 telefono-zenbakira deitu behar dute urriaren 14a baino lehen. Boluntariorik aurkezten ez bada zerbitzua bertan behera geldituko dela jakinarazi dute Xalbadorpe elkarteak. Hilean behin egiten da kontsulta eta hoguei bat lagun pasatzen dira bertatik. Eskaria duen zerbitzu bat galdu egingo litzateke.

Squash pista itxita, frontoiko teilatuko lanen ondorioz

Udala frontoiko teilatua inpermeabilizatzen ari da. Imperterkia enpresako beharginak ari dira horretan, eta lanok ia 44.000 euroko aurrekontua dute. "Itogin arazoak atzeman ditugu Udalaren plaka fotovoltaikoak zeuden teilatutatik zatian ere, eta Ixotzen instalazioa jartzen hasi aurretik teilatutako zati hori ere ondo impermeabilizatzeko erabakia hartu dugu", azaldu du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. Hala, Udalaren instalazio fotovoltaikoko plaka guztiak aldi baterako erretiratu dituzte eta kiroldegiko squash pistan daude pilatuta. "Lanek irauten bitartean squash pista ez da erabilgarri egongo", esan du alkateak.

OHARRAK

Mendi irteera domekan

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, udako etenaldiaren osteko lehen irteera Gernika aldera izango da, Maiaga (403 metro) igotzeko. Taldea 08:00etan abiatuko da, plazatik.

Batzar irekia gaztelekuan, gaur

Batzarra 19:00etan da eta deituta daude 2008 eta 2012 urteen artean jaiotakoak. Ikasturte berrira begirakoak landuko dira.

Euskal dantzen ikastaroetarako izen-ematea

Saioak urriaren 4an hasiko dira, baina izen-ematea irailaren 27ra arte dago zabalik udaletxean. HH-3 eta DBH arteko gazteendako da.



Udaleko Langileen Batzordearen agerraldia udaletxe azpian, irailaren 13an. IÑIGO BARRENA

Gobernuaren zain daude, negoziatzen jarraitzeko

Langileen Batzordearen eta Udal Gobernuaren arteko gatazkan ez da aurrerabiderik izan asteon, langileek GOIENARI adierazi diotenez: "Erantzunaren zain gaude; asteon ez badago berririk, datorren astean berriro elkartuko gara, aurrerantzean zer egin erabakitzeko"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Udaleko Langileen Batzordearen eta Gobernuaren arteko gatazkak San Martin jaien atariko egoera berean jarraitzen du, edizio hau ixterako GOIENAK Langileen Batzordearekin ziurtatu duenez: "Udal Gobernuaren erantzunaren zain jarraitzen dugu. Aste honetan ez badago berririk, datorren astean langileok berriro elkartuko gara, aurrerantzean zer egin erabakitzeko".

Udal langileek azaldu dutenez, 2022tik ari dira Udal Gobernuari lan hitzarmena berritzeko euren esker daitezela eskatzen, eta irail hasieran publiko egindako bost eskaerak bere horretan jarraitzen dutela diote.

Langileen bost eskaerak

Honako hauek dira Udaleko langileen bost eskaerak: lehena da negoziazio mahaiaren funtzionamendu ordenatu eta gardena bermatzea, mahai hori lanerako "tresna eraginkorra" izan dadin; bigarren eskaera da 2024. urtea amaitzerako egungo lanpostuen balorazio orokorren prozesua amaitua izatea; hirugarren eskaera da lantaldearen belaunaldi aldaketa gauzatu ahal izateko Plan Estrategikoaren proposamena egitea eta 2024ko urria amaitzerako onartzea; laugarren eskaera da hitzarmen berria negoziatzeko egutegia adostea; eta, azkenik, Langile Batzordearen bosgarren

eskaera da kontratazio politikak aldatzeko plana zehaztea.

Langileen agerraldia udaletxean

San Martin jaien bezperatan, irailaren 12ko arratsaldean, egin zuen eztanda albisteak, Udal Gobernuak ohar bidez jakinarazi zuen eta bertan behera utziko zuela azoka (Ikus 52. orria). Azoka suspenditzeko arrazoia izan zen, Gobernuaren arabera, Udaleko langileek irailaren 12an eta 13an egin zituzten lanuzteak. Izan ere, Gobernuak ohar bidez azaldu zuen Langileen Batzordearekin izandako harremanetan aurrerabiderik ez zela izan, eta, nahiz eta beste irtenbide batzuk aztertu, ez zutela feria bertan

behera geratzea baino beste alternatibarik topatu.

Egoera horren aurrean, agerraldia egin zuten hilaren 13an udaletxe azpian. "Ez dute egoera bideratzeko saiakerarik egin; ulertzen dugu feria egiteko saiakera egitea, baina ez zaigu bidezkoa iruditzen langileez ahaztu izana. Gobernuak ez du langileok bizi dugun egoera ezagutzen", esan zuen batzordeko ordezkari Iñigo Arregik. Gaiaren gaineko iritzia ematea eskatu dio asteon ere GOIENAK Udal Gobernuari, baina ez dute adierazpenik eman nahi izan.

EAJk ez zuen gatazkaren berri

EAJk Udal Gobernuaren "gardentasun eta informazio falta" salatu zuen. "Guk, herriaren ordezkari izanik, ez dugu inolako informaziorik jaso udal langileek Udal Gobernuarekin duten gatazkaz, eta honen berri jakin dugu beharginek kalean egindako mobilizazio eta propagandaren bitartez", adierazi zuen EAJko bozeramaile Mikel Letek.

Horrez gain, erantsi zuen Langileen Batzordearekin bilera eskatu zutela, zuzenean gatazkaren berri izateko, baina oraindik ez dutela egunik. Hala, nabarmendu zuten Udal Gobernuak "gehiengo absolutuaz baliatzen" dela: "Nahikoa dituzte euren botoak, eta ez dute ahalginik egiten oposizioarekin gobernantza eraikitzailea egiteko. Orain arte erakutsi dute kudeaketan ezintasun asko dituztela, baina orain, argi utzi dute gatazkak konpontzen eta akordioetara iristen ere ez dutela gaitasunik. Ez ditugu ulertzen Gobernuaren aurreikuspen falta, negoziaketa bideratzeko utzikeria eta elkarriketarako gaitasunik eza".

Pentsiodunak plazara itzuliko dira irailaren 23an, 12:00etan

Udako geldialdiaren ostean, irailaren 23an itzuliko dira pentsiodunak San Martin plazako elkarretaratzetara (12:00): "Plazara itzuliko gara, guztiendako pentsio duinak aldarrikatzera, osasun eta zainketa zerbitzua publikoa, unibertsala eta kalitatekoa izan dadin. Sei urteko borroka ez da nahikoa izan gobernari jarra aldatzeko, eta ahalginak areagotu egin behar ditugu. Ahalik eta jende gehien erakartzen eta konbentzitzen saia gaitez, dauzkagun erronkek merezi dute". Erronken artean dituzte, besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, KPIaren arabera oinarrituko igoera eta Gizarte Segurantzaren auditoria bat egitea.

Izena eman daiteke udazkeneko literatura solasaldietarako

Jardunek eta Udalak literatura solasaldiak antolatu dituzte udazkenetarako, Udal Liburutegiaren laguntzarekin. Mikel Antzak gidatuta, hiru saio antolatu dituzte Irizar jauregian (18:30): urriaren 23an, Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materialak* liburua izango dute hizpide –liburutegian eskura daiteke–; azaroaren 20an, Mikel Zubimendiren *Han egon zen* –Jose Luis Elkororen gaineko liburua–; eta, azkenik, abenduaren 18an, Xamar-en *Etxera bidean* liburua izango dute berbagai.

Izena eman daiteke Udal Liburutegian (943-77 91 62) edo Jardunen Oxirondoko egoitzan (943-76 36 61 edo 605 71 24 69).



NIRE USTEZ

MAMADOU SARR

Mugikortasun eskubidea

Nora joan zara oporretara? Inguruan asko dira hara eta hona ibili direnak; Peru, Kenya, Thailandia... Batzuek azken orduan, beste batzuek denboraz, euren kabuz edo bidaia agentzian antolatu dute ametsetako bidaia. Maleta txiki edo handiagoarekin, pasaporte eskuan, erraztasunez pasa dituzte herrialde desberdinetako kontrolak helmugara iritsi

arte. Jakin berri dut 200 gazte senegaldarrek bizitza galdu zutela itsasoan Europara bidean. Berrogei bat gorpuk bakarrik aurkitu dituzte oraindik. Mbourreko hondartzan, familiakideak beraien senideen gorpua noiz agertuko zain. Milaka familia, aurrezki eta ilusio txaluparekin batera hondoratuta. Tristura, amorrua... Zergatik ez ditugu bidaiatzeko

erraztasun berak itsasoaren beste aldean jaiotzeko? Leku batean edo bestean jaiotzeko zergatik determinatzen du mugikortasun eskubide maila? Migrazio irregularra amaitzea bada benetako nahia, mugitzeko bide segurua zabaltea da bide bakarra. Jon Maiak *Arrazioak* testuan idatzi zuen bezala: *Gure lurra zuena bada, baita zuena gurea ere.*

OHARRAK

Txapa: bilera irekia

Irrati librekoak zabalik daude saio berrietara; bilera irekia deitu dute hilaren 22rako, kartzela zaharrean (19:00).

Nabarralde: antzerkia

Orreagatik iragan hurbilera obra bihar Seminarixoan (20:00). DBHko eta batxilergoko ikasleek, doan; gainerakoek, zortzi euro. Sarrerak: *seminarixoa.eus*.



Xabi Labaien, Lisker taldearekin zuzenean, teklata jotzen. ARNO



Soinu teknikari lanean, Bergarako Musika Eskolan. F. OREGI



Sanmartzialetan abesten, umetan. A.L.

Soinuaren "artista eta iratxoa" omenduko dute

2023ko uztailean hil zen Xabi Labaien musikari eta soinu teknikaria omenduko dute bihar kartzela zaharrean (18:30), eta, besteak beste, Lisker eta Seska taldeek joko dute: "Jende askorekin kolaboratu zuen eta ezingo gara guztiok batu, baina gertukoena egongo gara"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Egun berezia bezain hunkigarria biziko dute bihar, irailak 21, Xabi Labaienen senitartekoei eta gertukoek, omenaldia egingo diote eta kartzela zaharrean (18:30). 2023ko uztailean hil zen musikari eta soinu teknikari bergararra, 59 urte zituela. Gaztetan, Seska taldean eta Mikel Herzog musikariarekin aritu zen, eta, gerora,

Eibarko Lisker taldean teklata jo izan zuen. "Garai politiko zailenetan, euskara ia galarazita zegoenean, euskara ezagutzera emateko sekulako lana egin zuen Liskerrek", azaldu du haren lagun Hilario Manzanedok. Soinu teknikaria ere bazen Labaien, eta, besteak beste, Mikel Urdangarriekin eta Taun Taun txotxongilo taldearekin aritu zen; Goiena

Komunikazio Taldeak antolatzen duen Danbako Musika Lehiaketako soinuaz ere arduratu izan zen 2004tik 2022ra bitartean egin ziren bost edizioetan.

Gaupasak Danbakarentzat

Labaienen senitarteko Amaia Labaien eta Taun Taun taldeko Iñaki Mata aritu dira, besteak beste, biharko omenaldia anto-

latzen: "Xabiren hutsunea toki askotan igarriko zuten... Saiatu gara omenaldirako horiek guztiak batzen, baina ziur ezingo direla guztiak etorri. Jende askorekin kolaboratu zuen, eta ezinezkoa izango da denok batzea, baina ziur Xabiren gertukoena bertan egongo gara".

Labaienek "sekulako lana" egin zuela diote: "Detaile txikiak ere zaintzen zituen, sekulako sortzailea zen; gehienetan itzalpean aritzen zen, baina agertokira igo behar zenean *showman*-a ere bazen, sekulako barreak eragiten zizkigun. Artista hutsa zen, letra larriz idatzita". Labaienen "inurri-lanaren" adibide gisa jarri du Danbakarako egin zuen lana Amaia Labaienek: "Gogoan daukat gaupasak egiten zituela Danbakako zuzenekoena pistak Goienari denboraz eta txukun emateko. Langile nekazina zen,

beti iratxo baten antzera lanean, eta ume baten arimarekin".

Lisker bihar, besteak beste

Omenaldian argazkiz osatutako bideoak eta zuzeneko musika izango dira protagonista: "Liskerreko partaide guztiak egongo dira; sekulako ilusioarekin datoz. Seska ere izango dugu agertokian... Hortaz, festa ederra egingo dugu lagunartean". Festaren aurretik, berriz, senitartekoei elkartzeko dira, errautsak botatzeko, eta, horren ondoren, Artatsen bazkalduko dute 50 bat lagunek.

MUSIKARI IZATEAZ GAIN, SOINU TEKNIKARI GISA HAINBAT PROIEKTUTAN HARTU ZUEN PARTE

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

21
K
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº 000525

**ION
ANDER
CASTRO
ZABALA**

Era guztietako
aulkien konponketa
Zumezko
artikuluen salmenta

TAPIZERIA
OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

SANMARTINAK 2024 BERGARAN



Helduen danborradaren amaiera, herritarrez lepo bete zen San Martin plazan. ARGAZKIAK: OIHAN LOITI ETA AITOR AGIRIANO

la feria bako jaiekin hasi ostean, osagai guztiekin gozatutako sanmartinak

Udaleko langileen lanuzteengatik, Udal Gobernuak "bertan behera" utzi ostean, ekoizle talde batek antolatu zuen San Martin feria, Oxirondon. Beste ekintzetan herritar ugari egon ziren; tartean, "inoizko jendetsuena eta gazteena" izan den danborradan

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Isildu dira danbor hotsak, amaitu dira sanmartinak. Asteburu bakarrean izan dira aurten, eta, nobedadeen artean, feria Oxirondon egitea erabaki zuen Jai Batzordeak. Baina lekualdaketa baino gehiago, azoka bera suspenditzear egon zela izan zen albiste; arrazoa, Udaleko langileen lanuzteak, haien eskaerek aurrerabiderik eman ez zutelareta (Ikus 50. orria). Ekoizle talde batek antolatu zuen, azkenean, azoka, eta, eguraldia eta talo zein odoloste postuak lagun, normaltasunez egin zen; tailerrak ere egin ziren.

Bestalde, helduen danborrada "inoizko jendetsuena eta gazteena" izan zen. Antolatzaileen arabera, 900 bat lagun mugiarazi zituen ekitaldiak; berrietasuna izan zen bandak zuzenean jo zituela martxak, eta horrek

are bereziago egin zuen. Umeen danborradan 300 bat haur eta gaztetxok hartu zuten parte. Gainera, Moises Azpiazuren omenezko dantza txapelketa irabazi zuten, beste behin, Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok; lesio bat tarteko prestakekin berandu hasi arren, bikoite bergararra izan zen onena.

Balorazioak: Udala eta Xaxau

Udaleko Kultura zinegotzi Maitte Usabiagak "lehen inpresioen" berri eman du: "Behin-behineko balorazioa oso positiboa da. Oso jai jendetsuak izan dira, giro oso sanoan igarotakoak. Ekintzaz beteta zectorren egitaraua eta guztietan egon da parte-hartze handia. Eraso matxistei aurre egiteko arreta-gunean ez da emakumerik artatu behar izan, eta hori ere seinale ona da". Xaxauk ere dio jaiak "oso ondo" joan

direla: "Ekintzetara adin askotariko bergararrak joan dira; herri bazkarira jende asko etorri zen, eta oso pozik gaude, guretzat lan handia delako. Udazkenean hasiko gara Pentekosteak antolatzen".

ZUZENKETA

Arazo teknikoak tarteko, joan den irailaren 13ko aldizkari honetako 33. orria ez zen zuzen argitaratu. GOIENAK barkamena eskatzen die irakurleei eta San Martin feriarene gaineko erreportajea lantzeko kazetariak baliatu zituen informazio-iturriek.



San Martin feriarene gaineko informazio zuzena irakurtzeko, eskaneatu QR hau.



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga irabazle Moises Azpiazuren omenezkoan.



Umeen danborradan, 300 partaide.



Sokamuturrak ikusmina piztu zuen.



Ekoizle talde batek antolatu zuen, azkenean, azoka; Oxirondon egin zen.



Bertako produktuekin egindako bazkari "jendetsua" Muniben, Xaxauk antolatuta.




UDAKO ARGAZKIEN 20. GOIENA LEHIAKETA

Parte hartzeko azken egunak!

Bidali zure argazkiak irailaren 23ra arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu 'Goiena.eus'-en.



Argazki gutxiak kanali berezi honetan:
<https://faber.eus/udakoargazkiak-2024>



Eguzkentia Marsoilan
Argazki: Gorka Bikurko | Oñati



Deskonezioa, Etang de Moisan-Frantzia
Argazki: Kristina Pozo | Bergara



Olarizura Bidean
Argazki: Goraz Eritz | Arasoia



Euria ari du Londresen
Argazki: Maier Etxebarria Gutierrez | Aretxaboletta



Guardo, Palentzia
Argazki: Ruth Rueda | Arrasate



Calatafrazor, Soria
Argazki: Garazi Ojangueren | Elgeta



Corella, Nafarroa
Argazki: Dier Aliaga | Arrasate

ANTOLATZAILEA:
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



Energia-komunitatea sortzeko bidea hasi dute

Herritarrek sortuko dute energia-komunitatea Oñatin sortzekotan, eta eratze prozesu horren lehen bilera irekia egin dute astean. Sortze prozesu horretan bidelagun izango dute Udala, dinamizazioa eta aholkularitza eskaintzeko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Energia-komunitate batek izan ditzakeen aukerak eta onurak zeintzuk diren eta energia-komunitate bat sortzeko prozesuaren pausoak azaldu dituzte astean, gai horri buruz egindako lehen informazio bilera irekian. Herritarrendako bilera zen, eta jakin-minez jarraitu zituzten azalpenak joandakoek. Herritarrekin batera sortuko da energia-komunitatea Oñatin, sortzen bada, eta eurak izango dira sortze prozesua aurrera eramango dutenak, Udalaren laguntzarekin. Prozesua amaitutakoan ikusiko dute energia-komunitatea eratzten den edo ez, eta eratzekotan, nola.

Taldearen autonomia

2023-2024ko partaidetzazko aurrekontuetan herritarrek proposatu eta aukeratutako proiektua da herritarrek energia-komunitateak sor ditzaten Udalak prozesua erraztea, eta Udala bidelagun izango dute horretan.

Hala, prozesu horretan laguntzeko 40.000 euro bideratuko ditu Oñatiko Udalak; aholkularitza eta dinamizazio lanetarako, zehazki. Eta, hain zuzen ere, Aise kooperatibako kideak eta Goienerreko kideak ere egon dira astean egindako lehen bileran, dinamizazioaz arduratuko delako lehena eta aholkularitza emango duelako bigarrenak. Baina, Izaro Elorzak bileran esan zuenez, "energia-komunitatea eratzeko prozesua herritarrek" egingo dute, "bidelagun" izango dute horretan Udala, eta, beharra izanez gero, gai konkreturen batean laguntza emango die. Asmoa da, lehen-lehenik, herritarrek osaturiko mahai bat eratztea, eta

HERRITARREK OSATUTAKO MAHAIA ERATZEA DA ASMOA; HARK ERABAKIKO DU ZEIN BIDE HARTU

mahai horrek erabakiko du zein bide hartuko duten etorkizunean. Prozesu horretan ikusiko dute, adibidez, zein aukera dauden Oñatin energia berriztagarrien sorkuntzan eta kontsumo murrizketan eragiteko, eta sortuko den herritarren talde horrek autonomia izango du energia-komunitatea eratze bidean hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Erantzun kolektiboa

Energia-komunitateak sortzeko proiektuak bat egiten du Udalak iraunkortasunaren alde hartutako bidearekin. Energiaren alorrean gizarteak dituen errorekei erantzuteko asmoz 2022an aurkeztu zuen Udalak Energia Planaren testuinguruan ere sartzen da, eta herritarrekin egin gurako luke. Hain zuzen ere, energiaren gaiari erantzun kolektiboak nola eman landu zuten Energiaren Zikloa Aktibatu jardunaldietako azken hitzaldian.



Iñaki Olalde, Izaro Elorza eta German Meabebasterretxea, prentsaurrekoan. I.B.

Süne, Esne Beltza eta Ingot, jaietako musika eskaintzan

Hiru asteburutan egingo diren ekitaldiak jasotzen ditu piktograma bidezko informazioa ere baduen egitarauak

O.E.G. OÑATI

Atsolorra, Erraldoien Eguna, haurren danborrada, Artzain Txakur Txapelketa eta Margo Lehiaketa izango dira asteburu honetan jaiak hasteko. Jarraipena hurrengo bi asteburuetan etorriko da, Udalak astean aurkeztu duen jaien egitarauan agertzen den moduan. Aurten-goak, gainera, piktograma bidez ere jaso du informazioa, ohiko moduz gain, oztopo linguistikoak gainditzen eta ulermena errazten laguntzeko.

Musika emanaldiak, haurren-tzako eskaintza zabala, kirol

hitzorduak, herri bazkariak, sokamuturrak eta bestelako ekintza asko jasotzen ditu aurtengo egitarauak, herriko eragileekin batera antolatutakoak –barruko gehigarrian dator egitarau osoa–.

Udalak azpimarratu du, bestalde, ez dutela inolako erasorik onartuko jaietan, eta denen gozamenerako egunak izan behar dutela. Hala ere, eraso sexisten aurkako guneak jarriko dituzte: informazio-guneak, telefono bidezko arreta zerbitzua –688 60 20 89– eta aurrez aurreko arreta egongo dira.



NIRE USTEZ

AITOR UGALDE

Gurutze

Iturrian egin genuen topo, biok egarrituta, eta ur freskoarekin ase genuen gure egarria. Hitz gutxi batzuk egin genituen gure artean, zurekin egindako azken hitzak izango zirenak, ura zenbateraino behar dugun esateko. Gizakiok ura baikara, ura beste ezer baino gehiago; erreketara doan ura, etxe ondoko erreketara, Oriara edo munduko beste erreka batzuetara. Eta erreketatik itsasora, gure gertuko itsasora mendiaren alde bateko erreketan, urrutiago dagoen beste itsaso batera mendiaren beste aldekoetan; azken batean, bakarra den itsasoan amaituko dutenak.

Urmuga egiten duen mendiaren gailurrean irudikatzen zaitut, zure ingurukoak ondoan, zaildutako bihotzetik datorren begirada lasaiarekin mendiaren bi aldeetara doazen errekei begira, haizeak koloretako zapi batean bildutako ilea harrotu nahi dizula. Koloretako zapi horri gurutzatutako bi makila eta soka luze bat erantsiz kometa bat egingo nuke eta igande goizetan aireratu, bixi-bixi korrika egitera joaten zinen garaian.



Eguazten arratsaldean Eltzian egindako bilera irekian hogeita hamar bat lagun elkartu ziren. IÑIGO BARRENA



Idigoras, Agirre, Agirre, Losada, Mugarza eta Guridi, Aloña Mendiren 75. urteurreneko lantaldea. ALOÑA MENDI

Alfonbra gorria Aloña Mendi elkartearentzat

Elkartea osorik erakusteko jaia du antolatuta Aloña Mendik gaurko, 21:00etarako. Herriko kirol elkartearen parte diren hamalau sailen aurkezpena egingo dute eta elkartearen 'taupadia' irudikatuko, argi bereziekin eta plazan alfonbra gorria jarrita

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aloña Mendi kirol elkartearen zer den erakusteko aurkezpen ekitaldi bat antolatu du klubaren 75. urteurrena ospatzeko sortutako taldeak. Plazan izango da, gaur, egubakoitza. Alfonbra gorri bat jarriko dute udaletxetik pareko arkupetaraino, eta handik pasako dira elkartearen parte diren hamalau kirol sailletako kideak, entrenatzaileak, zuzendaritzako kideak zein kirolariak. Argiztapen berezia izango duen ekitaldia izango da, gauez, 21:00etan. Ordu bete iraungo du eta herritarrek gonbidatu dituzte plazara joan daitezten, aurkezpena zuzenean ikusteko.

Sentimendua ere bai

Hamalau kirol sail daude Aloña Mendi kirol elkartearen barruan, eta horrek hartzen duen boluena, elkartearen argazkia, erakutsi gura dute aurkezpen horrekin. "Elkarte bakarrak horrenbeste sail kudeatzea ez da ohikoa. Zarautz izan daiteke

beste adibide bat, baina, normalean, baita inguruko herrietan ere, hiruzpalau sail baino ez dira egoten elkartearen barruan; gainerakoek elkartetik kanpo funtzionatzen dute, herrikoak izan arren. Oñatin Aloña Mendiren barruan batzen dira kirol sailak, eta, oñatiar guztiok hori badakigun arren, hori bisualki erakutsi gura dugu prestatutako ekitaldi berezi honetan", dio antolaketa taldeko kide Aratz Losadak.

Aloña Mendiren ezaugarria hori izanik, orain arte bertan ibili direnei aitortza egiteko modua ere badela gaineratu du Losadak. "Modu batera edo bestera, herritar gehienek dute edo izan dute loturaren bat Aloña

Mendirekin, gertuko sentitzen dute, eta hori aurretik lanean ibili direnei esker ere bada; ez da kirol elkarte bat bakarrik, sentimendu bat ere bada. Bestalde, kirolaz harago, sozializazioarako espazioa edo erreminta ere bada, ohitura osasuntsuak ere sustatu dituen".

Elkartearen 'taupadia'

Hain zuzen ere, sentimendu horren taupadari irudia jarri gura diote gaueko ekitaldian. Egun, infantil mailatik aurrerako mailatik gora lagunek osatzen dute Aloña Mendi -beste horrenbeste daude mendian federatuta-, eta euren aurkezpeneko jai potoloa izango da gaueko aurkezpena. Udaletxe ondoko oholatza gainetik sail bakoitza aipatu eta bertako prestatzaileak zein kirolariak pasako dira alfonbra gorritik. Plazako beste ekitaldi batzuetan moduan, hesiak jarriko dituzte alde bietan, eta handik jarraitu ahal izango dute ikuskizuna herritarrek.

**ELKARTEKO KIDE
DIREN HAMALAU
SAILETAKO KIDEAK
PASAKO DIRA
ALFONBRA GORRITIK**

IkusiHI! lehiaketan, gazteak, euskara eta film laburrak

DBH-3tik batxilergoko bigarren mailara artekoendako da eta euskara eta hitanoa sustatu gura ditu

O.E.G. OÑATI

IKusiHI! lehiaketa jarri du martxan Oñatiko Udalak, Ingo Xonau! eta Oñatiko film laburren rallyko kideen laguntzarekin, ikusita mundu digitaleko eredu edo *influencer* gehienak gaztelarazkoak direla eta Oñatin film laburrekin dagoen kultura berezia ahaztu gabe. Horrela, Udalak gonbidapena egin nahi die gazteei ondo baino hobeto kontrolatzen dituzten baliabide teknologikoekin film labur bat egin dezaten. Lehiaketara aurkezten diren taldeek ikastaro txiki bat

izango dute datorren hilean, urriaren 12an, film laburrak nola egin ikasteko.

Lehiaketa DBH-3ko, DBH-4ko eta batxilergoko ikasleei zuzenduta dago. Taldeek gutxienez bost lagun ez osatuta egon behar dute eta bideoek gutxienez minutu bat eta gehienez zortzi izan behar dute. Bideoetan noka hizkerak agertu behar du derrigorrez, eta, horrek garrantzi berezia izango du lanak epaitzeko unean.

Izen-ematea zabalik dago, gaztelekuan, irailaren 27ra arte.



GONTZAL BELATEGI

Herriko finalak jokatu dituzte

Herriko pilota txapelketa finalerara heldu da. Eguazten arratsaldean jokatuak partiduetan gelditu ziren erabakita finala jokatu duten bikoteak. Bihar, zapatua, izango dira txapelketako azken partiduak, herriko plazako frontoian, 17:00etan. Ondoren, pilotari ohien partidua egongo da: Xala eta Paskual, Mendizabal eta Erleren aurka.

Letoniako nazioarteko txapelketan izango da asteburuan Ganbara

Ganbara abesbatzak Letonian egingo den Europako lehiaketan hartuko du parte asteburu honetan. Nazioarteko lehiaketa horretan, munduko beste bederatzik abesbatzekin batera lehiatuko da Oñatikoa. Hainbat modalitate hartuko du parte: modalitate behartuan, modalitate librean eta folklorean. Hamabi pieza prestatu ditu.

Domekan hasiko du Burrunda Faktoriak denboraldi berria

Udako etenaren ondoren, denboraldi berria hasiko du asteburuan Burrunda Faktoriak. Suitzako Hubris eta Zestoako Rodeo taldeak izango dira ikasurtea estreinatuko dutenak. Etzi izango dira kontzertuak, domeka, 18:00etan, ohiko lekuan, Antixena gaztetxean. Sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru euro murriztua.

"Ez dago sekreturik: lana, lana eta lana"

ENERITZ URRUTIA ANTIXINTXIKAKO TRIATLOI TALDEKO KIDEA

TRIATLOIA Arrasatekoak nabarmentzeko moduko denboraldia darama, eta joan den asteburuan jarri zion pastelari ginga, Bilboko eta Getxoko triatloiak jarraian irabazita

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Eneritz Urrutia (Arrasate, 1990) sekulako denboraldia egiten dabil. Hondarribian, Mutrikun eta Medina de Riosen (Valladolid) irabazteaz batera, asteburuan *dobletea* egin du distantzia olinpikoan lehiatu dituen Bilboko eta Getxoko triatloietan. Ez du denboraldia amaitu, asteburuan Zumaian ere aurrean ibili nahi du eta.

Zapatuan Bilbon irabaztearekin konformatu ez, eta domekan Getxon ere urrea poltsikora.

Bai; sekulako asteburua izan da. Egia da denboraldiko helburuetako bat izan direla lasterketa horiek, eta oso pozik geratu naiz, bai.

Bi triatloi jarraian... Ziklista gisa, akaso, izango zenituen halako asteburuak, baina...

Ezberdina da, bai. Zapatuan, Bilbon, igeriketako tartearen ostean bizikletan atzetik aurrerako bidea egitea egokitu zitzaidan, uretatik laugarren edo



Eneritz Urrutia, Bilboko triatloian helmuga zeharkatzen, zapatuan. FELIX SANCHEZ

bosgarren irten nintzen, baina tira, betiko kontua da, nire indargunea bizikletan dago eta. Bizikletako tartean 20. kilometrorako bigarren nindoan, eta korrika hasi eta hirugarren kilometroan Virginia Berasate-

gi gañditu ahal izan nuen. Hala, azken kilometroetan abantaila neukala ikusita erritmoa jaitsi ahal izan nuen, hurrengo egunean zetorkidana jakinda.

Getxon igarriko zenuen, bada, bezperako esfortzua...

Ez izan zalantzarik! Hori ere entrenatu egiten da; alegia, gorputza giharretako nekearekin ibiltzera ohitzea, baina bai, bereziki bizikleta gainean jarri nintzenean... Hura hanketako mina!

Urteko lorpen garrantzitsuetako bat izan da?

Ederra izan da, zalantza barik, baina urtean zehar beste momentu polit batzuk ere izan ditut. Lasterketa horiek distantzia olinpikoak izan dira, baina Iruñean, esaterako, *half* distantzia Espainiako Txapelketa jokatu nuen eta hamar onenen artean sailkatu nintzen [9.a izan zen]. Helene Alberdiren atzetik bigarren euskalduna izatea... Gauza handia izan zen niretako; onenekin batera borrokatu zarela ikustea. Bai, hura ere momentu ederra izan zen. Baina Zarautzen eta Fromistan ere *half* distantzian hamar onenen artean ibili ahal izan nintzen, eta haiek ere lasterketa oso politak izan ziren.

Halako opor itzulera egiteko, abuztua gora begira egon ez zaren seinaile...

Ez; hain justu, hondartzan eguzki gutxi hartu dut [Barre]. Tira, halako emaitzen atzean ez dago sekreturik: lana, lana eta lana. Egia da iaz nutrizionista eta entrenatzailea aldatu nituela; Aikekoekin nabil lanean, eta sumatzen dut aurrerapausoa eman dudala. Bikotekidea bera txirrindularia dut, eta haren

egutegiaren arabera antolatu ditugu oporrak. Ekainean Andorran izan ginera garaieran entrenatzen, eta horixe... abuztuan hondartza gutxi zapaldu dugula. Gutxi ez, batere ez [Barre]. Goizetan entrenatu eta arratsaldean atsedean hartu; kirolari profesional baten bizi-modua izan dut.

Ze distantzian moldatzen zara ondoen? Izan ere, arnas luzeko kirolaria izanda...

Ezaugarri fisikoei dagokienez, *half* distantzian hobeto moldatzen naiz, distantzia luzeagoetan, baina egia da mentalki olinpikoan gutxiago sufritzen dudala; lasterketak eramangarriagoak egiten zaizkit, nahiz eta erritmoa altuagoa den.

Hau ez da amaitu: asteburuan Zumaiako triatloia duzue.

Bai; iaz bigarren izan nintzen eta arantzatxo geratu zitzaidan. Baina igeriketako tartean ibili beharko dut ondo, bizikletan gero tarte txikia dago-eta atzetik aurrera egiteko: hoge kilometro baino ez.

Eta ondoren?

Korrikako denboraldiari ekingo diot; besteak beste, Behobia-Donostiara begira.

"ABUZTUAN EZ DUGU HONDARTZARIK ZAPALDU: ENTRENATU ETA ATSEDEN HARTU, HORI EGIN DUGU"

Hamabost hilabeteko espetze zigorra Ruiz de Cenzanorentzat

ESKUBALOIA Euskal Eskubaloi Federazioko presidente zela bidegabeko jabetze delituagatik zigortu dute

X.U. OÑATI

Hamabost hilabeteko espetze zigorra ezarri diote Jose Manuel Ruiz de Cenzano oñatiarrari, Euskal Eskubaloi Federazioko presidente ohiari, bidegabeko jabetze delitua egotzita; alegia, "kargua aprobeatzeagatik kirol erakunde horren diru kopuruak haren ondarean sartzeko", sententziaren arabera.

Auzipetuaren, fiskaltzaren eta Euskal Eskubaloi Federazioaren arteko adostasunaren ondorio da zigorra, Ruiz de Cenzanok gertakariak onartu ondoren



Jose Manuel Ruiz Cenzano. GOIENA

akusazioek onartu egin baituzten kaltea konpontzeko aringarriak aplikatzea, oñatiarrak epaitegiko kontuan kontsignatu baitzuen aurrez hartutako dirua. Nahiz eta epaileak urtebete eta hiru hilabeteko espetze zigorra zigortu, Ruiz de Cenzanok ez du espetxera joan beharko. Hori bai, epaiketaren gastuak ere bere egin behar izan ditu oñatiarrak: 7.500 euro.

Sei urtez presidente

2013ko otsailean hartu zuen Jose Manuel Ruiz de Cenzanok Euskal Federazioan lehendakari kargua, eta kargu horretan egon zen 2019ra arte. Federazioko zuzendari ohi batek salatu zuen, eta, ondoren, Euskal Federazioan esku hartzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak, irregularitasunak egon zitezkeelakoan.

Eskoxtrem martxa egingo dute zapatuan, hiru ibilbiderekin

MENDIKO BIZIKLETA Eskoriatzaren ondoren etorriko da, datorren asteburuan, Mondranbike martxa, Arrasaten

X.U. ARRASATE

Mendiko bizikleta martxen saioa da hau, bailarako txirrindulariek bi aukera izango dituzte-eta jarraian, Eskoriatzan eta Arrasaten. Eskoxtreme martxa bihar egingo dute, zapatua, eta, izenak aurrez emateko aukera egon bada ere -antolatzaileek hori lehenesten dute, antolaketa lana errazteko-, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 08:30ean plazan -federatuek, 20 euro; ez-federatuek, 25 euro-. Aspaldian antolatzaileak enduroko

ibilbideen aldeko hautua egiten dabilta, baina egongo dira alternatibak, Eskoriatzan, esaterako, ziklistek hiru ibilbide izango dituzte-eta aukeran. Hori bai, *extrem* ibilbideak denak aseko ditu, 46 kilometroan (2.200 metro) bidezidor ederrak topatuko dituzte-eta ziklistek. Bestalde, beste ibilbide errazago bi egongo dira: 36 kilometrokoa bata eta 29 kilometrokoa bestea.

Bestalde, datorren asteburuan egingo duten Mondranbike martxan ere zabalik dago izen-emate epea.

Urte ona eginda, beste urtebetez jarraitzera

ARRAUNA Kontxako Banderan Arraunak taldea ez zuten denboraldiko estropada askotan bezala estutu, baina Nerea Agirrezabal pozik dago Tolosan egin duen bigarren urtearekin. Aurrerapausoa eman dezaketela sinetsita dago bergararra

Xabier Urtzelai Atxa BERGARA

Kontxako Banderak ez die aho-zapore onena utzi, baina Tolosako arraunlariak pozik daude egindako urtearekin, eta tartean da Nerea Agirrezabal (Bergara, 1994). Taldean egin duen bigarren urtean koska bat egin dute gora, baina aurreikusten du datorren urtean erreferenteetako bat izan daitezkeela, eta taldea gertu dagoela hori sinesteko. "Aurten estropada bat irabazi dugu; Zarauzko Banderan izan zen, baina bandera bera ez genuen irabazi bi jardunaldi izan zituelako eta zapatuan txarto ibili ginelako. Akaso, hor izan dugu akats handietako bat, oso irregularrak izan garelako. Ondo egon garenean Arraunak-i aurre egiteko kapaz garelako erakutsi dugu; estropada askotan izan gara bigarrenak edo hirugarrenak. Baina ez geundenean ondo, asko egin dugu behera; bosgarren sailkatzen ginen, eta aurrean ibiltzeko beherakada handia da hori".

Kontxan, ezusterik ez

Esan bezala, Kontxako Banderak izan da denboraldia amaitzeko izan duten azken hitzordua. "Pena izan zen lehenengo jardunaldian Arraun Lagunak-ek besteekiko halako abantaila hartu izana;



Nerea Agirrezabal, trainerua taldekideekin batera uretatik ateratzen. N.A.

bagenekien hori zuzentzeko bigarrenan zerbait gertatu behar zela: itsaso txarra, euren akatsen batengatik urduri jarri eta denbora etengabe galtzen joan... Baina ez zen halakorik gertatu. Itsaso zakarrarekin nahikoa da olatu bat hartzea hamar segundoko aldea segituan txikitzeko, baina itsaso barea egon zen eta ez zen emoziorik egon".

Ligan egindako lana, baina, orokorrean, oso ona izan da. "Estropadak irabazteko moduan geundela sinestea falta izan zaiagu. Baina urte oso polita izan

da, eta beste urtebetez jarraitzeko erabakia hartu dut; ikusten dut datorren urtean Tolosak aurrerapausoa eman dezakeela eta garaipen borrokan ibil gaitzkeela".

Bestalde, Agirrezabalek dio emakumezkoen arrauna mailaz igotzen dabilela, eta hobetzen jarraitzeko gogoz dagoela: "Aurtengo estropadetan errekorrak behin eta berriz ontzen ibili gara. Ez bakarrik estropada irabazten zuenak, baita bigarren egiten zuenak ere. Maila izugarri igo da".

Bigarrena jarraian etxean; orainoan, Leioaren kontra

FUTBOLA UDAkoek hasiera ona berretsi nahi dute eurak bezala lau puntu batu dituzten bizkaitarraren kontra

X.U. ARRASATE

Aretxabaletak eta Leioak Ibarren jokatu dute domekan Hirugarren Mailako hirugarren jardunaldia (16:30). Hain zuzen, bizkaitarrek San Viatorren kontra jokatu zuten joan den astean, UDAkoen ligako lehenengo kontrarioaren kontra, eta Jon Castriilloren mutilek 3-1 irabazi zieten gasteiztarrei. Hala, kategoriako oilarretako bat izan daitekeenak jokatu du domekan Ibarren; partidu ona UDA non dagoen ikusteko.



UDAKoak gol bat ospatzen. I.S.

Aloña Mendik, etxean

Ohorezko Erregionalean Aloña Mendi da etxean jokatu duen ordezkari bakarra (domeka, 16:30). Zumaiako izango dute aurrean, aurreko astean Zarautzen kontra 1-2 galdu zuen taldea. Bergarak eta Mondrak kanpoan jokatu dute, bergarrek To-

losan zapatuan (16:30) eta arrasatearrek Elgoibarren egun eta ordu berean.

Emakumezkoen Ohorezko Erregionalean, berriz, asteburuan hasiko dute liga. Hala, Bergarak etxean hasiko du liga, domekan (16:30), Ostadarren kontra.

PILOTA Bergara eta Etxegarai aurrez aurre finalean

Domekan jokatu dute, Donostiako Atanon, 12:00etan hasita, Udako Master Laboral Kutxako finala. Eta eskuz binakako partiduan bi debagoiendar izango dira aurrez aurre: Bergarak Arrate Bergarak Arrizabalagarekin osatuko du bikotea, eta Maddalen Etxegarai oñatiarra eta Gaminde izango dituzte aurrean (ETB1).



Etxegarai, artxiboko irudi batean. I.S.



Realaren eta Atletico Madrilen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Atletico Madril norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.

Partidua urriaren 6an izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: irailak 24.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Reala ikusteko aukera izango duzue!

goiena
kide

Okm:
batzen gaituen distantzia

Aitziber Aranburuzabala Juldain


ARRASATE

Musika arloan harrobi ona dago eskualdean, baina nekez dago denentzako tokia agertokietan; eta, hain zuzen, Arrasateko Emakume Txokokoek herriko hiru musikari gonbidatu dituzte ikasturte hasiera jaialdira, Anariren eta haren taldearen aurretik jotzeko. "Musika estilo eta ibilbide ezberdinetako emakume musikariak elkarrekin jarriko ditugu. Euskal musika eszenan erreferente den Anarik urratutako bidetik, ibilbidea egiten ari diren neska gazteen lanak eza-gutzeko eta eskaintzeko aukera sustatu nahi dugu", azaldu dute antolatzaileek. Musikari gazteak "pozik" daude emandako aukeragatik; hauxe dio Anixe Uribarrenek: "Halako aukera bat nire herrian izatea eskertzekoa da, emakume artista zoragarri bezetara". Eta bide beretik erantzun dute, hurrenez hurren, Izadi Ramosek eta Claudia Diazek: "Nola ez naiz, bada, pozik egongo Anari moduko erreferentearekin oholta partekatzeko aukera emanda! Eta Anixeren eta Claudiaren emanaldiekin gozatzeko aukerarekin, gainera". "Oso gogotsu eta pozik nago nire ere; Anari ez da oso nire estilokoa, baina orain dela urte asko ezagutzen dut eta baditu nire gustuko abestiak".

Kontzertua dohainik izango da, eta ez da aurretik gonbidapenik banatuko: "18:45ean zabalduko ditugu ateak eta 19:00etan hasiko dira kontzertuak".

Hiru kantu bakoitzak

Hiru emanaldi solte egingo dituzte Arrasatekoek, bakoitzak hiru abesti eskainita. Urban edo kaleko musika, afrobeat eta reggaetona fusionatzen ditu



Anixe musikari urbanoa. ANIXE



Izadi Ramos gitarrarekin. I.R.



Claudia Diaz pianoa jotzen. C. D.

Anari Bandaren 'Giza zarata'

Martxoan argitaratu zuen Azkoitiko musikariak *Giza zarata* bilduma sortu berri duen Tristuraren Industria ziguilarekin.

Taldearekin aurkeztuko du gaur, Amaia antzokian. Taularen gainean lagun izango ditu Xabier Olazabal baxu-jolea, Mariano Hurtado piano eta organo-jolea, Ander Mujika gitarra elektrikoarekin, Xabier Etcheverry arrabitarekin eta Mikel Txopitea bateria-jolea.

Harrobia eta erreferentea agertoki beraren gainean

Emakume Txokoak antolatuta, guztiontzako zabalik dagoen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 19:00etan hasita: Anari Banda eta Arrasateko Anixe, Claudia Diaz eta Izadi Ramos musikari gazteak izango dira taularen gainean

Anixe Uribarrenek. "*Berandu nabil, Zmz zaz?* eta oraindik argitaratu ez dudakantu berri bat eskainiko ditut. Ohi bezala, DJ Aitor izango dut alboan".

"OHI BEZALA, DJ AITOR IZANGO DUT GAUR ERE AGERTOKIAN LAGUN"

ANIXE URIBARREN

Gitarrarekin, Izadi Ramos
Izadi Ramos, berriz, batxilergo bigarren mailako ikaslea da, baina dagoeneko askotariko auzoetako jaietan eta bestelako

"POZIK NAGO ANARI ERREFERENTEAREN AGERTOKI BEREAN JOKO DUDALAKO"

IZADI RAMOS

ekimenetan kantatu izan du. Gitarra lagun, bakarlar formatuan jardungo du gaur. "Ez daukat estilo propio edo zehatzik; entzuten ditudan askotariko

"OINARRI BATEN GAINEAN ETA PIANO LAGUN ABESTUKO DITUT HIRU KANTU"

CLAUDIA DIAZ

estiloetako euskal kantuetan oinarritzen da, bereziki, nire erreperitorioa. Ari naiz nire kantuetak sortzen, baina ez daude, oraingoz, jendaurrean erakusteko prest. Bertsioetara joko dut, beraz, gaur ere, azken unera arte kantu zerrenda guztiz finkatuta izan barik".

Pianoak lagunduta, Diaz

Pop estilotik gertu dauden kantuetak abesten dituen Claudia Diaz ere igoko da agertokira. "Arrasate Musikalen emanaldietan eta Olatz Urkia akademiak antolatutako ekitaldietan kantatu izan dut aurrez. Ez dut kantu propiorik, oraingoz; bada, gustuko ditudan Sabrina Carpenteren, Celine Dionen eta Mecanoren kantu bana aukeratu ditut gaurko. Aurrez grabatutako *base* edo oinarri baten gainean kantatuko ditut horietako bi eta pianoren laguntzarekin hirugarrena".

ISA EGIGUREN, KAZETARIA

'ELKARRIZKETTAP' SAIOAN

IRAILAREN 25EAN, EGUAZTENA, 19:30/21:30 ETA 23:30



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



Eskualdeko ordezkaritza "txikia" 72. Zinemaldian

Gaur, egubakoitza, hasi eta irailaren 28ra arte egingo dute aurtengoa; Aitor Arregi oñatiarra kide den Moriarti Produzioen 'Marco' filma eskainiko dute, lehiaketaz kanpo, eta Kepa Errastik parte hartzen duen 'Irati' filmak Ezae saria jasoko du

A. Aranburuzabala OÑATI

Donostia Zinemaldiko eskaintzan horren isla ez badu ere, askotariko proiektuetan buru-belarri ari dira Debagoieneko zinemagileak. Esaterako, *Karmele* filmaren muntaketa lanetan ari da Asier Altuna *Kixi* bergararra, baina hesiaren bestaldean gozatzeko aukera izango du, aurtengo Zinemaldian "libre" ibiliko dela adierazi du eta.

Hamaika alditan erakutsi izan ditu Zinemaldiko aretoetako pantaila handian Arrasateko Iban del Campok askotariko film laburrak: "Aurten ez da hala izango, baina lanean ibiliko naiz. Zinemaldiaren baitan zinema industriako askotariko bilerak izaten dira eta nik ere baditut hainbat lotuta; nire proiektu pertsonalekin lotutakoak dira batzuk eta kide naizen Limbo Films ekoiztetxea bultzatzen ari den beste hainbat proiektuekin lotutakoak ditut beste batzuk", azaldu du Arrasatekoak.

'Marco' filma, lehiaketaz kanpo

Aitor Arregik Jon Garañorekin batera zuzendu duen *Marco* filma pantaila handian erakusteko aukera izango du. "*Perlak* sail garrantzitsuan eskainiko dute, lehiaketatik kanpo. Euren etxea da Zinemaldia, eta askotariko



Moriarti Produzioen *Marco* filmeko fotograma bat. LARA PEREZ_BTEAM PICTURES

filmak estreinatu dituzte aurreko aldietan: *Handia*, *Trinchera infinita*, *Loreak* eta *Lucio* dokumentala, besteak beste. Thriller tankerako film konplexu batekin datoz orain. Veneziako Mostran harrera onarekin estreinatu zuten, eta horren erakusle da Londresko eta Vancouverko jaialdietan ere erakutsiko dutela. Donostia Zinemaldian irailaren 27an eta 28an emango dute, eta lantaldea ere bertan izango da; sarrera ia guztiak, baina, agortuta daude. Oskar sarietarako hautagaien artean izan da

Marco, baina eguaztenean jakinarazi zuten azkenean ez dela hala izango", azaldu du Imanol Gallego zinema-adituak asteon *Hemen Debagoiena* saioan.

'Irati' filmak, EZAE saria

Irailaren 24an, Euskal Zinemaren Galaren baitan, Elena Irueta sarituko dute, eta egun berean jasoko du Paul Urkijoren *Irati* filmak EZAE saria (Euskadiko Zine Aretoen Elkarte), "iaz Euskal aretoetan diru gehien bildu zuen euskal zinta" izan delako.

Domekan amaitzen da Danbako lehiaketako izen-ematea

'Danbaka.eus'-en dago seigarren musika lehiaketako askotariko informazioa eta izena emateko aukera

A. A. J. BERGARA

Urriaren 25ean izango da, Bergarako Seminarixuan, Goienak Bergarako Udalaren eta beste-lako babesleen laguntzarekin antolatu duen lehiaketako lehenengo kontzertua. Eskualdeko

musikariei eskainita dago eta dagoeneko ari dira antolatzaileak parte hartzeko eskaerak jasotzen. "Pozik gaude; dena ondo bidean, aurten ere lehiaketarekin aurrera egiteko moduan gaudela esan dezakegu. Askotariko izaer-

ra eta estiloetako proposamenak jaso ditugu, baina domekara bitartean gehiago jaso gura ditugu, badugu eta oraindik tokia", azaldu du Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

Publikoak aukeratuta

Irailaren 29an jakinaraziko dute epaimahaikideek aukeratutako hamabost taldeak, eta herritarrek erabakiko dute gero hamaseigarrena. "Irailaren 30etik urriaren 6ra bitartean botatu ahal izango duzue".

Goienakideen txokoa

IRAILEKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora



ERRIGORA

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
ONATIKO BAK

www.harremandenda.org
Bilaka Merkataritza produktuak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LFPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu sari-ditu pertsonak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki bater sartuko direla. Datu-bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen sari-dituen gestioa. Eskubidea eragoz dezakezaten sartzeak, baina sari-dituak ezin dituzte ezarri. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko udalari esker

"Distrak" dantzaldirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala Antzokia | Irailak 29 | 19:30

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Distrak"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LFPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu sari-ditu pertsonak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki bater sartuko direla. Datu-bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen sari-dituen gestioa. Eskubidea eragoz dezakezaten sartzeak, baina sari-dituak ezin dituzte ezarri. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ZELAI ZABAL JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: irailak 24



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



GOIENAKIDE Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU
Arrasate eta inguruak. Etxebizitza errentan hartuko genuke. Bikote arduratsua. 602 42 71 27

105. ETXEA OSATU

Etxea osatu Bilbon. Bilbon, 24-25 ikasterterako, ikasle pixu bat osatzeko pertsona bila. Telefonoa: 630 90 71 67

4. LANA

402. ESKAERAK

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoria-tza. Umeak zaintzen lan egingo nuke. Umeen zaintzan esperientzia izateaz gain, goi mailako Haur Hezkuntzako zikloa eta Haur Hezkuntzako gradua ditut. 634 42 85 11.

Debagoiena. Arratsaldez edo asteburuetan ospitaleetan, egoitzetan edo etxeetan pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita gauzez etxean zein ospitaleetan konpainia egiteko ere. Baserrietan lan egiteko aukera. Gidabaimena eta kotxea ditut. 631 98 15 50

Debagoiena. Astean 20 eta 25 ordu artean lan egiteko prest. Taberna, garbiketa, zaintza, sukaldaria... lan egingo nuke. Esperientzia. Telefonoa: 662 47 28 88

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintzan lan egiteko gertu. 602 04 32 80

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest dagoen emakumea. 631 99 55 58

SORALUZE HOTEL-JATETXEA (OÑATI)

Sukaldari, sukaldari laguntzaile eta zerbitzari bila. Esperientzia eta gidabaimena behar dira. Utzi curriculuma hoteleko harreran.

GARAI HORTZ KLINIKA (ARETXABALETA)

Odontologo orokorra behar dugu 2 egunez lan egiteko. Interesatuak bidali curriculuma email honetara: garai.hortzklinika@gmail.com

Debagoiena. Etxeko langile gisa lan egiteko prest dagoen emakumea, nagusien zaintzan edota garbiketa lanak egiten. Etxean bertan bizi izaten lan egin nahi nuke. 632 89 09 25

Debagoiena. Garbiketari zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 642 78 33 00

Debagoiena. Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanak, sukaldaria laguntzaile gisa... lan egingo nuke. Malgutasun osoa dut. Pertsona arduratsua naiz. 624 69 84 52

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zaintzen lan egingo nuke, baita orduka ere. Astelehenera zein asteburuetan lan egiteko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. Astelehenera zein asteburuetan lan egiteko prest dagoen emakumea. 602 82 64 84

Debagoiena. Gizonezkoa hainbat lan egiteko prest. Batez ere eraikuntza zein garbiketa lanak egingo nituzke. Malgutasun osoa. 632 18 53 17

Debagoiena. Mota desberdinetako lanak egiteko prest nago. Eraikuntza, garbiketa, pertsona nagusien zaintzan edota lorezaintzan esaterako. 622 85 60 78

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin eta txakurrak paseatzera ateratzeko gertu. Malgutasun osoa dut, etxean bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Lan-baimena daukat. Deitu 612 29 74 89 (Andrea) telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Orduka lan egingo nuke. Legezko agiriak eta soziosanitario titulua ditut. 662 02 45 80

Debagoiena. Zaintzarako gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 632 89 09 25

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Haurrak zaindu edota DBH eta LH-ko ikasleei klase partikularrik emateko gertu. Neska gazte eta euskalduna naiz. Unibertsitateko ikasketak amaitzen. 650 79 51 66.

Bergara: Ingelesko klaseak ematen dira. Bergaran, goizean, eguerdian zein arratsaldean, maila guztietako ingelesko klaseak ematen ditut, eta Cambridge-ko zein Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketetarako ikasleak prestatzen ditut. Talde txikiak. 618 91 32 89

6. MOTORRA

603. ERRENTAN EMAN

'Renting'-aren subrogazioa. 2020. urteko Audi A1 kirol-autoaren renting-aren

subrogazioa. 48.000 kilometrorekin. Informazio gehiagorako interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 679 13 70 31

9. HARREMANAK

903. DEIAK

Debagoiena. Debagoieneko gay edo bisexualak diren 50 urtetik gorako pertsonak ezagutu nahi ditut. Jende jatorra eta alai. Harremanetan jaritzeko idatzi mezu bat laurenbat4@gmail.com helbidera.

Korosti Inmobiliaria

Bergara: Osintxu, etxea, 93m², 4 logela, terraza, lorategiarekin eta baratzarekin
210.000€



Bergara: Goenkale, 100m², unifamiliarra 3 solairukoa, 3 logela, egongelan tximinia.
300.000€

Bergara: Belanbide, 53m², 2 logela, terraza eta igogailua.
220.000€



Ibargarai 3 BERGARA
 Tel.: 943 76 97 97
 www.inmokokorosti.com

Informazio gehiago:



ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
Axel Urzelai Hernandez
 Irailaren 25an, 12 urte. Gozau zure urtebetzea, txapelndun.



ARAMAIO
Irune Arrizabalaga Gonzalez
 25an, 11 urte. Zorionak! Jarraitxu neskatilla sinpatika ta maitakorria izaten! Ederto ospatu zure eguna, muxu haundi bat danon partetik.



OÑATI
Enara Zumalde Andueza
 Irailaren 24an, 8 urte. Zorionak, Enara! Egun zoragarria pasau eta patxo haundi bat familia danan partetik!



OÑATI
Maddi Lopez Inza
 Irailaren 24an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako, Maddi! Disfrutatu topera zuretako hain berezixa dan egun hau! Txinaraino eta buelta maitte zau!



ARRASATE
Aroa Garai Urrutia
 Irailaren 22an, 5 urte. Zorionak, familiako txikiari! Zure eguna primeran pasako duzula espero dugu! Patxo eta besarkada handi bat etxekoan partetik!



ARRASATE
Ibon Domingo Elorza
 Irailaren 21an, 7 urte. Zorionak etxekoan partetik!



OÑATI
Enara Garcia Calzada
 21an, 12 urte. Zorionak! Segi horrelako alai eta bizi-pozakin. Familia guztien partetik, batez ere aitaxo, amatxo, Ane eta Hegoiren partetik.



ARETXABALETA
Aner de la Torre Muñoz
 Irailaren 20an, 10 urte. Zorionak, Aner! Muxu pila bat lagun guztien partetik.



BERGARA
Alaiz Azula Padilla
 Irailaren 19an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasa zure egunean. Patxo haundi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Nora Rueda Calleja
 Irailaren 19an, 8 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasau zure eguna! Mila muxu etxeko guztien partetik!



BERGARA
Malen eta Inhar Aramendi Olasolo
 Irailaren 19an, 6 urte. Zorionak, bikote! Merezki dozuen moduan ospatuko dogu! Askok maitte zaituztegu. Muxu handi bana etxeko danon partetik!



BERGARA
Ega Zabala Pozo
 Irailaren 18an, 9 urte. Zorionak, politxo! Oso ondo pasatu dugu urtebetzean! Askok maitte zaitugu! Mila muxu.



BERGARA
Hodei Gallastegi Lete
 Irailaren 17an, 8 urte. Zorionak, mutik haundi! Mila muxu eta zorion etxeko guztien partetik. Segi horren alai eta bixi! Matxe-matxe.



OÑATI
Izar Aramburu Gende
 Irailaren 16an, 8 urte. Zorionak, Izar! Ondo pasau zure eguna eta patxo erraldoi bat familia danan partetik!



ARETXABALETA
Urko Arkauz Vitoriano
 Irailaren 15an, 8 urte. Zorionak, jarraitxu horren jatorra izaten. Patxo haundi bat danon partetik!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



OÑATIKO SANMIGELEN AURREKOA

Haurren danborrada, Erraldioen Eguna, atsolorra, Artzain Txakur Txapelketa, Margo Lehiaketa...

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



NOLAKOA IZAN DA AURTENGO UDA?

Eguraldiak uztari, bainu-lekuei eta beste hainbati nora eragin dien aztertuko dute, *Datuetatik tiraka*.

'Hemen Debagoiena' Eguaztena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

BERRI-ZAKUA



Eugenio eta Isabel

"Irailaren 21ean, 50 urte elkarri maitatuz! Segi horrela! Familiaren partetik, besarkada bana".



M^a Carmen eta Juan

M^a Carmen Barrenetxea eta Juan Chups-ek 50 urte egingo dituzte ezkontuta irailaren 21ean eta urriaren 26an ospatuko dute Zumelaga jatetxean. Zorionak bikote!

Jose Seijo eta Pilar Vázquez

Irailaren 26an ezkontzaren 60. urteurrena beteko dute. "Zorionak, zuen seme-alaben eta biloben partetik".



June Balzategui Gartziaetxabe
Aretxabaleta.
Irailak 04. 3 kilo.
Gurasoak: Jokin eta Maite.
Argazkian, June bere ahizpa Paularekin.



100. urtebetetzea ospatzen

Maria Sofia Ayesta arrasatearrak mendeurrena bete du, eta Mainer Morras alkatea eta Jasone Giraldo Ongizate zinegotzia harekin eta senideekin izan dira, zoriondu eta lore-sorta bat ematen.

URTEURRENA

Arrate Garate Juaristi



2023ko irailaren 20an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko azken urte honetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2024ko irailaren 20an.

URTEURRENA

Eugenio Elkorobarrutia Guridi



2023ko irailaren 17an hil zen, 84 urte zituela.

*Atzo geure onduan,
gaur geure oroimena,
betiko geure bihotzian.
Etxeak, maitxasunez.*

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 22an, 11:00etan, Uribarri auzoko Itxaropenaren Andre Mariaren parroki elizan.

Berataratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.
Arrasaten, 2024ko irailaren 20an.

ESKER ONA

Maixabel Elorza Egaña



2024ko irailaren 12an hil zen, 81 urte zituela.

*Kantuz gordeko zaugu geure bihotzetan,
Kale Zahar-Kanpanboko bazterretan,
eta Garibai-San Pedroko inguruetan.*

Millia esker, familiariaren izenian, zuen dolumiñak agerketako egun honeitan hurreratu zariain danoiri.

Oñatin, 2024ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Esosi Ojanguren Lizarriturri



2024ko irailaren 17an hil zen, 71 urte zituela.

Senarra: Esteban Larrañaga; alaba eta suhia: Oihane eta Alain Valle; birloba: Manex; anai-arrebak: Jesus Mari †, Mauri eta Marisa Torres; koinatu-koinatak: Mariasun eta Javier Ezkerra; ilobak: Gorka eta Eider, Leire eta Andoitz.

Bizitzako momentuetan zurekin bizitako une goxoak beti gurekin egongo dira. Gure inguruan eta gurekin beti izango zaitugu ondoan maite zaitugunoren agurra / hartu ezazu bihotzean zure maitasunak beteko digu eta zuk utzitako hutsunea.

Eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zaretenoi, jaso dugun maitasun eta babesa eskertu nahi dizuegu. Bihotz-bihotzez besarkada estu bana senideon izenean.

OROIGARRIA

Filomena Reguilon Fradejas



Aitor Lagoma lankidearen amama
2024ko irailaren 17an hil zen, Soroluzen, 96 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Goiena Komunikazio Taldea.
Debagoienean, 2024ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Lurdes Bergara Alzuri



Arrasate Herri Eskolako langile ohia
2024ko abuztuaren 21ean hil zen, 65 urte zituela.

*Izan zarena eta elkarrekin bizi izan duguna,
betirako gure bihotzean.
Ez zaitugu ahaztuko, Lurdes.*



Arrasate Herri Eskola.
Arrasaten, 2024ko irailaren 20an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

Oroilore
Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiak zure bidean aurkitzen lagunduko diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango ditue agur berezia Oroiloren.
Gure eskerrik beronenak gurean izan diren konfiantzagarriak eta maitasunagarriak.

Mario, Iban, Mariñe eta Cristian

617 44 21 55
BERGARA • ANTZULEA • Moyua OÑATI



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEGU EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 20

OÑATI Odol ematea

Oporren osteko lehena. Izena emateko: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:00etan.*

ESKORIATZA Gaztelekuaren gaineko batzarra, gurasoendako

Hezitzaile taldeak zerbitzuaren nondik norakoak azalduko ditu: ordutegia, irteera bereziak, lantzen diren gaiak eta abar. Gainera, gurasoek galderak eta ekarpenak egiteko aukera ere izango dute. *Gaztelekuan, 17:00etan.*

BERGARA 'Zer da Aidau?' hitzaldia

Haurren aisialdi zerbitzua ezagutzeko ate irekiak: Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko neska-mutikoak. *Oxirondo azokan, 17:30ean.*

ARETXABALETA Buruhandien tailerra familian

Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen familientzat. *Arkupen, 18:00etan.*

BERGARA Simon Arrieta pintura lehiaketako lanak

49. lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera, hilaren 29ra arte. *Aroztegin, 18:00etan.*

ANTZUOLA 'Hamaika' erakusketaren inaugurazioa

Irantzu Piquero editore eta ilustratzailea egongo da irekiera ekitaldian, Meaka-Irimo herri plataformak gonbidatuta. Ostean, Isua eta Bargi musikarien kontzertua, eta mokadutxoak. *Olaran etxean, 18:30ean.*

ARRASATE Anari eta Arrasateko hiru musikari

19:00etan, Anixe, Claudia Diaz eta Izadi Zumalde; eta 20:00etan, Anari, Emakume Txokoak gonbidatuta. Azken horrek *Giza zarata* diskoa aurkeztuko du. *Amaia antzokian, 19:00etan.*

ELGETA Gaztelekuak: bilera irekia

Bilerara deituta daude 2008-2012 urteen artean jaiotako gazteak. *Ludotekan, 19:00etan.*

BERGARA Zabalotegiko jaiak

19:00etan, hasiera; 19:15ean, buruhandiak; 19:50ean, pintxo-poteoa; 20:00etan, Katarsia taldea; 20:00-22:00, bokatak salgai; eta 21:30ean, mus txapelketa. *Zabalotegi kalean.*

ARRASATE Paul San Martin piano-jolea

Donostiako pianistaren emanaldia. *Kajoi tabernan, 19:00etan.*

ESKORIATZA Errekan Gora jaialdia

19:30ean, The Clayton, Inkernu kanpoan; eta 22:30ean, Unidad Alavesa, Fernando Eskoriatza plazan. *Eskoriatzan.*

OÑATI Aloña Mendi kirol elkarteko sailen aurkezpena

75. urteurrenaren barruan. *Foruén plazan, 20:30ean.*

BERGARA Bertso saioa

Ane Zuazubiskar eta Unai Iturriaga ariko dira bertsoan. *Arrano tabernan, 22:30ean.*

ZAPATUA 21

ARAMAIO Aitor Arana 28. mendi martxa

Ibilbide motza –hamabost kilometro– eta luzea izango ditu –22 kilometro–. *Frontoian, 07:30ean.*

ESKORIATZA Eskoxtrem BTT proba

46, 36 eta 29 kilometroko hiru ibilbiderekin. *Fernando Eskoriatza plazan, 09:00etan.*

ELGETA Sagardo Eguna

10:30ean, azoka eta tirolina; 11:00etan, Intxortako igoera; 18:00etan, patata-totilla lehiaketa; 21:30ean, Bengo, DMT, Emeka, Golden 21K, North School eta Exepe; gero, DJ Oier Mendizabal. *Elgetan.*

OÑATI Haurren eta Gaztetxoan Eguna

Egitarau osoa 18. eta 19. orrietan. *Oñatin.*

BERGARA Zabalotegiko jaiak

11:00etan, umeendako jolasak; 12:00etan, Bergarako erraldoiak; 13:00etan, pintxo-poteoa; 14:30ean, bazkaria; 19:00etan, umeentzako barru-txapelketa eta Good Vibes eta Be Bi Blues taldeak; 20:00-22:00, bokatak salgai; 21:30ean, helduendako barru-txapelketa; eta 22:30ean, DJ Tilla. *Zabalotegi kalean.*

ARRASATE Aurrera Bolie Eguna

12:00etan, bermut politikoa, Kizkitza Gil de San Vicenterekin, Iratxe Delgadorekin eta June lartzarekin, eta jolasgunea; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bazkaloste akustikoa Aierterekin; 17:30ean, elkartasun argazkia; 18:30ean, Antton Telleriaren bakarrizketa; eta 22:00etan, Maniaks, Nick Linbött eta DJ Bad Souns Sister gaztetxean. *Arrasaten.*

BERGARA Adiskide

Numerarioaren sarrera ekitaldia Iñigo Alberdi izendatuko dute. *Musika kudeaketari buruzko gogoetak* hitzartzea egingo du, eta, ondoren, diploma eta domina emango dizkiote. *Seminarixoan, 12:00etan.*

ARAMAIO Alaiak Jubilatuen

Elkarteko bazkideen eguna 12:00etan, meza; 13:00etan, luntxa; 14:30ean, bazkaria; eta bazkalostean, Alaiak Kantuan taldearen emanaldia. *Aramaion.*

ESKORIATZA Errekan Gora

13:00etan, Ibil Bedi taldea; 18:30ean, Gorosarri eta Lore Gazteak dantza taldeen emanaldia; 21:00etan, John Dealer & The Coconuts taldea; eta 21:00etan, Idoia Asurmendi. *Eskoriatzan.*

ARETXABALETA 'Lan ederra!' argazki erakusketa

Nara Dominguez argazkilariaren bilduma da. Leintz Bailarako kultura eta tradizioaren parte izan diren lanen funtsa eta historia batu ditu erretratuetan. Hilaren 25a da azken eguna. *Arkupen, 18:30ean.*

ARRASATE Mahai-futbol eta ping-pong txapelketak

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARRASATE Txikitxu-Arrostaitzen 55-35. urteurrenak

Txistor-pintxoak eta ardoa eskaini eta dantzan jardungo dute, nahi duenak parte har dezan. *Herriko Plazan, 19:30ean.*

BERGARA 'Orreagatik iragan hurbilera' antzezlan

Segurako Historia Oroituz antzezki taldearekin. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

DOMEKA 22

OÑATI Artzain Txakur

Txapelketa eta margo lehiaketa Egitarau osoa 18. eta 19. orrietan. *Oñatin.*

ARRASATE 'Arrasate-Eskoriatza-Arrasate' ibilaldia

Debalde. Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan, 09:00etan.*

ARAMAIO Sagardo Eguna

11:30ean, sagardo dastatzea Sastiñan; 12:30ean, Gesaltza fanfarrearekin kalejira eta txotx irekiera; eta ostean, sagar dantza Lagun Artean dantza taldekoekin. *Bizente Goikoetxea plazan.*

BERGARA Zabalotegiko jaiak

12:00etan, taloak eta Moises Azpiazu dantza taldearen erakustaldia; 13:00etan, Bernardo Y Sus Compadres taldea; 17:00etan, txotxongiloak; eta 17:30ean, bingo-jolasa. *Zabalotegi kalean.*

BERGARA Kantu jira

Jardun taldearen eskutik, kalerik kale abesteko aukera. Interesa duten herritar guztiendako. *San Martin plazan, 12:30ean.*

ESKORIATZA Errekan Gora jaialdia

13:00etan, Demode Quartet taldea; eta 19:30ean, Garratz. *Fernando Eskoriatza plazan.*

ARRASATE Gazte txokoek 30 urte: ospakizun jai

17:00etan, muralgintza; 18:30ean, txokolate-jana; 19:00etan, bideo emanaldia; eta 19:30ean, musika eta dantza. *Tren geltokiko gaztelekuan.*

OÑATI Hubris eta Rodeo taldeak

Burrunda Faktoriarekin. Sarrera: zortzi euro arrunta eta hiru murriztua. *Gaztetxean, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Kuarteleko kide izan nahi duzu?' bilera

Kultur elkarteko kideek herriko sortzaileen beharrak ezagutzeko batzar irekia egingo dute. *Kuartelean, 18:00etan.*

ASTELEHENA 23

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatuko dituzte Oñatin, Antzuolan, Bergaran eta Arrasaten. *Herri horietan, 12:00etan.*

OÑATI Pintura erakusketa: irekiera

20. pintura lehiaketan parte hartu duten lanak eta pintura ikastaroetako ikasleen lanak ikusteko aukera, urriaren 13ra arte. Sanmigeletan, itxita. *Kultura etxean, 18:00etan.*

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

Sanmigeletako ekitaldirako. *Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.*

OÑATI Nagusien danborradako entsegua

Konpainia guztiendako. *Eltzian, 19:30ean.*

MARTITZENA 24

ARRASATE 'Orratz-begia.

1936-Gipuzkoako gerra haurrak' erakusketa Gerran erbesteratutako umeak ardatz dituen bilduma ipini du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. Ikusgai, urriaren 12ra arte. *Kulturaten, 18:00etan.*



DEMODE QUARTET

ESKORIATZA Demode Quartet taldea

Donostiako laukoteak emanaldia egingo du Errekan Gora jaialdiaren baitan. Domekan emango du kontzertua. Baina egubakoitzean eta zapatuan ere egongo dira askotariko kontzertuak.

Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.

ANTZUOLA Hil Arte Biziren aurkezpena

Antzuolako etorkizuneko hilerria irudikatzen gogoetan jasotako ondorioak azalduko dituzte. *Olaran etxean, 18:00etan.*

BERGARA 'Guggenheim Urdaibai stop. Gure kulturaren eta naturaren defentsan' hitzaldia

Larramendiko Arnasa plataformaren, Pol-Poleko Mendia Bizirik taldearen eta Kukubasoren eskutik.

Irizar jauregian, 18:30ean.

EGUAZTENA 25**ESKORIATZA Tipi-tapa elkartean aurkezpena**

0-4 urte bitarteko haurrei eta haien familiei zuzenduta. Esperimentazio-gune bat sortuko dute.

Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.

ESKORIATZA Ate irekiak ludotekan

LHko lehenengo eta bigarren mailetako umeendako. Zizare koloretsuak egiteko aukera.

Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA 'Etxebizitza eta gazteak: dauden baliabideak eta aukerak ezagutu' hitzaldia

Eusko Jaurlaritzako Gazteen Emantzipaziorako Laguntza Zerbitzuaren eskutik.

Irizar jauregian, 17:30ean.

BERGARA Haurren aisialdia: iparra galtzen

Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko neska-mutikoentzako jolasak.

Oxirondo azokan, 17:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserritarren garaiako produktuak erosteko aukera.

Oxirondo azokan, 18:00etan.

ARRASATE 'Mantalingo alaba' emanaldi musikatu

Mikel Etxabururen izen bereko liburuan oinarritutako ikuskizuna, Aurrera Bolie Egunaren baitan.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Historia de un movimiento alemán de izquierda radical' liburuaren aurkezpena

Baskale elkarteko kide Klaus Armbrusterrek egingo du aurkezpena Angiolillo liburutegiak gonbidatuta, Faxismoa (k) jardunaldien baitan.

Kartzela zaharrean, 19:00etan.

OÑATI Nagusien danborradako azken entsegu

Hilaren 28ko danborradarako azken entsegu, konpainia guztiendako.

Eltzian, 19:30ean.

BERGARA 'Nina' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerek, hiru euro.

Seminarioan, 20:00etan.

EGUENA 26**ESKORIATZA Ate irekiak ludotekan**

Haur Hezkuntzako umeendako. Espazioa ezagutzeaz gain, haize-errotak egiteko aukera izango dute.

Ludotekan, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Gorputzen burujabetza' solasaldia

Eihera Kooperatibako kide batek, Berdintasun teknikari batek eta mugimendu transmariboloko kide batek hartuko dute parte, eta Bilgune Feministako kide batek dinamizatuko du saioa.

Arkupen, 18:00etan.

BERGARA Kartzelako Irakurketa Taldea

Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburuaren gaineko saioa egingo dute. Idazlea bertan izango da.

Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegu

Sanmigeletako ekitaldirako.

Kurtzebarriko kantxan, 19:00etan.

ESKORIATZA Esnargi kooperatibaren eratzea

Energia Berriztagarrien Kooperatiba eratzeko erabakia hartu dute eta herritarrei azalduko diete. Batzar irekia izango da.

Ibarrundi museoan, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 27**ESKORIATZA Ate irekiak ludotekan**

LHko 3. eta 6. maila arteko umeendako. Galderen jokoan jarduteko aukera izango dute.

Ludotekan, 17:00etan.

BERGARA Haurren aisialdia: altxorraren bila

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzako.

Oxirondo azokan, 17:30ean.

ARRASATE Kaitin Allenderen bakarrizketa

Arrasateko Pertsona Nagusien Astearen baitan.

Kulturaten, 17:30ean.

ZINEMA**ARRASATE****AMAJA ANTZOKIA**

Odio el verano
Zapatutik astelehenera: 19:30.

Gru 4: mi villano favorito
Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIOA**

Volveréis
Domeka eta astelehena: 19:30.

Lagunak erreskatara!
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Estación Rocafort
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Gru 4: mi villano favorito
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**BOULEVAR**

Transformers one
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik domeka: 20:00.
Astelehenera eguenera, martitzena izan ezik: 18:10, 20:20, 22:30.
Astelehenera eguenera: 17:30.
Martitzena: 18:10, 22:30.

Juega o muere
Egubakoitzetik eguenera: 19:15, 21:00, 22:45.

Puntos suspensivos
Egubakoitzetik domeka: 17:50, 19:55, 22:00.
Astelehenera eguenera: 17:50, 19:55, 22:40.

Jung Kook
Zapatua eta domeka: 18:00.

Topuria matador
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Bitelchús Bitelchús
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik domeka: 17:15, 19:30, 21:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:15, 22:30.

No hables con extraños
Zapatua eta domeka: 18:00, 20:15, 22:30.

FLORIDA
Puntos suspensivos
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.

La trampa
Egubakoitza: 22:35.

FLORIDA
Puntos suspensivos
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.

Justicia artificial
Zapatua eta domeka: 22:25.

Del revés 2
Egubakoitzetik domeka: 17:00.

Padre no hay más que uno 4
Egubakoitzetik domeka: 17:15.

Deadpool y Lobezno
Egubakoitzetik domeka: 19:30, 22:15.
Astelehenera eguenera: 22:00.

Gru 4: mi villano favorito
Egubakoitzetik domeka: 17:45.

domeka: 15:55.
Egubakoitzetik eguenera: 18:10, 20:25, 22:40.

Romper el círculo
Egubakoitzetik eguenera: 19:45, 22:20.

Buffalo Kids
Zapatua eta domeka: 15:45.
Egubakoitzetik domeka: 17:00.
Egubakoitzetik eguenera: 17:55.

Capitán avispa
Zapatua eta domeka: 15:50.

El 47
Zapatua eta domeka: 20:10.
Astelehenera eguenera: 17:00.

Justicia artificial
Zapatua eta domeka: 22:25.

Del revés 2
Egubakoitzetik domeka: 17:00.

Padre no hay más que uno 4
Egubakoitzetik domeka: 17:15.

Deadpool y Lobezno
Egubakoitzetik domeka: 19:30, 22:15.
Astelehenera eguenera: 22:00.

Gru 4: mi villano favorito
Egubakoitzetik eguenera: 17:45.

Odio el verano
Zapatua eta domeka: 16:00.
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:30, 22:45.

Parpadea dos veces
Egubakoitza eta astelehenera: 20:25.

La trampa
Egubakoitza: 22:35.

FLORIDA
Puntos suspensivos
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 20:30, 22:30.

Domeka: 16:00, 18:15.
Astelehenera eguenera: 17:15, 19:15.

Buffalo Kids
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:00, 16:30.

Odio el verano
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 18:30, 20:30.
Astelehenera eguenera: 17:00.

El 47
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 21:45.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.
Astelehenera eguenera: 16:45, 19:00.

Mi amigo el pingüino
Domeka: 12:00.

El teorema de Marguerite
ZEgubakoitza eta zapatua: 18:15, 22:30.
Domeka: 20:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 17:00.
Eguena: 16:45.

Justicia artificial
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30.
Domeka: 18:15, 20:30.
Astelehenera eguaztena: 18:45.

No hables con extraños
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:45.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.
Astelehenera eguenera: 16:45, 19:00.

Té negro
Eguenera, domeka izan ezik: 17:00.
Domeka: 20:30.

Zak y Wowo (euskaraz)
Domeka: 12:00.

Los destellos
Martitzena: 19:30.

Solo para mí
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehenera eguenera: 19:15.

Solos en la noche
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:40.
Domeka: 12:00, 16:30.

Transformers one
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:15, 19:30.
Martitzena: 17:15.

Una casa en llamas
Egubakoitza, zapatua eta eguena: 19:15.
Domeka: 20:30.
Astelehenera eguaztena: 19:30.

EIBAR


COLISEO

Un desastre es para siempre
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 19:30.

Reinas
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 19:30.

Isia perdida
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.

Mi amigo el pingüino
Zapatua eta domeka: 17:00.



'Mi amigo el pingüino' filma. ANTHONY DOD MANTLE



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Ez dago eskubiderik

Ez. Ez dago eskubiderik mundu mailan ikusten ari garen gerrak nola gailentzen ari diren giza eskubide eta pertsona bakoitzaren izatearen eta duintasunaren gainetik. Ukrainako, Gazako eta Ekialde Hurbileko azken egunotako gertakariak amaiezinak dirudite, eta okerrena zera da, guztioi azala gogortzen ari zaigula.

Ez dago eskubiderik gaur egun, oraindik ere, hainbeste diktadura normalizatzeko. Venezuelako agintariak telebistan ikusten ditudan bakoitzean, auzo-lotsa eta amorrazioa sortzen dizkirate; zenbat gezur herritarren izenean baina herririk gabe, zenbat kontrol. Maduro bere telebista katean zirkuan pailazok baino txorakeria gehiago esan eta egiten. Serioena, ordea, demokrazia bost axola zaiela, pertsonak bost, pertsonen bizitzak beste hainbeste, eta inolako pentsamendu politikok ez duela hori guztia justifikatzen.

Boterea eta kontrola, eta horretarako gizon-emakume edo haurrak atxilotu edo hil behar badira, gaitz erdi munstro horientzako! Horrelakoak egiten dituztenek ez dute demokrazia errespetatzen, diktadore hutsak dira, eta diktadoreak ezin dira zoriondu, eskuinekoak nahiz ezkerrekoak izan.

BUKATZEKO

Sua pizteko prest, baina egunaz gozatzeko asmoz

San Joxepe elkarteko erretiratuen sukaldari lehiaketa irabazita, Gipuzkoako finala jokatuko dute Jesus Zubikarai eta Txomin Dominguez antzularrek zapatuan Legazpin. Egin beharrekoa, paella bat prestatzea; helburua, egunaz gozatzea

Julen Murua Mesonero ANTZUOLA

Lapikoak prest dituzte dagoneko Legazpin; izan ere, zapatuan, hilaren 21ean, jokatuko da Gipuzkoako erretiratuen sukaldari lehiaketa, eta bailarako ordezkari egongo da bertan. Eskualdeetako lehiaketak jokatu ziren hilabete hasieran, eta Bergarako San Joxepe elkartean jokatu zen Debagoieneko erretiratu elkarten arteko lehiaketa, Antzuolako Landaxope elkarteko Jesus Zubikarai eta Txomin Dominguez gailendu ziren. San Joxepe elkartetik jaso zuten parte hartzeko gonbidapena antzularrek, eta, "kuadrillan sukaldari lanetan" ibiltzen direnez, lehiaketa agertzea erabaki zuten. Aitortu dute helburua ez zela "irabaztea", baina lehenengo saria jasotzearekin "oso pozik" amaitu zutela diote.

Valentziakoaren inbidiarik ez

Paella bat kozinatzea egokitu zitzaizen Bergarako lehiaketako parte hartzaileei, eta, antzularrek "egunerokotasunean beste gauza batzuk" kozinatzen badiutuzte ere, lehiaketa irabaztea lortu zuten. Finalaren bezperan, badakite oraingoan ere paella bat kozinatzea egokituko zaiela



Jesus Zubikarai eta Txomin Dominguez, Bergaran egindako paellarekin. GOIATZ ARANA

eta dagoeneko eskuak berotzen hasiak dira, arroza eta gainontzeko osagai guztiak lapikora botatzeko.

Bergarako lehiaketa arroza eta oilaskoa izan ziren osagai nagusiak; oraingoan, berriz, ez dakite arrozaz gain zer beste osagai erabili beharko duten, baina badaukate euren paella apaintzeko eta zapore biziagoa emateko zenbait tresna: "Bergarara eraman genituen osagai berberak eramango ditugu: piper berdea, tipula eta barrigorri batzuk. Debagoieneko lehiaketa egin genuen paella berdin-berdina egitea da gure asmoa, baina batek daki nolako aterako den bihar".

Irabaztea "nekeza"

Bergatik etxera eraman zuten garaikurra Zubikarai eta Dominguezek, eta, Legazpin Gipuzkoako erretiratuen sukaldari lehiaketa irabazteko aukerak badiutuzte ere, euren helburua garaipena lortzetik haratago doa: "Han irabaztea oso nekeza izango da, eta, gu geu horretara bagoaz ere, ez da gure helburu nagusia. Izan ere, gu gurea egitera joango gara, paella bat nola egiten dugun erakutsi, gure estilora egin, eta ea gustatzen zaien. Gainontzean, inguruko eskualdeetako kideekin elkartu, kozinatu, solasaldiak egin eta, oro har, erretiratu guztien artean egun ona igarotzea da gure helburu nagusia".

Kontuak kontu, "urdukitasunak alde batera utzi eta oso lasai" joango da Antzuolako bikotea Gipuzkoako sukaldari lehiaketako finalera, "bertan kozinatutakoa jateko eta egunaz gozatzeko helburuarekin".

ZELAKO UDA IZAN DA? ZER DIOTE DATUEK?

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN 'DATUETATIK TIRAKA'
IRAILAREN 25EAN, EGUAZTENA, 18:00/20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

